2013 Bilboko Urtekari Soziekonomikoa

BilbaoObservatorio

Aurkibidea

2013 Bilboko Urtekari Soziekonomikoa

Biztanleria 1. Kap
- Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura
- Atzerritik etorritako biztanleak
- Biztanleria: Errenta eta eskolatze- eta hezkuntza-maila

Ekonomia eta enpresa 2. Kap
- Ekonomia eta enpresa jarduerak
- Soldatapeko beharginak dituzten enpresak
- Autonomoen Araubideko afiliazioa
- Enpresen dinamikotasuna
- Ekoizpen ekonomia

Lan-merkatua 3. Kap
- Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia
- Afiliatutako biztanleak
- Erregistratutako kontratuak
- Erregistratutako langabezia

Merkataritza 4. Kap
- Merkataritza jarduerak eta enpresak
- Merkataritza jardueraren dinamikotasuna
- Soldatapeko enplegua
- Familien kontsumoa
- Sektorearen salmentak

Turismoa 5. Kap
- Turismo jarduera
- Biltzar eta bileretako turismoa

Informazioaren eta Berrikuntzaren Gizartea 6. Kap
- Bilbo, ezagutzan trinko bihurtzerantz doan hiri
- Informazioaren gizartea Bilbon
- Ikerketa, garapena eta berrikuntza
- Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinkoak
- Unibertsitatea ikerketa iturri

Kultura eta kirola 7. Kap
- Udalaren kultura jarduera
- Antzerkia, dantza eta musika jarduerak
- Jarduerak museoetan
- Liburutegiak
- Kirola

Etxebizitza 8. Kap
- Etxebizitza
- Higiezinen eskaintza

Garraioa eta Ingurumena 9. Kap
- Garraioa eta mugikortasuna
- Ingurumena

BilbaoObservatorio

Biztanleria

2013 Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

Biztanleria 1

- Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura
  - Biztanleen joan-etorriak
  - Biztanleria barruti eta auzoen arabera
- Atzerritik etorritako biztanleak
  - Nazionalitatearen arabera
  - Barrutien arabera
- Biztanleria: Errenta eta eskolatze- eta hezkuntza-maila
  - Errenta pertsonala eta familiakoa
  - Gizarte-babesa
  - Eskolatze-maila
  - Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza-maila

BilbaoObservatorio

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Bilboko biztanleak 349.869 ziren 2013ko urtarrilaren 1ean; hau da, 2012an baino 2.538 gutxiago (-% 0,7). Hortaz, 2000. urtetik aurrera 5.043 biztanle galdu ditu guztira hiribilduak, -% 1,4, alegia.

Bertan Bilboko metropoliko biztanleen % 38,5 batzen da (guztira, 908.549 lagun, 35 udalerritan): Bizkaiko biztanle guztien herena inguru (% 30,2).

Hiribilduak guztira 40,6 km^2-ko hedadura duenez, bertako biztanle-dentsitatea 8.607 biztanlekoa da km^2-ko. Estatu osoko probintzia hiriburu guztien artean datu handienetakoa da Bilborena, dentsitateari begira. Eustatek Biztanleen Udal Estatistikan (2013) argitaratutako datuen arabera, Bizkaiko batez besteko biztanle-dentsitatea 520,1ekoa da km^2 bakoitzeko, eta EAEkoa 301,4 biztanlekoa km^2-ko. Portugaleteren atzetik (14.838,3 bizt./km^2), Bilbo da, hain zuzen ere, biztanle-dentsitate handiena duen Euskadiko bigarren udalerria.

Bilboko biztanleriaren egitura nahiko egonkorra izan da azken urteotan. Emakumeak (% 52,8) gizonak (% 47,2) baino gehiago izanik, emakumeen proportzioa 112koa da, 100 gizoneko.

2013an, Bilboko biztanleria 349.869 lagunek osatzen zuten

Bilboko biztanleriaren batez besteko adina 45 urtetan geratu da (43 gizonen kasuan eta 47 emakumeenean). Haurrak (15 urtetik beherakoak) biztanle guztien % 12,2 baino ez dira, eta 30 urtetik beherakoak, laurdena pasatxo (% 25,9). 45 eta 64 urte bitartekoak guztirakoaren % 28,9 dira, eta 65 urte baino gehiago dituztenak % 22,7.

0 eta 44 urte bitartekoen kopurua, aldiz, gutxitu egin da 2012. urtearekin alderatuta (-% 2,4), batik bat 15 eta 29 urte bitartekoen artean (-% 3,4). Orobat murriztu da 65etik 84 urtera dituztenen kopurua (-% 0,1). Gainerako adin-tarteen kopuruak, aldiz, igo egin dira, bakoitza bere neurrira: kasurako, 45 eta 64 urte bitartekoen kopurua gutxi handitu da (% 1,1), baina 85 urte edo gehiago dituztenenak askoz argiago egin du gora (% 5,5).

Izan ere, biztanleriaren piramidean ikusitako gorakada aipagarriena nagusienen adin-tarteetan dago, biztanleriaren zahartze prozesuak Bilbon aurrera jarraitzen duen seinale.

Biztanleriaren bilakaera, 1960-2013



Iturria: Udal errolda.

Biztanleria, sexuaren arabera

	2012	2013	% 2013/12
Biztanleria	**352.402**	**349.869**	**-0,7**
Emakumeak	185.770	184.699	-0,6
Gizonak	166.632	165.170	-0,9

Iturria: Udal errolda.

Biztanleriaren piramideak erakusten du, bestalde, gizonezkoak gehiago direla 40 urtetik beherako adin-tarteetan. Nolanahi ere, adin horretatik aurrera, alderantzizkoa gertatzen da eta gizon baino emakume gehiago dago (124 emakume 100 gizoneko); adin nagusienekoen artean, bereziki, proportzioa zeharo handiagotzen da.

Azken urteetan, zahartze-indizea etengabe handitu da, 2013. urtean % 22,7ra heldu den arte. Bestalde, 85 urtetik gorako biztanleen kopurua gero eta handiagoa da hiribilduan: biztanle guztien % 3,6 izan dira 2013an, eta 65 urte edo gehiago zituztenen % 19.

Biztanleen % 22,7k 65 urte baino gehiago ditu, eta % 3,6k 85 baino gehiago

Mendekotasun-indizea % 53,6ra heldu da 2013an. Arrazoia, Bilboko biztanleriaren zahartze eta gainzahartze fenomenoaren etenik gabeko areagotzea. Egoera horrek, gainera, produktibitatearen ardura daukaten biztanleengan zama handitzea dakar (15-64 urte bitartekoak), ekonomikoki mendeko direnak (haurrak eta adinekoak) mantendu behar baitituzte.

Biztanleria, adinaren arabera

	2012	2013	% 2013/12
Biztanleria	**352.402**	**349.869**	**-0,7**
0-14 urte bitartekoak	42.834	42.670	-0,4
15-29 urte bitartekoak	49.764	48.085	-3,4
30-44 urte bitartekoak	81.089	78.704	-2,9
45-64 urte bitartekoak	99.816	100.949	1,1
65-84 urte bitartekoak	66.871	66.774	-0,1
85 urte edo gehiago	12.028	12.687	5,5
Guztirakoaren gaineko 0 eta 14 urte bitartekoen %	12,2	12,2	0,0 pp
Guztirakoaren gaineko 85 urte edo gehiagokoen %	3,4	3,6	0,2 pp
Mendekotasun-indizea*	52,8	53,6	0,8 pp

* Mendekotasun-indizea: Lan egiteko adinean daudenekin alderatuta (15-64 urte bitartekoak), biztanle inaktiboen (15etik beherakoak eta 64tik gorakoak) pisua neurtzen duen adierazlea.
Iturria: Udal errolda.

Biztanleria, adinaren arabera



Iturria: Udal errolda.

Biztanleen mugimenduak

Bilboko udalerriko erroldaren arabera, 16.000 alta eta 18.533 baja egon dira 2013an. Kontzeptu horretan, biztanleen mugimendu naturalak ez ezik, migrazioak ere sartzen dira.

Erroldatze horiek hurbiletik aztertzean zera ageri da: 2013an gauzatutako 16.000 alta erregistroen % 64,3 udalerriz aldatu izanagatik egin direla (guztira, 19.793). Gainerako alta erregistroak atzerritik etorritakoenak (10.293), jaiotzeenak (2.737) eta erroldan aipatzen ez zirenenak (1.053) dira.

Erroldan baja emandakoen artean (18.533 lagun 2013an), berriz, % 52,4 udalerriz aldatzeagatik eginak izan dira (9.720), eta % 19,7 heriotzengatik (3.659). Gainerako bajak bidegabe izena emanda egin direnak (3.886) eta atzerrira joandakoak (712) izan dira.

Bilboko migrazio-fluxuen emaitzak, beraz, 1.778 pertsonako saldo positiboa ekarri du, etorritakoak (immigrazioa) joandakoak baino gehiago izan baitira (12.210 eta 10.432, hurrenez hurren).

Eta azkenik, erroldaren analisiarekin amaitzeko, aipatzekoa da 2013an jaiotakoen kopurua hildakoena baino txikiagoa izan dela (2.737 jaiotza eta 3.659 heriotza). Hortaz, saldo begetatiboa negatiboa izan da, emaitza 922 pertsona gutxiagokoa izan baita. Jaiotzen kopuruak, gainera, behera egin du segidako laugarren urtez.

Etorkinen kopuruak behera egin du 2013an, baina, hala ere, migrazio-saldo positiboa du Bilbok

Biztanleriaren migrazio-mugimenduak

	2012	2013	% 2013/12
Immigrazioa	**13.954**	**12.210**	**-12,5**
Udalerria aldatzea	11.185	10.293	-8,0
Atzerritik itzultzea	2.769	1.917	-30,8
Emigrazioa	**10.829**	**10.432**	**-3,7**
Udalerria aldatzea	10.164	9.720	-4,4
Atzerriratzea	665	712	7,1
Migrazio-saldoa	**3.125**	**1.778**	**-43,1**

Iturria: Udal errolda.

Biztanleriaren mugimendu naturalak

	2012	2013	% 2013/12
Hazkunde begetatiboa	**-805**	**-922**	**14,5**
Jaiotzak	2.883	2.737	-5,1
Heriotzak	3.688	3.659	-0,8
Jaiotza-tasa gordina (bizt. ‰)	8,2	7,8	-0,4 pp
Heriotza-tasa gordina (bizt. ‰)	10,5	10,5	-0,0 pp

Iturria: Udal errolda.

Biztanleria barruti eta auzoen arabera

Bilbon zortzi barruti eta berrogei auzo daude, eta horien artean Ibaiondo da biztanle gehien hartzen dituen barrutia: 2013. urtean, 62.010 (Bilboko guztirako biztanleriaren % 17,7). Aldiz, 27.216 pertsonarekin, biztanle gutxien dituen barrutia Otxarkoaga-Txurdinagakoa da (guztirakoaren % 7,8).

Errekalden bizi direnen kopurua igo egin da, % 0,1 baino ez bada ere, 2012an izena emanda zeuden biztanleekin konparatuta. Gainerako barrutietan, aldiz, biztanleen kopuruak behera egin du. Horien artean, Otxarkoaga-Txurdinagako (-% 1,9) eta Begoñako (-% 1,3) jaitsierak dira aipagarrienak.

Biztanle-dentsitateari dagokionez, Abandoko (24.065 bizt./km²) eta Begoñako (23.578 bizt./km²) datuak udalerriaren batez besteko dentsitatearen halako hiru dira. Deustuko eta Uribarriko barrutietan ere Bilboko batez besteko dentsitatea gainditu da (10.066 bizt./km² eta 8.856 bizt./km², hurrenez hurren). Gainerakoak, ordea, ez dira batez besteko horretara iritsi; horien artean, Basurtu-Zorrotza izan da batez besteko dentsitate txikiena izan duen barrutia (4. 610 bizt./km²).

Bilbo: Zortzi barruti, eta horien barnean, berrogei auzo

Auzoz auzoko azterketan, Santutxu (32.504 biztanle), Indautxu (27.637), Abando (23.839) eta Deustuko San Pedro (20.754) nabarmendu daitezke biztanle gehien dituztenen artean, lau auzo horietan batzen baita Bilboko biztanleria osoaren % 30 2013an. Kontrakoa gertatzen da Olabeaga, Elorrieta, Loruri eta Erriberan, horietako bat ere ez baita heltzen 1.300 biztanleko kopurura.

Aurreko urteko datuekin alderatuta, 34 auzotan galdu dituzte biztanleak. Jaitsiera adierazgarrienak Santutxu, Iralabarri, Otxarkoaga, San Frantzisko, Uribarri, Txurdinaga, Indautxu eta Deustuko San Pedron gertatu dira (horiexek dira, beraz, datu absolutuetan 150 bizilagun baino gehiago galdu dituzten auzoak). Errekaldeberrin, Miribillan, Bilbo Zaharrean, Lorurin, Solokoetxen eta Olabeagan, berriz, gora egin dute biztanleen kopuruek: 565, 257, 125, 47, 10 eta 6, hurrenez hurren.

Biztanleria eta biztanle-dentsitatea barrutien arabera

	2012	2013	% 2013/12	Hab./Km²
Biztanle kop.	**352.402**	**349.869**	**-0,7**	**8.607**
Abando	51.852	51.476	-0,7	24.065
Basurtu-Zorrotza	32.841	32.683	-0,5	4.610
Begoña	42.295	41.750	-1,3	23.578
Deustu	50.189	49.838	-0,7	10.066
Errekalde	47.773	47.814	0,1	6.867
Ibaiondo	62.183	62.010	-0,3	6.426
Otxarkoaga-Txurdinaga	27.735	27.216	-1,9	6.980
Uribarri	37.534	37.082	-1,2	8.856

Iturria: Udal errolda.

Ibaiondo da biztanle gehien dituen barrutia, eta Abando biztanle-dentsitate txikiena duena

Bilboko biztanleriaren bilakaera 2012-2013an, auzoen arabera



Sei auzotan, bizilagunen kopurua handitu egin da 2013an

Iturria: Udal errolda.

Atzerritik etorritako biztanleak

Atzerritarrak dagoeneko biztanleriaren % 8,2 dira Bilbon; 2013. urtean, 28.523 pertsona, guztira. Horrek esan nahi du azken urteetako goranzko joera aldatu egin dela: izan ere, 2002tik hona, lehenengo aldiz jaitsi da atzerritarren kopurua aurreko urteko datuarekin alderatuta. 2013. urtean, 2012an baino 1.668 atzerritar gutxiago bizi izan dira Bilbon (-% 5,5).

Biztanleria atzerritarra erdiko adin-tarteetan kokatzen da, batik bat; hortaz, orokorrean, nahiko gaztea dela esan daiteke. Hona hemen 2013ko datuak: biztanle atzerritar guztien % 56,0 25 eta 44 urte bitartekoa da, eta % 12,9 14 urtetik beherakoa; izan ere, 65 urtetik gorakoak % 1,6 besterik ez dira. Sexuaren araberako datuei begira ez dago alde handirik; erroldatutako gizonezkoak emakumezkoak baino gutxi batzuk gehiago dira, ez besterik: 14.257 eta 14.266, hurrenkera horretan.

Atzerritarrak dagoeneko biztanleriaren % 8,2 dira

Biztanle atzerritarrak



Iturria: Udal errolda.

Nazionalitatearen arabera

Atzerritarren artean Amerikatik etorritakoak nabarmendu behar dira, Bilbon bizi diren etorkin guztien erdia baino gehiago dira-eta (% 48,9). Ugarienak, horien ondoren, Afrikatik (% 23,8), Europako beste herrialde batzuetatik (% 18,0) eta Asiatik (% 9,2) etorritakoak dira.

Azterketa herrialdez herrialde eginez gero, emaitzak hauek dira Bilbon: gehienak Boliviatik (2013an, 4.151 lagun), Kolonbiatik (2.527), Marokotik (2.490) eta Errumaniatik (2.354) etorri dira. Lau nazionalitate hauetako biztanleak, guztira, Bilbon 2013an zenbatu diren atzerritar guztien % 40,4 dira. 2010ean, gainera, % 44,1 izatera heldu ziren.

Biztanleria atzerritarra

	2012	2013	% 2013/12
Biztanle atzerritarrak	**30.191**	**28.523**	**-5,5**
Emakumeak	14.963	14.266	-4,7
Gizonak	15.228	14.257	-6,4
0-15 urte bitartekoak	4.047	3.956	-2,2
16-24 urte bitartekoak	4.241	3.755	-11,5
25-44 urte bitartekoak	17.072	15.980	-6,4
45-64 urte bitartekoak	4.359	4.369	0,2
65 urte edo gehiago	472	463	-1,9
Europa	5.227	5.152	-1,4
Afrika	7.018	6.782	-3,4
Amerika	15.238	13.950	-8,5
Asia	2.687	2.620	-2,5
Ozeania	16	17	6,3
Herrigabeak	3	1	-66,7
Bolivia	4.500	4.151	-7,8
Kolonbia	3.060	2.527	-17,4
Maroko	2.572	2.490	-3,2
Errumania	2.434	2.354	-3,3
Gainerako herrialdeak	17.625	17.001	-3,5
atzerritarren %, biztanle guztiekiko	**8,6**	**8,2**	**-0,4**

Iturria: Udal errolda

Barrutien arabera

Bilboko barruti guztietan daude atzerritarrak, baina lekuaren arabera, gehiago edo gutxiago dira erroldatzen direnak. Hamar atzerritarretik zazpi lau barruti hauetan bizi dira: Ibaiondo (% 26,9), Errekalde (% 17,6), Deustu (% 12,4) eta Abando (% 11,7). Errekalden baino ez da igo atzerritarren kopurua, aurreko urtearekin erkatuta (% 0,7). Gainerako barrutietan alderantzizkoa gertatu da, hots, atzerritar gutxiago egon dira. Bereziki esanguratsuak dira Abando, Uribarri eta Begoñan ikusitako jaitsierak (-% 8,1, -% 7,6 eta -% 7,5, hurrenez hurren).

2013ko Bilboko guztirako biztanleriaren eta atzerritarren banaketa barrutien arabera (%)



Iturria: Udal errolda.

Biztanleria: Errenta eta eskolatze- eta hezkuntza-maila

Errenta pertsonala eta familiakoa

Eustatek biztanleen Errenta pertsonalaren eta familiakoaren gainean osatu duen azken estatistikaren arabera (2011), Bilbon bizi diren 18 urte edo gehiagokoen batez besteko errenta pertsonala 19.787 eurokoa da, 2009an neurtutako aurreko datutik % 1,5 behera. Bizkaian, bestalde, batez besteko errenta pertsonala % 0,3 jaitsi eta 19.187 eurotan geratu da 2011n, eta EAEn batez bestekoa 19.715 eurokoa izan da, 2009an baino % 0,4 gehiago.

Hiribilduko biztanleen batez besteko errenta pertsonalak Bizkaikoen datua eta EAEkoena ere gainditzen ditu

Laneko errenta pertsonala 12.062 eurokoa izan da, batez beste; 2009an baino % 1,8 gutxiago. Ohiko legez, horixe izan da, beraz, biztanleen diru-sarrera nagusia.

Errenta pertsonal erabilgarriari dagokionez (hau da, guztirako errenta ken Errentaren gaineko zerga eta langileak ordaintzen dituen gizarte kotizazioak), Bilboko batez bestekoa 16.520 eurotan dago, 2009an baino % 2,5 behera.

Familiako batez besteko errenta (familia bereko kideen errenta pertsonalen batuketa) 41.920 eurokoa izan zen 2011n; hau da, 2009an erregistratutako batez besteko diru-sarrerak baino % 2,8 handiagoa. Hortaz, Bilboko batez besteko datua Bizkaikoaren (41.476 euro) gainetik eta Euskal Autonomia Erkidegokoaren (42.192 euro) azpitik geratu zen urte horretan.

Laneko errenta pertsonalak diru-sarrera nagusien iturri izaten jarraitzen du

Batez besteko errenta pertsonala eta familiakoa (€), esparruaren arabera, 2009-2011

	2009		2011		▲▼	
ESPARRUA	Errenta pertsonala	Familiako errenta	Errenta pertsonala	Familiako errenta	Errenta pertsonala	Familiako errenta
EAE	19.631	42.729	19.715	42.192	0,4	-1,3
Bizkaia	19.241	42.191	19.187	41.476	-0,3	-1,7
Bilbo Handia	19.317	42.179	19.203	41.376	-0,6	-1,9
Bilbo	**20.081**	**43.119**	**19.787**	**41.920**	**-1,5**	**-2,8**

Iturria: Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika, Eustat.

Batez besteko errenta pertsonala

	2006	2009	2011	% 2011/09
Errenta pertsonala (€)	**18.196**	**20.081**	**19.787**	**-1,5**
Emakumeak	13.195	15.060	..	..
Gizonak	23.931	25.828	..	..
Laneko errenta pertsonala (€)	**10.749**	**12.285**	**12.062**	**-1,8**
Emakumeak	7.300	8.860	..	..
Gizonak	14.704	16.205	..	..
Errenta pertsonal erabilgarria (€)	**15.099**	**16.951**	**16.520**	**-2,5**
Emakumeak	11.152	12.939	..	..
Gizonak	19.624	21.544	..	..

.. : Datu hau ez dago eskuragarri.
Iturria: Eustat.

Familiako batez besteko errenta

	2006	2009	2011	% 2011/09
Familiako errenta (€)	**39.679**	**43.119**	**41.920**	-2,8
Emakumeak	31.782	34.740	..	..
Gizonak	44.632	48.985	..	..
Familiako laneko errenta (€)	**23.521**	**26.455**	**25.615**	-3,2
Emakumeak	17.422	20.151	..	..
Gizonak	27.345	30.869	..	..
Familiako errenta erabilgarria (€)	**32.908**	**36.383**	**34.984**	-3,8
Emakumeak	26.583	29.600	..	..
Gizonak	36.875	41.132	..	..

.. : Datu hau ez dago eskuragarri.
Iturria: Eustat.

Errenta altuenak dituztenak Abandon eta Indautxun bizi dira

Nolanahi ere, auzoz auzoko datuek erakusten dutenez, bilbotarren errenta maila oso desberdina da non bizi diren arabera, errenta pertsonalari zein familiakoari dagokionez.

Errenta pertsonalen zerrendaburua Abandoko auzoa izan zen 2011n, 32.572 eurorekin; gero, Indautxu (32.461 euro), eta askoz atzerago, Castaños (27.482 euro). Bilbon, lau auzotik bakarra zegoen urte horretan hiribilduko errenta pertsonalaren batez besteko datuaren gainetik. Errenta pertsonal txikienak, berriz, auzo hauetakoak ziren: San Frantzisko (10.866 euro), Otxarkoaga (10.271 euro) eta Iturrigorri-Peñaskal (9.794 euro). Azken auzo honetan erregistratutako datua hiribilduko batez bestekoaren erdia da, gutxi gorabehera.

Familiako errenta handienak ere Abandoko (2011n, 70.283 euro), Indautxuko (69.785 euro) eta Castañoseko (56.410 euro) auzoetan daude. Txikienak, aldiz, Uretamendin (22.544 euro), Iturrigorri-Peñaskalen (21.247 euro) eta Otxarkoagan (21.291 euro). Guztira, 12 izan ziren 2011. urtean hiribilduko batez bestekoaren gainetiko familiako errenta izan zuten auzoak: 2009an adina, beraz.

Gehieneko eta gutxieneko familiako errenta auzoaren arabera, barrutiz barruti. 2011



Iturria: Eustat. Errenta pertsonalaren eta familiakoaren gaineko estatistika.

Errenta pertsonala eta familiakoa. Bilboko datuak, auzoz auzo, 2011

Auzoa	Errenta pertsonala	Familiako errenta
Abando	32.572	70.283
Altamira	12.629	25.801
Ametzola	21.352	44.816
Arabella	14.161	27.465
Arangoiti	13.634	29.630
Atxuri	14.724	29.240
Basurtu	21.666	46.675
Begoña	21.483	48.374
Bilbo Zaharra	12.982	25.594
Bolueta	14.264	30.722
Alde Zaharra	22.409	43.562
Castaños	27.482	56.410
Loruri	22.546	48.467
Errekaldeberri	15.532	32.077
Ibarrekolanda	20.101	44.704
Indautxu	32.461	69.785
Iralabarri	18.123	37.930
Iturralde	17.587	37.019
Iturrigorri-Peñascal	9.794	21.247
Abusu	14.178	30.182
Erribera	15.146	27.240
Larraskitu	13.670	28.046
Masustegi-Mintegitxueta	18.039	39.158
Matiko	17.681	36.672
Miribilla	24.322	45.647
Olabeaga	15.096	28.920
Otxarkoaga	10.271	21.291
San Adrian	17.219	37.768
San Frantzisko	10.866	24.660
San Inazio	18.316	37.966
Deustuko San Pedro	22.841	50.242

Auzoa	Errenta pertsonala	Familiako errenta
Santutxu	16.057	33.253
Solokoetxe	17.348	37.554
Txurdinaga	18.724	43.660
Uretamendi	11.008	22.544
Uribarri	15.642	32.306
Zabala	13.255	27.020
Zorrotza	14.791	31.777
Zurbaran	18.524	39.910
Uretamendi	11.008	22.544
Uribarri	15.642	32.306
Zabala	13.255	27.020
Zorrotza	14.791	31.777
Zurbaran	18.524	39.910

Iturria: Eustat. Errenta pertsonalaren eta familiakoaren gaineko estatistika.

Gizarte-babesa

EAEko familiak pobrezia-mailari dagokionez zein egoeratan dauden jakiteko Eustatek egin duen azken inkestak (Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta -2012-) emaitza txar baten berri eman digu: pobreziari eta urritasunari lotutako estutasun molde larrienen gorakada, 2008tik 2012ra.

Estutasun molde horiek tarteko, euskal etxeek are zailtasun gehiago izan dute ohiko betebehar eta gastuei aurre egiteko, hain zuzen ere, diru-sarreren eskasiarekin zuzenean lotuta dauden neurrian.

Hortaz, inkestaren arabera, pobrezia-tasa ia 2 puntu igo da galdeketarako kontuan hartutako epean, % 7,6tik % 9,5era, eta horrez gain, aintzat hartzekoa da, baita ere, Erkidego osoan dauden txiro guztien % 27,6 udalerrian bertan bizi direla.

16.152 familiak jaso du diru-sarrerak bermatzeko errenta, eta gizarte-larrialdietarako 5.050 laguntza banatu dira

Baldintza hauetan ulertzekoa da administrazio publikoek ahalegin are handiagoa egitea eta berariaz diseinatutako ekintzak bideratzea, errenta maila eskasa izateagatik egoera larrian edo baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonengan pentsatuta. Hain justu ere, Bilboko Udalak eta, bereziki, Gizarte Ekintzako Sailak gizarte-politikak bultzatzen dituzte horrelako estualdiek pertsonengan duten eragina ahalik eta gehien arintzeko.

Horrexegatik, 2013. urte amaieran erakundeek Bilbon banatutako Diru-sarrerak bermatzeko errentako prestazioak 16.152 izan ziren, 2012an baino % 4,9 gehiago.

Gizarte-larrialdietarako laguntzei dagokienez, 2013an 6.089 eskaera izapidetu dira, eta horiei erantzuteko 5.050 diru-laguntza banatu dira (2012an baino % 18,5 gehiago), 4,4 milioi euro ordainduta, guztira.

Beste barrutiekin alderatuta, San Frantzisko-Abusuko biztanleek jaso dute Gizarte-larrialdietarako laguntza gehien (766, guztira), eta horien atzetik, Otxarkoaga-Txurdinagakoek (645) eta Santutxu-Boluetakoek (624).

Bestalde, biztanleek jasotako gizarte-larrialdietarako laguntza kopuruen urtetik urterako gorakada handienak Alde Zaharrean, San Frantzisko-Abusun eta Irala-San Adrianen ikusi dira.

Udalaren Laguntza Bereziak ere igo egin dira aurten, % 26,7, eta sail horretan egindako guztirako gastua 738.000 eurotik gertu egon da.

Ordaindutako gizarte-larrialdietarako laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen arabera

	2012	2013	% 2013/12
Ordaindutako laguntzak, guztira (kop.)	**4.263**	**5.050**	**18,5**
Deustu-San Inazio	403	460	**14,1**
Uribarri-Zurbaran	375	439	**17,1**
Otxarkoaga-Txurdinaga	572	645	**12,8**
Santutxu-Bolueta	539	624	**15,8**
Alde Zaharra	347	441	**27,1**
San Frantzisko-Abusu	625	766	**22,6**
Irala-San Adrian	320	392	**22,5**
Errekalde-Peñaskal	464	552	**19,0**
Abando	227	232	**2,2**
Zorrotza	180	204	**13,3**
Basurtu-Altamira	211	249	**18,0**
Sakabanatutakoak	-	46	

Iturria: Bilboko Udala.

Eskolatze-maila

Argitaratutako Biztanleen eta Etxebizitzaren azken Erroldaren (2011) arabera, Bilboko biztanleen artean, ikasten ari ez direnen % 18k unibertsitateko goi mailako titulua daukate: 50.000 pertsona, 2010ean baino % 2,5 gutxiago. Talde horretakoei erdi edo goi mailako ikasketak dituzten biztanleak gehitzen badizkiegu, guztira, 72.601 pertsona dira.

Ikasten ari ez diren biztanleen % 18k unibertsitate ikasketak ditu

Ikasten ari ez diren biztanle horien artean, bigarren mailako ikasketak eta lanbide heziketakoak egin dituztenak % 19,7 eta % 14,0 dira, hurrenez hurren. Bestalde, % 35,4k lehen mailako ikasketak dituzte, eta % 4,6k ez dute ikasketarik.

Ikasten ari ez direnek aurretik egindako ikasketak

	2001	2006	2010	2011	% 2011/10
Eskolagabeak eta Ikasketarik ez dutenak	**278.061**	**279.393**	**284.210**	**274.963**	**-3,3**
Lehen mailakoak	16.488	14.973	13.524	12.549	-7,2
Lanbide Heziketako ikasketak	124.596	105.111	101.042	97.181	-3,8
Bigarren mailakoak	31.955	35.482	36.490	38.511	5,5
Erdi-goi mailakoak	43.201	54.055	58.387	54.121	-7,3
Goi mailakoak	20.938	22.777	24.011	23.121	-3,7
Superiores	40.883	46.995	50.756	49.480	-2,5

Iturria: Eustat.

Ikasten ari diren biztanleen hezkuntza-maila

Bilbon hainbat ikasketa zentro dago, publikoak eta pribatuak, EAEn eskaintzen diren hizkuntza-ereduetan prestakuntza aukera anitz ematen dutenak. Gainera, hiribildukoak ez ezik, beste lurralde batzuetako ikasle asko ere erakartzen dituzte.

Bilbon unibertsitateko 20.000 ikasle baino gehiago dago

Araubide Orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioa

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, Bizkaiko Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioaren % 27,6 eta EAE osokoaren % 14,0 Bilbon eskaintzen da. 2012-2013 ikasturtean 54.569 ikasle egon dira araubide horretan izena emanda; horietako % 55,7 sare pribatuan eta gainerako % 44,3 publikoan.

Bilbon 54.569 ikasle dago Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioetan

Hizkuntza-ereduei dagokienez, Bilbon ikasle gehien hartzen dituena D eredua da (% 40,6), eta ondoren, A (% 29,8) eta B (% 28,4). Sare publikoan, D eredua hautatzen duten ikasleak % 59,7 dira, eta pribatuan % 25,4. B ereduak ikasleen % 5 baino ez du erakartzen sare publikoan, eta sare pribatuan, berriz, % 47,1. Azkenik, A ereduari atxikitakoak guztirako ikasleen % 35 dira sare publikoan eta % 25,3 pribatuan. X ereduan ikasten ari direnak, aldiz, 669 ikasle dira Bilbon; denak ere, sare pribatuan daude.

Araubide orokorreko ikasleen banaketa, mailaren eta lurraldearen arabera, 2012-13

	HAUR HEZK.	LEHEN HEZK.	DBH	HLPP eta HHE	BATX.	LH	HB	GUZTIRA
Bilbo	**12.299**	**16.283**	**10.732**	**3.631**	**5.217**	**6.219**	**188**	**54.569**
Bizkaia	48.053	62.471	37.300	19.354	15.083	15.271	577	197.818
EAE	96.713	122.139	73.940	35.952	29.444	31.734	1.164	391.086

(*) Haur Hezkuntzako eta Lehen mailako Berariazko Hezkuntza Berezia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Zereginen Ikaskuntza.
Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Araubide Bereziko irakaskuntza

Araubide Bereziko irakaskuntza hiru arlo nagusitan antolatzen da: irakaskuntza artistikoak (musika, dantza eta arte plastikoak eta diseinua), hizkuntzen irakaskuntza eta kirol-irakaskuntzak, LOGSE legearen arabera.

2012-2013ko ikasturteko datuen arabera, araubide bereziko irakaskuntza 135 zentrok eskaintzen dute EAEn; guztira, 2.586 irakasle eta matrikulatutako 85.514 ikasle ari dira zentro horietan.

Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioko zentroak Bilbon

	2013
Araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioko zentroak	**140**
Haur hezkuntza (1. zikloa)	85
Haur hezkuntza (2. zikloa)	66
Lehen hezkuntza	63
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	46
Batxilergoa	35
Lanbide Heziketa (Erdi edo goi maila)	44
Hezkuntza Berezia	14
Helduen Hezkuntza (HHE)	9
Lanbide Hastapena	10
Araubide berezikoak	**..**
Musika Ikastegiak (Oinarrizko maila eta erdi maila)	12
Musika Eskolak	6
Hizkuntza Eskolak	1
Dantza Ikastegiak (Oinarrizko maila)	0
Arte plastikoko eta diseinuko zentroak (Goi maila)	3
Kirol irakaskuntzako zentroak (Erdi maila)	1

Iturria: Bilboko Udala. Hezkuntza Saila.

Unibertsitateko irakaskuntza

2012-13 ikasturtean, unibertsitateko 66.472 ikasle aritu dira EAEko hiru lurraldeetako unibertsitate publiko eta pribatuetan; hortaz, kopuru hori % 1,3 igo da aurreko urtearekin alderatuta. Ikasle horien erdiek baino gehiagok Bizkaian ikasten dute; guztira, 36.660k (17.078 gizonek eta 19.582 emakumek).

Unibertsitateko ikasleak, Bilbon, UPV-EHUkoak eta Deustukoak batuta, 20.000 baino gehiago dira. UPV-EHUk 11.377 ikasle ditu, eta Deustuko Unibertsitateak 9.983.

Unibertsitateko ikasleak Bilbon, 2012-13 ikasturtea

	2012-13
UPV/EHU	**11.377**
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fak.	2.965
Industria Ingeniaritza Teknikoko Unib. Eskola	2.041
Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioak GET	3.021
Irakasleen Unib. Eskola (*)	0
Enpresa Ikasketen Unib. Eskola	1.409
Beste fakultate batzuk:Meatzeetako Unib. Eskola (**)	745
Medikuntza Basurtuko Osp. 288, Medikuntza Gurutzetako Osp. 291 (***)	579
Graduondoko ikasketak	617
Deustuko Unibertsitatea (****)	**9.983**
Zuzenbide Fakultatea	1.124
Ingeniaritza Fakultatea	899
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	1.571
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	1.938
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	1.882
Beste fakultate batzuk	169
Graduondoko ikasketak	2.400

* 2012az geroztik ez dago martxan Bilbon, Leioara eraman dute.
** Meatze eta Herri-lan Ingeniaritza Teknikoko Unib. Esk. Bilbora aldatu dute.
*** Medikuntza eta Odontologiako Irakaskuntza-unitateak, Basurtuko Ospitalean eta Gurutzetako Ospitalean.
**** Deustuko Unibertsitateko campus guztietako ikasleak.
Iturria: UPV-EHU eta Deustuko Unib.

Ekonomia eta Empresa

2013 Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

Ekonomia eta Empresa

2 Ekonomia eta enpresa jarduerak
- Erradiografiak jarduera sektoretan
- Banaketa barrutietan

Soldatapeko beharginak dituzten enpresak

Autonomoen Araubideko afiliazioa

Enpresen dinamikotasuna
- Merkataritza elkarte berriak
- Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan
- Kontratu erregistratuak

Ekoizpen ekonomia
- Eraikuntza
- Industria
- Zerbitzuak
- Kanpo merkataritza

BilbaoObservatorio

Ekonomia eta enpresa jarduerak

2013. urte amaieran Bilboko udalerriak 36.758 jarduera ekonomiko biltzen ditu. Hala, balantze positibo batez egin liteke berba, jarduera hauen kopurua % 2,2 hazi denez 2012ko urtearen aldean. Honek 784 jarduera lizentzia gehiago esan gura du. Guztien arteko % 74,4 dira enpresa jarduerak (27.732), % 23,8 profesionalenak (8.743), eta % 0,8 artistikoak (283).

Balio absolutuetan, hazkundea handiagoa da enpresa jardueretan (458 jarduera gehiago, % 1,7), ondoren datorkio profesionalena (321 jarduera gehiago, % 38), eta azkenik artistikoak (5 jarduera gehiago, % 1,8).

Bilbon 2013an % 2,2 hazi ziren jarduera ekonomikoak

Erradiografiak jarduera sektoretan

Sektorekako azterketa batean abiatuz gero, berehala jabetuko gara zerbitzu sektoreak duen garrantziaz hirian, bertan biltzen dira-eta gainera, bai sektoreko enpresa jarduerak, zein jarduera profesionalak. Jarduera hauen guztiek, bateratuak, negozio guztiaren % 89 osatzen dute, eta denera, 32.880 lizentzia pilatzen. Eraikuntzak bere aldetik lizentzien % 6 batzen du (2.218), industriak % 4 (1.377) eta jarduera artistikoek % 1 (283).

2012ko urtearen aldean, lizentzia kopuruaren garapena positiboa izan da sektore gehienetan, salbu Industriakoan. Eraikuntza % 6,2 hazi da (1340 lizentzia gehiago). Zerbitzuak % 2,1 (671 lizentzia gehiago), eta Jarduera artistikoak % 1,8 (5 lizentzia gehiago). Aipatu dugun Industria sektorearen atzerapenak, lizentzien % 1,6ko galera izan du (22 lizentzia kopuru absolutuan).

Ekonomia eta enpresa jarduerak

	2012	2013	Var. Abs.	% 2013/12
Jarduera ekonomikoak	**35.974**	**36.758**	**784**	**2,2**
Enpresa jarduerak	**27.274**	**27.732**	**458**	**1,7**
Industria	1.399	1.377	-22	-1,6
Eraikuntza	2.088	2.218	130	6,2
Zerbitzuak	23.787	24.137	350	1,5
Merkataritza	8.701	8.753	52	0,6
Ostalaritza	3.085	3.063	-22	-0,7
Finantza zerb. eta aseguruak	854	847	-7	-0,8
Higiezinak	944	948	4	0,4
Enpresendako zerbitzuak	4.078	4.238	160	3,9
Bestelako zerbitzuak	6.125	6.288	163	2,7
Jarduera profesionalak	**8.422**	**8.743**	**321**	**3,8**
Jarduera artistikoak	**278**	**283**	**5**	**1,8**

Lizentzia kopurua. Urteko azken hiruhilekoaren datuak. Kanpo utzi dira lehen sektoreko jarduerei dagozkien datuak.

Jardueraren banaketa barrutietan

Abandoko barrutia da, hiriko finantza, merkataritza eta zerbitzuetako erdigunearekin bat datorrenez, ekonomiaren jarduera handiena bereganatzen duena. 2013. urte amaieran dituen 13.895 lizentziek biltzen dituzte hiri osoko 10 jardueretatik 4 (% 37,8).

Nabarmentzekoak dira zerbitzu sektorearen lizentziak, denera 13.533, eta beraiek bakarrik ere monopolizatzen dute ia-ia barruti guztiko enpresa eta negozioetako jarduera (% 97,4). Hauetatik 9.756 dira enpresa jarduerak: merkataritza, jatetxeak eta ostalaritza (3.982); garraioa eta komunikazioak (306); finantza erakundeak, aseguruak eta enpresendako zerbitzuak (3.782); eta bestelako zerbitzuak ere (1.680). Gainerakoak, beste 3.783 lizentzia, jarduera profesionalei dagozkie. Hauen artean pisu nabarmena erakusten dute zerikusirik dutenak zuzenbidearen profesionalek eskaintzen dituzten zerbitzuekin (1.392).

Guztiz bestelako egoera batean aurkitzen dugu berriz Otxarkoaga-Txurdinagako barrutia, ez ditu-eta 611 jarduera lizentzia baino biltzen, hiri osoko guztien % 1,7. Edozelan, hain zuzen barruti hauxe izan da bere lizentzia kopurua gehien hazi duena ehunekoetan (% 4,4).

Barruti honetan ere, hiri osoan legetxe, Zerbitzuetakoa da sektore nagusi, eta berak bakarrik biltzen du barrutiaren jarduera guztiaren % 94,8, denera 589 lizentzia. Jardueren artean xehatuz, merkataritza, jatetxeak eta ostalaritza dira jarduera esangura tsuenak, 298 lizentziaz, diren lizentzia guztien bitik bat ere.

Hiri barruti guztietan, pisurik nabarmenena duten jarduerak dira txikizkako merkataritza eta ostalaritza. Azpimarratzekoak dira ere finantza eta zuzenbidearen zerbitzuekin zerikusia duten jarduera profesionalak, bereziki, Abandoko barrutian erakusten duten kontzentrazio mailagatik.

Txikizkako merkataritza eta ostalaritza dira barruti guztietan pisu handieneko jarduerak

Ekonomia jarduerak barrutietan

	2012	2013	% 2013/12
Ekonomia jarduerak	**35.974**	**36.758**	**2,2**
Deustu	3.397	3.457	1,8
Uribarri	1.698	1.726	1,6
Otxarkoaga-Txurdinaga	595	621	4,4
Begoña	2.347	2.369	0,9
Ibaiondo	3.996	4.053	1,4
Abando	13.677	13.895	1,6
Errekalde	2.490	2.492	0,1
Basurto - Zorrotza	1.765	1.789	1,4
Barrutika zehaztu barik	6.009	6.356	5,8

Lizentzia kopurua. Urteko azken hiruhilekoaren datuak. Kanpo utzi dira lehen sektoreko jarduerei dagozkien datuak.
Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Soldatapeko beharginak dituzten enpresak

2013. urte amaieran, Bilbon Gizarte Segurantzan erregistraturiko enpresa kopurua, 20.742koa izan da, eta horrek 230 enpresako beherakada absolutua esan gura du; % 1,1eko jausia ehunekoetan, 2012. urte amaierakoaren aldean.

20.472taraino jaitsi da soldatapeko beharginak dituzten enpresen kopurua

Hiriko enpresa egituran, gehiengo dira zerbitzuetako enpresak; guztira 19.032 lizentziaz, udalerriko enpresa ehunduraren % 93 osatzen dute. Sektorearen barruan, merkataritzan diharduten enpresak dira ugarienak, guztien % 14, azkenean, urte osoa kontuan, garapen negatiboa erakutsi duten arren, % 2,8ko jaitsieraz (85 lizentzia gutxiago). Kopuruari begira, bigarren lekuan agertzen dira jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen artean bildutako enpresak, guztira 1.572 lizentziaz, eta guztien % 7,6 dira. Edozelan ere, hauek bariazio positiboa ezagutu dute urtean, % 0,6ko hazkundeaz.

Industria eta energiaren sektoreak jardueraren % 3 hartzen du, eta 607 enpresa ditu Gizarte Segurantzan erregistraturik, 2013. urtean zehar sektorea % 4,0 uzkurtu bada ere. Azkena, lehen sektorea ageri da, 22 enpresaz. Ez du apenas pisurik hirian.

Soldatapeko behargindun enpresak

	2012	2013	% 2013/12
Enpresak	**20.702**	**20.472**	**-1,1**
Lehen sektorea	**18**	**22**	**22,2**
Industria eta Energia	**632**	**607**	**-4,0**
Eraikuntza	**887**	**811**	**-8,6**
Zerbitzuak	**19.165**	**19.032**	**-0,7**
Merkataritza	3.000	2.915	-2,8
Garraioa	572	535	-6,5
Ostalaritza eta ostatu zerbitzuak	1.258	1.283	2,0
Informazioa eta komunikazioak	381	389	2,1
Finantza zerb. eta aseguruak	359	362	0,8
Higiezinak	339	347	2,4
Profesional, zientifiko eta teknikoak	1.562	1.572	0,6
Administrazio eta laguntza zerb.	647	631	-2,5
Administrazio publikoa	112	116	3,6
Hezkuntza	347	356	2,6
Osasun eta gizarte zerbitzuak	915	935	2,2
Kultura eta olgeta jarduera zerb.	244	235	-3,7
Bestelako zerbitzuak	9.429	9.356	-0,8

Enpresa kopuruak, gutxienez soldatapeko langile bat darabiltenenak.
Urte bakoitzeko abenduari dagozkion datuak.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Autonomoen Araubideko afiliazioa

Autonomoen Araubidean afiliaturiko herritar kopurua 2013aren abenduan, % 0,6 jausten da Bilbon urte arteko datuei begira. Denera 22.155 pertsona dira, urtean barrena 138 afiliazio galdu ondoren.

Autonomo kopuru guztiaren barruan, zerbitzu sektorean biltzen dira gehienak (% 82,3), eta nabarmen ikusgarri gertatzen dira Txikizkako Merkataritza alorrean afiliaturikoak. Hauek, Ostalaritzakoez batera, 6.667 dira, eta autonomoen araubidean afiliaturiko herritarren hirutik bat ia. Nabarmentzekoak dira ere jarduera profesional, zientifiko edota teknikoetako afiliatuak, denera 2.337 (guztien arteko % 10,7).

Pisu handiena duten jarduera hauen artean, txikizkako merkataritzan afiliaturiko pertsonen kopurua % 1,3 jausi da (4.187 afiliatu, 57 gutxiago); ostalaritzan % 0,7 murriztu da kopurua (2.480, 17 pertsona gutxiago); eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan berriz hazi egin da % 2,9 (2.377, 66 gehiago).

Jarduera motak aipatzearren, hazkunde nabarmenenak ematen dira ehunekoetan Informazio eta Komunikazioetan (% 7,6), Finantza eta Aseguruetan (% 6,0), eta Hezkuntzan (% 4,5). Aldiz, afiliaturiko autonomo kopuruaren jaitsiera esanguratsuenak Garraio eta biltegiratze sektorekoak (% -3,5), Administrazio eta laguntza zerbitzuetakoak (% -3,5), eta Ibilgailuen salmenta eta konponketakoak (% -3,2).

Autonomoen Araubideko afiliazioa

	2012	2013	% 2013/12
Afiliatuak (kop.)	**22.293**	**22.155**	**-0,6**
Lehen sektorea	**54**	**57**	**5,6**
Industria eta Energia	**1.399**	**1.354**	**-3,2**
Eraikuntza	**2.614**	**2.508**	**-4,1**
Zerbitzuak	**18.226**	**18.236**	**0,1**
Txikizkako merkataritza	4.244	4.187	-1,3
Ostalaritza	2.497	2.480	-0,7
Handizkako merkataritza	1.610	1.605	-0,3
Jarduera profesional, tekniko eta zientifikoak	2.311	2.377	2,9
Garraio eta biltegiratzea	1.573	1.518	-3,5
Zerbitzu pertsonalak	1.512	1.497	-1,0
Osasungintza eta gizarte zerbitzuak	1.014	1.045	3,1
Administraziok jarduerak eta laguntza zerbitzuak	631	609	-3,5
Informazioa eta Komunikazioak	540	581	7,6
Hezkuntza	535	559	4,5
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	469	454	-3,2
Finantza jarduerak eta aseguruak	436	462	6,0
Jarduera artistikoak, olgeta eta entretenimendurakoak	362	368	1,7
Bestelako zerbitzuak	492	494	0,4

Gizarte Segurantzaren Autonomoen Araubidean erregistraturiko herritar kopuruak, beren jarduera ekonomikoa Bilbon garatua dutenak.
Urte bakoitzeko abenduari dagozkio datuak.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Enpresen dinamikotasuna

Merkataritza elkarte berriak

Elkarte berrien sortzea zertxobait bizkortu da 2013an

2013an 834 elkarte berri sortu ziren Bilbon. Elkarte ekonomiko berri horien % 78,4 dira hiriko zerbitzu sektoreari erantsi zaizkionak, % 16,2 eraikuntzan, eta % 5,3 industria jardueretan. Elkarte berrien sortzeko dinamikotasuna hainbat geldotua gertatu da aurten, ez dira-eta denera 2012 urtean baino 4 elkarte berri gehiago sortu, % 0,5eko bat gehiago baino ez urte arteko konparazian.

Hala Industria eta Energiaren sektoreak, zelan Eraikuntzakoak, hazi egin dute sorturiko enpresa kopurua aurreko urtekoen aldean. 10 gehiago lehenengoaren kasuan eta 25 bigarrenarenean. Zerbitzuen sektorean berriz 27 elkarte berri gutxiago sortu dira, % 4,0ko jaitsiera urte artean. Lehen sektorearen kasuan, enpresa berrien sortzea testigantza baino ez da izan: elkarte berri bakarra sortu da 2013an.

Zerbitzu sektore barruko jarduera desberdinen artean berriz, azpimarratzekoak dira Enpresa eta higiezinendako zerbitzuek eta Merkataritzak erakusten dituzten beherakadak (52 eta 16 gutxiago hurrenez hurren). Hala eta ere, Finantza zerbitzuek, Ostalaritzak eta Garraio eta biltegiratzekoak sortu dituzte aurreko urtean baino 17, 13 eta 12 elkarte gehiago, hurrenez hurren.

Merkataritza elkarte berriak

	2012	2013	%2013/12
Elkarte berriak	**830**	**834**	**0,5**
Lehen sektorea	**5**	**1**	**-80,0**
Industria eta Energia	**34**	**44**	**29,4**
Eraikuntza	**110**	**135**	**22,7**
Zerbitzuak	**681**	**654**	**-4,0**
Merkataritza	191	175	-8,4
Ostalaritza	59	72	22,0
Garraioa eta komunikazioak	38	40	5,3
Finantza zerbitzuak	42	59	40,5
Enpresa eta higiezinendako zerbitzuak	250	198	-20,8
Bestelako zerbitzuak	101	110	8,9

Merkataritza elkarte berrien kopurua.
Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera eta Merkataritza Erregistroa.

Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

% 5,4 gehiago dira erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko zergan

Ekonomia Jardueren gaineko Zergan erregistraturiko alta kopurua ere jo genezake enpresa dinamikotasunaren adierazle, bertan erakusten direnez negozio egoitza berriak ezartzeko erregistroak. Bilboren kasuan, 2013ko urte amaierarako, 5.900 izan dira erregistro berriak zerga honetan, eta horrek % 5,4ko igoera erakusten du.

Erregistro berrien kopuru osoan erakusten duten pisuagatik nabarmentzen dira enpresa jardueretakoak, denera 4.810, eta guztien % 70,8 dira. 2013. urtean % 0,2 hazi da kopuru hau; balio absolutuetan, 7 erregistro berri gehiago 2012. urtean baino.

Edozelan, jarduera profesionaletan gertatzen da bariaziorik nabarmenena, urte arteko aldaketa % 22ra ere iristen denez, aurreko urtekoaren aldean. Kopuru absolutuetan, 296 erregistro berri gehiago dira, 1.644tara iritsita, guztien % 27,9.

Sektorekako azterketari ekinez, industria da hazkuntza daturik hoberena erakusten duena ehunekoetan, % 12,0 hazten da 2012. urtearen aldean (15 erregistro berri gehiago). Eraikuntza % 6,3 hazten da, 623 erregistro berri gehiagoz urtearen barruan (49 erregistro gehiago).

Jardueren xehetasunari begira, Merkataritzak eta Jatetxeen arloak erakutsi dute dinamikotasun handiena, % 9,5 eta % 5,5eko hazkundeez, hurrenez hurren. Beste muturrean aldiz, Finantza erakundeetako erregistroak % 30,9 amildu ziren, eta Higiezinetako jarduerak berriz % 25,0.

Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

	2012	2013	Var %2013/12
Jarduera ekonomikoetako erregistro berriak (kop.)	**5.599**	**5.900**	**5,4**
Enpresa jardueretako erregistro berriak (kop.)	**4.173**	**4.180**	**0,2**
Industria	125	140	12,0
Eraikuntza	774	823	6,3
Zerbitzuak	3.274	3.217	-1,7
Merkataritza	1.159	1.269	9,5
Jatetxeak	529	558	5,5
Finantza erakundeak, aseguruak	188	130	-30,9
Higiezinetako jarduerak	68	51	-25,0
Enpresendako zerbitzuak	497	464	-6,6
Bestelako zerbitzuak	833	745	-10,6
Erregistro berriak jarduera profesionaletan (kop.)	**1.348**	**1.644**	**22,0**
Erregistro berriak jarduera artistikoetan (kop.)	**78**	**76**	**-2,6**

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Erregistraturiko kontratuak

Hiriak 2013an bizi duen egoera ekonomikoaren latza islatua ageri da Bilboko enpresek erregistraturiko kontratu kopuruan ere, eta hauek % 10,1eko jaustea erakutsi dute 2012ko urtekoen aldean. Kopuru absolutuetan, 145.469 kontratu sinatu ziren, 16.305 gutxiago aurreko urte guztian baino, eta hauetan, gehiago dira kalteturiko emakumezkoak (% -11,4) gizonezkoak baino (% -8,3). Adinari dagokionez, jaitsierarik nabarmenena gazteenen artean gertatzen da, 16 eta 24 urte bitartekoen artean, eta hauek % 20,5 kontratu gutxiago sinatu dituzte.

Kontratuak % 10,1 jausten dira, eta areago emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino

Jarduera sektoreei bagagozkie, Lehen sektorean % 16,4 hazi ziren kontratu sinatuak, hauen garrantzia ondo txikia den arren kopuru absolutuari begira (243). Hazi ziren ere kontratuak Industria sektorean, % 3 kasuan, eta 3.279tik igaro ziren 3.387 kontratu erregistratu izatera. Zerbitzuen kasuan, hiriko sektorerik garrantzitsuena, bai berezko pisuagatik, zein sektorean erregistraturiko kontratu kopuruarengatik, jaitsiera % 10,7koa izan da, eta 152.248 kontratutik 2012. urtean, igaroko da 135.913 izatera 2013an.

Jarduerei dagokienean, sinaturiko kontratu kopuruaren ikuspuntutik, nabarmenenak dira Administrazio eta laguntza zerbitzuetakoak (47.297), Osasungintza eta gizarte zerbitzuetakoak (19.653), Ostalaritza (14.489) eta Merkataritzakoak (12.412). Azken urtean soilik Osasungintza eta gizarte zerbitzuetako sektorea hazi da (% 10,8). Beste guztiak jausi egiten dira eta (% -15,2; % -3,3; eta % -0,1).

Erregistraturiko kontratuak

	2012	2013	Var %2013/12
Kontratu erregistratuak (kop.)	**161.774**	**145.469**	**-10,1**
Emakumezkoak	89.488	79.250	-11,4
Gizonezkoak	72.286	66.269	-8,3
16 eta 24 urte bitartean	28.825	22.902	-20,5
25 eta 44 urte bitartean	100.330	93.229	-7,1
45 eta urte gehiago	32.619	29.338	-10,1
Lehen sektorea	214	249	16,4
Industria	3.279	3.387	3,3
Eraikuntza	6.033	5.921	-1,9
Zerbitzuak	152.248	135.913	-10,7
Finkoak, eta finko bihurtuak	15.259	9.523	-37,6
Aldi batekoak	146.515	135.946	-7,2

Iturria: SEPE.

Ekoizpen ekonomia

Eraikuntza

Jarduera ekonomikoak

114 eraikuntza lizentzia gehiago 2013. urtean

Eraikuntzako sektoreak bere arnasa berreskuratu du Bilbon 2013. urtean, eta 2.976 jarduera lizentzia bereganatu ditu, % 4,0ko hazkundea erakutsiz (114 lizentzia gehiago), hainbat gainetik, hirian batez beste lizentzia kopuru osoak erakutsi duen bariazio positiboaren aldean (% 2,2).

Enpresa jardueren kasuan, lizentzia kopurua 130ean hazi da, guztira 2.218 izateraino, eta horrek % 6,2ko hazkundea erakusten du. Beste muturrean, eraikuntzarendako zerbitzuetako jarduera profesionalak % 2,1 jaitsi dira, eta 774tik 2012an, igaroko dira 758 izatera 2013an. Hauen artean azpimarratzekoa da arkitekto, arkitekto tekniko eta aparejadoreen multzoa, denera 609 lizentzia bildu dituztenak, guztien % 80.

Sektoreak mantendu egin du bere pisua hiriko ekonomia alorren artean lizentzia kopuruari dagokionean, eta % 8,0tik % 8,1era igaro da (ehuneko 0,1 puntu gehiago).

Eraikuntza

	2012	2013	Bariazioa 2013/12
Guztira - Jarduera Ekonomikoak - Bilbo	**35.974**	**36.758**	**2,2 %**
Guztira - Jard. Ekon. - Bilbo - Eraikuntza	**2.862**	**2.976**	**4,0 %**
Jarduera Ekonomikoak - Eraikuntza	2.088	2.218	6,2 %
Eraikuntzarako Zerb. Jard. Profesionalak	774	758	-2,1 %
Eraikuntza sekt. pisua - Bilbo - Lizentzia kop./g	**8,0%**	**8,1%**	**0,1 % pp**

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Afiliatuak

Jarduera ekonomikoen kasuan ez bezala, herritar afiliatuen kopuruak eraikuntzaren sektorean negatiboak izaten jarraitu dute. Eta 2012an jasan zuen afiliatu kopuruaren jaitsierari erantsi behar zaio 2013ko jaitsiera berria. Urte honetan igarotzen da Gizarte Segurantzan 9.574 pertsona afiliatu izatetik, 8.584 izatera, 990 afiliazio galdurik, % 10,3. Jaitsiera bolumen hau askoz handiagoa da hiriko enpresek batez beste jasan behar izan duten afiliazio galera baino, hau 2013an % 2,1eko izanik.

Afiliazio guztietatik, 3.013 (% 35) dagozkio -zorrotz- eraikuntza sektoreari, eta 5.571 berriz (% 65) eraikuntzarendako jarduera osagarriei. Edozelan, jaitsiera berdintsua da lehenengoen artean, % 11,0ko jausiaz, 872 lanpostu galduta, zein jarduera osagarrikoen artean ere, % 10eko jaitsieraz eta 618 afiliaturen galeraz.

Afiliazioaren pisua sektore honetan ehuneko 0,5 jaitsi da 2013an aurreko urtearen aldean, eta Bilboko afiliatu guztien % 5,7 izatetik igaroko da % 5,2 izatera.

Afiliatuak

	2012	2013	Bariazioa 2013/12
Afiliatuak (kop.)	**167.362**	**163.854**	**-2,1 %**
Eraikuntza	**9.574**	**8.584**	**-10,3 %**
Eraikuntza	3.385	3.013	-11,0 %
Eraikuntzaren osagarriak	6.189	5.571	-10,0 %
Sektorearen pisua (%)	**5,7**	**5,2**	**-0,5 pp**

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Autonomoen Araubidean afiliatuak

Behargin Autonomoen Araubide Berezian afiliaturiko pertsona kopurua % 4,1 jaisten da 2012. urtekoaren aldean, eta 2.614 afiliaziotik igarotzen 2.508ra. Jaitsiera handiagoa da autonomoen kopuru osoan gertaturikoa baino (% -0,6). Afiliatu hauen bolumena % 11,3koa da guztien aldean.

Autonomoen Araubidean afiliatuak

	2012	2013	Bariazioa 2013/12
Autonomoen Araub. afiliatuak (kop.)	**22.293**	**22.155**	**-0,6 %**
Eraikuntza	2.614	2.508	-4,1 %
Autonomoen pisua sektorean (%)	**11,7**	**11,3**	**-0,4 p.p.**

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Etxebizitzen gaineko oniritziak eta lizitazio-eskaintzak

Jardueraren adierazle gisa Bizkaiko etxebizitzen gaineko oniritziak eta lizitazio-eskaintzak harturik, jarduera oso gogor zehatua gertatu da 2013. urtean. Oniritzien kopurua % 20,2 jausi da, hala obra berrikoen artean (% -21,1), zelan zabaltze edo/eta berriztatzeei dagozkienetan ere (% -15,0).

Oniritziak

	2012	2013	Bariazioa 2013/12
Etxebizitza oniritziak (kop.)	**2.236**	**1.784**	**-20,2**
Obra berrikoak	1.916	1.512	-21,1
Zabaltze edo/eta berritzeak	320	272	-15,0

Iturria: Sustapen Ministerioa.

Obra publikoaren eskaintza-lizitazio datuak ere Administrazioaren arlo honetako murrizketen isla dira, % 44,4 jausi direnez, eta 605,2 milioi eurotako baliotik 2012an igaroko dira 336,5 milioi izatera 2013an. Jaitsiera hau hainbat eman da eraikuntzan (% -51,0), zein obra zibilean (% -41,0).

lizitazio-eskaintzak

	2012	2013	Bariazioa 2013/12
Obra publikoaren eskaintza (milioi €)	**605.222**	**336.502**	**-44,4**
Eraikuntza	205.801	100.863	-51,0
Obra zibila	399.421	235.639	-41,0

Iturria: SEOPAN.

Industria

Jarduera ekonomikoak

Industriak sektoreak udalerrian hainbat moteldu du bere jaitsiera 2013. urtean, jarduera lizentzia kopurua % 0,1 baino ez du-eta murriztu (2 lizentzia gutxiago baino ez sektorean). Halaz eta ere, sektorearen portaera okerragoa da jarduera guztien batez bestekoa baino, hau % 2,2 hazi denez.

Edozelan, jaitsiera txiki horretan ere islatzen da, batetik enpresa jarduerek, eta bestetik profesionalek, erakutsi duten portaera desberdina. Enpresa jarduerak % 1,66 gutxitu dira (22 lizentzia gutxiago), eta industriarendako zerbitzu jarduera profesionalak aldiz % 8,4 igo dira, 20 jarduera gehiagoz.

Sektorearen pisua hiriko ekonomian bere horretan mantendu da, ez duenez ehuneko 0,1 puntu baino galdu 2013an, eta azkenik, Bilbo guztiko lizentzia kopuru osoaren % 4,5ean geratu da.

Jarduera ekonomikoak

	2012	2013	Bariazioa 2013/12
Guztira – Jarduera Ekonomikoak - Bilbo	**35.974**	**36.758**	**2,2 %**
Guztira – Jarduera Ekonomikoak – Bilbo - Industria	**1.638**	**1.636**	**-0,1 %**
Enpresa jarduerak - Industria	1.399	1.377	-1,6 %
Industriarendako zerbitzu jarduera profesionalak	239	259	8,4 %
Industria sekt. pisua – Bilbo – Lizentzia kop./g	**4,6**	**4,5**	**-0,1 pp**

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Afiliatuak

Eraikuntzako afiliazioa % 3,6 jautsi da

Industria sektorean afiliaturikoen kopuruari dagokionez, Bilboko enpresek 9.240 pertsona enplegatu dituzte, udalerri osoan afiliaturiko pertsona kopuruaren % 5,6. Hauetatik 5.692 (% 62) dagozkio industriari, 1.521 (% 16) energiaren azpisektoreari, eta 2.027 (% 22) ur eta hondakinenari. Aurreko urtekoen parean, sektoreko afiliazioak gehiago jaitsi dira afiliazio guztien batez bestekoa baino (% -3,6 eta % -2,1 hurrenez hurren).

Afiliatuak

	2012	2013	Bariazioa 2013/12
Afiliatuak (kop.)	**167.362**	**163.854**	**-2,1 %**
Industria eta Energia	**9.581**	**9.240**	**-3,6 %**
Industria	6.020	5.692	-5,4 %
Energia	1.483	1.521	2,6 %
Ur eta hondakinak	2.078	2.027	-2,5 %
Sektorearen pisua (%)	**5,7**	**5,6**	**-0,1 p.p.**

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Industria Produkzioaren Indizea

Bizkaiko industria produkzioak oraindik jarraitzen du 2008an hasi zuen beheranzko bidean, nahiz eta izan zituen zenbait albiste positibo ere 2010 eta 2011. urteetan. Hala, Bizkaiko Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) 2012an erakutsi zuen % 7,3ko jausialdiari, 2013an % 4,4koa gehitu behar zaio. 2008. urtetik adierazle hau % 29,7 jaitsi da.

Industria Produkzioaren Indizea



Iturria: EUSTAT.

Zerbitzuak

Jarduera lizentziak

Zerbitzuetako sektoreak ere, hiriko ekonomian duen pisuagatik, hiriko beste jarduera guztien antzeko bilakaera erakusten du, eta 32.880 lizentzia dauzka 2013an, aurreko urtean baino % 2,1 gehiago (671 lizentzia gehiago). Kopuru honetan biltzen dira 24.137 enpresa jarduera eta beste 8.743 jarduera profesionalei dagozkienak (hauen barne, aurreko azterketa atalean jasotako eraikuntza eta industriari eskainitako zerbitzu jarduerak). Biek ere datu positiboak erakusten dituzte, azkenik profesionalen hazkundea handiagoa bada ere enpresa jarduerena baino (% 3,8 eta % 1,5 hurrenez hurren). Sektorearen pisua lizentzia kopuru guztiaren aldean % 89,4koa da, aurreko urtekoaren parekoa (ehuneko 0,1 puntu gutxiago).

Enpresa jardueren artean, merkataritza, jatetxeen arloa eta ostalaritza dira lizentzia kopuru handiena dutenak, lizentzia guztien bitik bat ere ia, 2013an denera 12.615. Bigarren lekuan ageri dira finantza erakundeak, aseguruak eta enpresendako zerbitzuak, 4.626 lizentziaz guztira.

Jarduera profesionalei dagokienean nabarmentzekoak dira finantza eta zuzenbide zerbitzuekin zerikusia dutenak (3.903), eta hauen artean bereziki dira azpimarratzeko zuzenbideko lizentzia profesionalak, are zehatzago abokatuenak (1.161 lizentzia 2013an). Aipatzekoak dira ere bestelako zerbitzuekin loturiko lizentzia kopuruak; hauen artean hezkuntza eta irakaskuntzaren profesionalenak dira denera 2.799 lizentzia.

Jarduera lizentziak

	2012	2013	% Bariazioa 2013/12
Guztira – Jarduera Ekonomikoak - Bilbo	**35.974**	**36.758**	**2,2 %**
Guztira – Jarduera Ekonomikoak - Bilbo - Zerbitzuak	**32.209**	**32.880**	**2,1 %**
Enpresa jarduerak - Zerbitzuak	23.787	24.137	1,5 %
Jarduera profesionalak - Zerbitzuak*	8.422	8.743	3,8 %
Zerbitzu sektorearen pisua – Bilbo – Lizentzia kop./g	**89,5**	**89,4**	**-0,1 p.p**

*Barne ditu industriari zein eraikuntzari eskainitako zerbitzuak, jada aurreko ataletan ere kontuan hartuak
Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Afiliatuak

Zerbitzu sektoreko afiliatuen kopuruari dagokionez, Bilboko enpresetan 145.714 dira afiliaturiko pertsonak, hirian afiliatuak diren guztien % 89. Ehunekorik handiena, merkataritzari dagokio (% 14), eta ondotik datozkio administrazio jarduerak, zerbitzu osagarriak eta hezkuntza (% 11). Urte arteko alderatzean, zerbitzu sektoreko afiliazioak gutxiago jausi dira (% -1,4), afiliazio guztien kopurua baino (% -2,1).

Hiri osoko afiliatuen % 89 dago afiliatua zerbitzuen sektorean

Urte arteko bilakaerarik baikorrena ematen da gizarte zerbitzuetako afiliatuen artean (% 3,2) eta osasungintzan (% 2,0). Okerrena berriz, finantza zerbitzuak eta aseguruen sektorean (% -6,4) eta kultura eta olgeta zerbitzuetan (% -5,7).

Afiliatuak

	2012	2013	% Bariazioa 2013/12
Afiliatuak (kop.)	**167.362**	**163.854**	**-2,1**
Zerbitzuak	**147.833**	**145.714**	**-1,4**
Merkataritza	21.476	20.861	-2,9
Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak	16.461	16.472	0,1
Hezkuntza	15.669	15.941	1,7
Jard.profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	11.342	11.152	-1,7
Administrazio Publikoa	10.577	10.409	-1,6
Osasungintza	11.589	11.822	2,0
Gizarte zerbitzuak	7.549	7.793	3,2
Finantza eta aseguruak	9.046	8.471	-6,4
Garraio eta biltegiratzea	9.331	8.817	-5,5
Ostalaritza	8.553	8.575	0,3
Informazioa eta komunikazioak	7.158	6.749	-5,7
Etxeko behargileak	6.784	6.848	0,9
Kultura eta olgeta	3.175	2.991	-5,8
Ostatu zerbitzuak	1.206	1.158	-4,0
Higiezinak	1.166	1.200	2,9
Bestelako zerbitzuak	**6.751**	**6.455**	**-4,4**

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Zerbitzu sektorearen Salmenta Indizea

2013. urteko egoera ekonomiko petrala nabarmen islatuko da Zerbitzu sektorearen Salmenta Indizean ere, eta 94,0 puntuetatik igaroko da 89,7ra, % 4,6ko jausiaz, benetan adierazgarria Bilbo bezalako hiri batean, bertan horren handia izanik zerbitzu sektorearen pisua.

Bilakaerarik okerrena erakutsi duten jarduerak aurreko urtekoaren aldean, dira Informazioa eta komunikazioak (% -11,4) eta Ostalaritza (% -10,5), eta oso hurbiletik datozkie ondotik administrazio zerbitzuak eta osagarriak (% -9,5) eta Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (% -8,0). Ostera, soilik Garraioak eta biltegiratzeak erakutsi dute zelanbaiteko hobetzea (% 0,6).

Zerbitzu sektorearen Salmenta Indizea

	2012	2013	% Bariazioa 2013/12
Zerbitzu sektorearen Salmenta Indizea	**94,0**	**89,7**	**-4,6**
Merkataritza	95,1	92,3	-2,9
Garraioa eta biltegiratzea	92,7	93,3	0,6
Ostalaritza	94,2	84,3	-10,5
Informazioa eta komunikazioak	85,3	75,6	-11,4
Jard. Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	96,3	88,6	-8,0
Administrazio jard. eta zerbitzu osagarriak	92,0	83,3	-9,5

Fuente: EUSTAT.

Kanpo merkataritzar

Bizkaiko kasuan, ondasun eta zerbitzuen esportazioek 2013. urtean 8.464,7 milioi euroko kopurua iritsi zuten, baina denera ere aurreko urteko kopurua baino % 0,3 gutxiago. Inportazioen kasuan berriz, kopurua % 2,5 igo zen, guztira 10.328,1 milioi euro. Ondorio gisa, merkataritza saldo negatiboa 280,5 milioi euro hazi da, eta -1.582,9 milioi eurotik 2012an, igaro -1.863,4 milioitara 2013an.

Kanpo merkataritzar

	2012	2013	% Bariazioa 2013/12
Esportazioak* (Milioi €)	8.491,1	8.464,7	-0,3
Inportazioak* (Milioi €)	10.074,1	10.328,1	2,5
Merkataritza saldoa* (Milioi €)	**-1.582,9**	**-1.863,4**	

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa (DATACOMEX) Bizkaia.

Lan Merkatua

Lan-Merkatua 3

- Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia
  - Jarduera
  - Okupazioa
  - Langabezia
- Afiliatutako biztanleak
  - Afiliazioa, erregimenaren arabera
  - Afiliazioa, sektorearen eta jarduera-arloaren arabera
- Erregistratutako kontratuak
- Erregistratutako langabezia

2013 Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

BilbaoObservatorio

Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia

Jarduera

Biztanleria aktiboa % 3,8 jaitsi da

EINren 2013ko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, Bilboko biztanleria aktiboaren datua (lana dutenak gehi langabetuak) 168,2 milioi pertsonakoa da. Ia alderik ez dago, gainera, emakumeen eta gizonen artean: % 51 eta % 49, hurrenez hurren.

Jarduera-tasaren datuak aztertzean, berriz, askoz nabariagoa da batzuen eta besteen arteko aldea, gizonak gehiago baitira. 2013. urtean, hain justu ere, 16 urte edo gehiagoko gizonezkoen % 63,5 okupatuta egon da edo lan bila aritu da; egoera berean egon diren emakumeak, aldiz, % 52,4 izan dira.

Aurreko urteko batez bestekoarekin alderatuta, 2013an lan egiteko moduan zeuden biztanleak % 3,8 gutxitu dira (termino absolututan, 6.600 pertsona gutxiago). Adierazle horri dagokionez, bilakaera okerragoa izan du emakumeen datuak (-% 4,3) gizonenak baino (-% 3,5).

Jarduera-tasa % 57,5ekoa izan da, aurreko urtean baino portzentajezko 0,3 puntu beherago. Jaitsiera nahiko desberdina izan da gizonen eta emakumeen artean: lehenengoei dagokienez, 0,8 pp, eta bigarrenak, aldiz, 0,1 pp. Hortaz, EAEko batez bestekoaren parean geratu da, baina, aldi berean, Estatu osoaren datutik beherago (% 60).

Biztanleria aktiboaren etengabeko beherakadaren oinarrian arrazoi hauek guztiak daude: lan egiteko adina daukaten biztanleak gero eta gutxiago izatea; bizilekua berton duten atzerritarren kopurua murriztea; ikasten ari den 25 urtetik beherako gazte gero eta gehiago egotea; eta, azkenik, asko eta askoren gogorik eza, nahiz eta lan egiteko modua duten, hainbatek ez baitute lana bilatzen, aurkituko ez dutela uste dutelako.

16 urte edo gehiagoko biztanleria aktiboa eta jarduera-tasa

	2012	2013	% 2013/12
Biztanleria aktiboa (milakoetan)	**174,8**	**168,2**	**-3,8**
Emakumeak	86,3	82,6	-4,3
Gizonak	88,4	85,3	-3,5
Biztanleria okupatua	145,2	137,8	-5,1
Biztanleria langabetua	29,6	30,4	2,7
Jarduera-tasa (%)	**57,85**	**57,51**	**-0,3***
Emakumeak	52,46	52,41	-0,1*
Gizonak	64,31	63,47	-0,8*

* Aldea portzentajezko puntutan.
Iturria: EIN.

Okupazioa

Bilboko biztanle okupatuak 137.800 izan dira 2013an: beraz, hamar pertsona aktibotik ia zortzik enplegu bat izan dute (% 82). Urtetik urterako batez bestekoa % 5,1 jaitsi da 2012. urtearekin alderatuta (7.400 pertsona gutxiago zenbaki absolututan). Enplegu-tasak, aldi berean, portzentajezko 0,9 puntu egin du behera, eta batez bestekoa % 47,12koa izan da.

Hamar pertsona aktibotik zortzik lana dute: 137.800 pertsona

2013an, emakumeek gehiago nabaritu dute okupazioaren beherakada gizonek baino (-% 5,6 eta -% 1,8, hurrenez hurren), aurreko urtearekin konparatuta. Lan-merkatuan batzuek eta besteek izan duten presentziari dagokionez ere, emakumeak okerrago aritu dira, aurreko urtean baino gutxiago izan baitira (2012an % 50,8, eta 2013an % 49,5).

Emakumeen enplegu-tasa (% 43,3) portzentajezko puntu eta erdi jaitsi da, eta are txikiagoa izan denez, gizonen datutik (% 51,6) beherago jarraitzen du. Sexuen arteko aldea portzentajezko 8,3 puntutan mantendu da 2013. urtean.

Bilboko guztirako enplegu-tasa % 47,1ekoa izan da; horrek esan nahi du estatuko batez bestekoaren (% 44,4) gainetik dagoela, baina Euskal Autonomia Erkidegokoaren azpitik (% 47,9), hala ere.

Jardueraren araberako azterketak erakusten duenez, zerbitzuen sektorean sartzen dira Bilbon bizilekua duten biztanle okupatu gehienak (% 82,4): guztira, 113.600 pertsona. Industrian okupatuta daudenak zerbitzuetan daudenak baino zazpi aldiz gutxiago dira (16.900 pertsona, guztien % 12,3), eta eraikuntzan dihardutenak, 7.100 pertsona (% 5,2). Lehen sektorean ari direnen kopurua, aldiz, ia ezereza da (% 0,1).

Portzentajeei dagokienez, zerbitzuen sektorea da ekitaldi honetan okupazio handiena galdu duena: -% 5,5 (guztira, 6.600 pertsona gutxiagok daukate lan bat). Eraikuntzan nabaritu da ondoren urtetik urterako beherakada handiena, % 4,1ekoa (300 okupatu gutxiago daude arlo horretan). Eta industrian, berriz, 2012an zegoen okupatu kopuru bera egon da 2013an ere.

Emakumeen enplegu-tasa gizonena baino gehiago jaitsi da

16 urte edo gehiagoko biztanleria okupatua eta enplegu-tasa

	2012	2013	% 2013/12
Biztanleria aktiboa (milakoetan)	**145,2**	**137,8**	**-5,1**
Emakumeak	73,7	68,2	-7,5
Gizonak	71,4	69,6	-2,6
Nekazaritza	0,8	0,1	-87,5
Industria	16,9	16,9	0,0
Eraikuntza	7,4	7,1	-4,1
Zerbitzuak	120,2	113,6	-5,5
Enplegu-tasa (%)	**48,06**	**47,12**	**-0,9***
Emakumeak	44,83	43,29	-1,5*
Gizonak	51,91	51,58	-0,3*

* Aldea portzentajezko puntutan.
Iturria: EIN

Langabezia

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, Bilbon 30.400 pertsona egon dira langabezian 2013. urtean. Lanik gabeko emakumezkoen (14.400) eta gizonezkoen (16.000) datuak aurreko urtean baino berdinduago egon dira. 2012ko urteko batez bestekoarekin alderatuta, langabezia % 2,7 igo da 2013an (800 langabetu gehiago). Aldi berean, urtetik urterako igoera hein batean moteldu da 2013an aurreko urtearen aldean, 2012 horretan % 20tik gorakoa izan baitzen.

Langabezia-tasa % 18ra heldu da 2013an

Langabeziaren gorakada nabarmenagoa izan da emakumeen artean, % 14,5 igo baita, nahiz eta euren langabezia-tasa orokorrak gizonenaren azpitik jarraitzen duen. Hori, kontuan hartuta gizonezko langabetuen kopurua % 6 jaitsi dela 2013. urtean.

Bilboko udalerriko langabezia-tasa EAEn (% 16,6) baino goraxeago dago, baina, era berean, estatuko batez bestekotik beherago, epe berean azken datu hori % 26ra iritsi baita.

Langabezia-tasaren bilakaera



Iturria: EIN.

16 urte edo gehiagoko biztanleria langabetua eta langabezia-tasa

	2012	2013	% 2013/12
Biztanleria langabetua (milakoetan)	**29,6**	**30,4**	**2,7**
Emakumeak	12,6	14,4	14,5
Gizonak	17,1	16,0	-6,0
Langabezia-tasa (%)	**16,95**	**18,07**	**1,1***
Emakumeak	14,55	17,40	2,9*
Gizonak	19,31	18,75	-0,6*

* Aldea portzentajezko puntutan
Iturria: EIN.

Afiliatutako biztanleak

Afiliazioa, erregimenaren arabera

Gizarte Segurantzako afiliazioak lan-merkatuaren egoera zailaren isla dira. 2013. urte bukaeran, Bilboko enpresen arabera, 163.854 pertsona zegoen afiliatuta kotizazio erregimen batzuetan eta besteetan; urtetik urterako datuetan, % 2,1 gutxiago (aldakuntza horrek 3.508 afiliatu gutxiago dagoela esan nahi du). Datu positiboa 2013an erregistro kopuruen jaitsiera zertxobait gelditu dela da, 2012an galdutakoen datuarekin konparatuta (-% 2,5).

Krisi ekonomikoaren eraginez, afiliazio-bolumena 18.000 pertsonatan baino gehiagotan murriztu da, gutxi gorabehera -metatutako zifratan-. Datu hori inoiz lortutako daturik altuenarekin konparatu da; 2007koarekin, alegia (urte horretan 181.994 afiliatu erregistratu zen).

Afiliatuen kopurua gutxixeago jaitsi da 2013an

Afiliatuen datuak kotizazio-erregimenaren arabera aztertuz gero, zera ondoriozta dezakegu: hamarretik zortzi Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrari lotuta daudela (abenduan, 134.788 lagun; guztirakoaren % 82,3). Bigaren kotizazio-talde kopurutsuena autonomoak dira: 22.155 pertsona (% 13,5). Guztirakoaren % 3,8 Etxeko Langileen Erregimen Bereziari atxikita daude (6.208 pertsona), eta askoz gutxiago, % 0,3 besterik ez, Itsasoko langileen eta Nekazaritzakoen erregimen bereziei (bien artean, 703 lagun dira).

2012rekin alderatuta, erregimen orokorrean nabarmen jaitsi da afiliatuen kopurua: 3.149 pertsona gutxiago (-% 2,3). Langile Autonomoen Erregimen Bereziak 138 pertsona galdu ditu (-% 0,6), eta Nekazaritzako Langileen Erregimenak ere 56 pertsona gutxiago ditu bere erregistroetan (-% 25,5).

Erregimen Orokorraren afiliazio datuak Autonomoenaren datuak baino bilakaera txarragoa izan du

Biztanleria afiliatuaren bilakaera



Abenduko datuak.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Afiliazioa, sektorearen eta jarduera-arloaren arabera

Sektoreei dagokienez, 2013. urte bukaeran enpresek guztira sortutako lanpostuen % 89 zerbitzuetan bildu da (145.714 pertsona). Beraz, sektore honetako afiliazioaren urtebeteko bilakaera negatiboa izan da berriz ere, 2.119 afiliatu galduta (zifra erlatiboetan, -% 1,4).

Eraikuntzaren alorrean, enplegua izugarri jaitsi da (-% 10,3)

Afiliazio datuen pisu erlatiboa ia bera izan da Industria eta energiaren eta Eraikuntzaren sektoreetan: lehenengoaren kasuan,% 5,6 (9.240 pertsona) eta bigarrenarenean, % 5,2 (8.584 pertsona). Azken horretan jo du gogorren langabeziak, hain zuzen ere, industrian % 3,6 lanpostu gutxiago egon bada, eraikuntzan % 10,3 jaitsi baita langabezia-tasa azken urtean.

Jarduera-arloen datuetan ageri denez, Hiribilduan merkataritza-jarduerek indar handia daukate eta afiliatu kopuru handiena enplegatzen dute: 21.861 pertsona, guztirakoaren % 12,7). Aipatzeko moduko afiliazio-datuak dituzten beste jarduera batzuk hauek dira: jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak (% 10), hezkuntza (% 9,7), osasun-arloa (% 7,2), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (% 6,8) eta administrazio publikoa (% 6,4).

Merkataritza-jardueretan biltzen dira afiliazio gehienak

2013an, manufaktura industriako enpresetan 328 afiliatu gutxiago egon dira (-% 5,4). Energia-hornidura zerbitzuetan lan egiten dutenen kopuruak, aldiz, gora egin du % 2,6, eta ur-hornidura eta hondakinen kudeaketa jardueretan ari direnena -% 2,5 jaitsi da.

Eraikuntzaren arloari dagokionez, bilakaera okerxeagoa izan dute zentzu hertsian eraikuntzaren arlokoak diren jarduerek[1] (-% 11, 372 afiliatu gutxiago) sektoreko jarduera osagarriek baino: iturgintza-instalazioetan eta elektrizitateari edo akaberari lotutako lanetan afiliatutakoak, besteak beste, % 10 gutxiago izan dira urte amaieran.

Zerbitzuen sektorean afiliazioa nolakoa izan den azaltzeko, 2013an Gizarte zerbitzuak (% 3,2; 244 afiliatu gehiago) igo egin direla azpimarratu behar da, eta horiek ez ezik, baita Higiezinen jarduerak (% 2,9), Osasungintza (% 2; 233 afiliatu gehiago) eta Hezkuntza ere (% 1,7; 272 erregistro gehiago),

Zerbitzuen eremuan, ordea, afiliazioa jaitsi egin da, gehienbat Finantza eta Aseguru jardueretan, Jolas eta kultura jardueretan, Informazio eta komunikazioei buruzkoetan eta Garraio eta biltegiratze arloan.

Merkataritzak ere 615 afiliatu galdu ditu; hain zuzen ere, horixe da zenbaki absolututan urtetik urterako bilakaerarik txarrena izan duen jarduera-arloa.

Euskadiko gainerako hiriburuetan, biztanle afiliatuen kopurua Bilbon baino gutxiago jaitsi da: Gasteizen, -% 1,6, eta Donostian, -% 0,7.

Afiliatuen kopurua gehien igo den arloen artean, gizarte zerbitzuak, higiezinen jarduerak, osasun-arloa eta hezkuntza nabarmendu daitezke

(1) Eraikinen eraikuntza eta ingeniaritza zibila.

Biztanleria afiliatua, kotizazio-erregimenen eta jarduera-sektoreen arabera

	2012	2013	% 2013/12
Afiliatutako biztanleak	**167.362**	**163.854**	**-2,1**
Erregimen orokorra	137.937	134.788	-2,3
Autonomoak	22.293	22.155	-0,6
Etxeko langileak	6.131	6.208	1,3
Nekazaritzako langileak	220	164	-25,5
Itsasoko langileak	781	539	-31,0
Lehen sektorea	374	316	-15,5
Industria eta Energia	9.581	9.240	-3,6
Eraikuntza	9.574	8.584	-10,3
Zerbitzuak	147.833	145.714	-1,4

Abenduko datuak.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Afiliazioa, jarduera-arloen arabera

	2012	2013	% 2013/12
Afiliatutako biztanleak	**167.362**	**163.854**	**-2,1**
Lehen sektorea	**374**	**316**	**-15,5**
Industria eta Energia	**9.581**	**9.240**	**-3,6**
Industria	6.020	5.692	-5,4
Energia	1.483	1.521	-2,6
Hondakinak eta ura	2.078	2.027	-2,5
Eraikuntza	**9.574**	**8.584**	**-10,3**
Eraikuntzari lotutakoak	3.385	3.013	-11,0
Zerbitzuak	6.189	5.571	-10,
Zerbitzuak	**147.833**	**145.714**	**-1,4**
Merkataritza	21.476	20.861	-2,9
Administrazio-zerb. eta osagarriak	16.461	16.472	0,1
Hezkuntza	15.669	15.941	1,7
Zerb. profesional, zientifiko eta teknikoak	11.342	11.152	-1,7
Administrazio publikoa	10.577	10.409	-1,6
Osasun-arloa	11.589	11.822	2,0
Gizarte zerbitzuak	7.549	7.793	3,2
Finantza-zerb. eta aseguruak	9.046	8.471	-6,4
Garraioa eta biltegiratzea	9.331	8.817	-5,5
Ostalaritza	8.553	8.575	0,3
Informazioa eta komunikazioak	7.158	6.749	-5,7
Etxeko langileak	6.784	6.848	0,9
Jolas eta kultura jarduerak	3.175	2.991	-5,8
Ostatu zerb.	1.206	1.158	-4,0
Higiezinak	1.166	1.200	2,9
Beste zerbitzu batzuk	6.751	6.455	-4,4

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Biztanleria afiliatua. Hiriburuak

	2012	2013	% 2013/12
Bilbo	167.362	163.854	-2,1
Vitoria-Gasteiz	137.937	134.788	-2,3
Donostia-San Sebastián	22.293	22.155	-0,6

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Erregistratutako kontratuak

2013. urtean, Bilboko biztanleek 102.639 lan-kontratu sinatu dituzte guztira, aurreko urtean baino 11.033 gutxiago (-% 9,7).

Sexuen arabera, egindako kontratu guztien % 52,3 emakumeei egin zaizkie, nahiz eta urtetik urterako konparaketan eurak izan diren kontratuen beherakada gehien jasan dutenak: -% 14,5, eta gizonek, -% 3,7.

Errotazio tasa 3,12 kontratukoa da pertsonako; 3,26 emakumeen kasuan eta 2,97 gizonen kasuan.

Bilbon bizilekua dutenei egindako kontratuen kopurua jaitsi egin da

Adina kontuan hartzen badugu, Bilboko biztanleei egindako kontratu guztien herena baino gehiago 25 eta 34 urte bitarteko gazteei egin zaie (37.304); hau da, % 36ri. Erregistratutako kontratu kopuru handiena duen adin-tartea, horien ondoren, 35 eta 44 urte bitartekoena da (% 25; datu absolututan, 25.770).

2012. urteko datuekin alderatuta, kontuan hartutako adin-tarte guztietan egin dira kontratu gutxiago; jaitsiera handiena gazteenen artean gertatu da (-% 16, 16 urtetik 24ra dituztenen artean).

Guztirako kontratuen % 12,6 atzerriko herrialdeetako pertsonei egin zaie. Azken urtean, % 21 jaitsi da atzerritarrei egindako kontratuen kopurua; hau da, batez besteko beherakada baino dezente gehiago (-% 9,7).

2013ko ekitaldian egindako kontratuetan, behin-behineko enplegua izan da nagusi (guztirako kontratuen % 92 aldi baterako egin dira); izan ere, mota horretako kontratuen jaitsiera finkoena baino leunagoa izan da (-% 6,3, eta besteetan, -% 36,3). Modalitate egonkorrago hori, beraz, % 11,5ekoa izan da 2012an, eta % 8koa 2013an.

2013an egindako hamar kontratutik bederatzi zerbitzuen sektorean izenpetu dira; hala ere, alor horretan ere, urtetik urterako beherakada aipatzeko modukoa izan da, % 10,5ekoa (10.800 erregistro gutxiago). Zerbitzuen ildo beretik murriztu dira kontratuen kopuruak beste jarduera-arlo hauetan: eraikuntzan, -% 4, eta industria-jarduerei lotutakoetan, -% 3. Bi sektore horietako bakoitzean 5.000 kontratu inguru egin dira 2013. urtean. Kontratazio kopurua handitu duen jarduera-arlo bakarra lehen sektorea izan da (% 20,7).

Guztirako kontratuen herena baino gehixeago 25 eta 34 urte bitartekoek sinatu dituzte

Erregistratutako kontratuak

	2012	2013	% 2013/12
Erregistratutako kontratuak (kop.)	**113.672**	**102.639**	**-9,7**
Emakumeak	62.837	53.703	-14,5
Gizonak	50.835	48.936	-3,7
16-24 urte bitartekoak	21.236	17.764	-16,3
25-34 urte bitartekoak	40.661	37.304	-8,3
35-44 urte bitartekoak	27.628	25.770	-6,7
45 urte edo gehiago	24.147	21.801	-9,7
Finkoak eta finko bihurtutakoak	13.084	8.338	-36,3
Aldi baterakoak	100.588	94.301	-6,3
Lehen sektorea	648	782	20,7
Industria	5.102	4.942	-3,1
Eraikuntza	5.339	5.132	-3,9
Zerbitzuak	102.583	91.783	-10,5

Iturria: SEPE.

Erregistratutako langabezia

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak dioenaren arabera, 2013. urte amaieran 30.987 pertsona zegoen lanik gabe, 15.670 emakume (guztirakoaren % 50,6) eta 15.317 gizon (% 49,4). Aurreko urtean gertatu zenaren kontra, langabezia-tasak bilakaera kaltegarriagoa izan du emakumeen artean, urtebetean % 1,0 handitu baita horien kopurua. Gizonen langabeziak behera egin du, ia oharkabeki, ehunekotan maila berean mantendu den arren.

2013an, 146 langabetu gehiagorekin amaitu da urtea hiribilduan

2013. urte bukaeran 146 langabetu gehiago zenbatu dira Bilbon. Horrek esan nahi du datuak neurrizko gorakada izan duela urtetik urtera, eta gainera, 2013koa krisia hasi zenetik izan duen gorakadarik txikiena izan da. Hain justu ere, 2011tik 2012ra, langabezia-tasa 3.500 pertsonatan igo zen.

Erregistratutako langabetu gehienak 35 eta 44 urte bitartekoak dira (8.449 pertsona, % 27), eta horien ondoren, 45 eta 54 urte bitartekoak (7.890; % 25) eta 25 eta 34 urte bitartekoak (6.729; % 22).

Urtetik urterako aldakuntzei begira, langabezian izena eman dutenen artean gehienak nagusienen adin-tarteetan daude: % 4,0 45 eta 54 urte bitartekoentzat eta % 10,1 55 urte edo gehiago dituztenentzat.

Erregistratutako langabetuen datuen bilakaera



Abenduko datuak.
Iturria: SEPE.

Langabetuen zerrendan izena emanda daudenen % 65,5etik gora zerbitzuen sektorean aritutakoak dira (20.285 pertsona). Geratzen den herena hiru multzo parekotan banatzen da: eraikuntzan lan egiten zutenak, 3.819 pertsona; industrian zihardutenak, 2.919; eta aurretik lanik egin ez dutenak, 3.408.

Langabezia kasuak 45 urtetik gorakoen artean baino ez dira areagotu

2013. urtean, langabeziak datu hobeak eman ditu industrian eta lehen sektorean -% 25 eta % 6 jaitsi da, hurrenez hurren-, bai eta aurretik lanik izan ez dutenen artean ere (-% 1,1). Alderantziz, eraikuntzaren alorrean gora eta gora baino ez du egin, eta langabetuak % 27 baino gehiago igo dira. Zerbitzuetan gutxiago igo da datua, % 1,8.

Azken urtean, 2013an, langabeziak gogorrago jo ditu lanbide ikasketa eginak zituztenak (% 4,9 igo da horien artean), unibertsitate ikasketak (% 1) edo batxilergoa (% 0,6) egina zutenak baino. Ildo beretik, ikasketarik ez zutenen artean ere % 0,7 jaitsi da langabetuen kopurua.

Bestalde, krisiak denboran aurrera egin ahala, gero eta gehiago dira lanik gabe 2 urtetik gora daramatzatenak (2.243 pertsona gehiago, % 25,6); hau da, izena emanda dauden guztien % 35,5. Langabezian urtebete baino gutxiago egin dutenen kopurua, aldiz, % 12 jaitsi da.

Gainerako euskal hiriburuei dagokienez, langabeziaren datua igo egin da urtetik urtera Gasteizen (% 1) eta jaitsi egin da Donostian (-% 0,8).

Erregistratutako biztanle langabetuak

	2012	2013	% 2013/12
Erregistratutako biztanle langabetuak	**30.841**	**30.987**	**0,5**
Emakumeak	15.510	15.670	1,0
Gizonak	15.323	15.317	0,0
16-24 urte bitartekoak	2.374	2.006	-15,5
25-34 urte bitartekoak	7.261	6.729	-7,3
35-44 urte bitartekoak	8.247	8.449	-45,5
45-54 urte bitartekoak	7.588	7.890	4,0
55 urte edo gehiago	5.371	5.913	10,1
Lehen sektorea	590	556	-5,8
Industria	3.871	2.919	-24,6
Eraikuntza	3.008	3.819	27,0
Zerbitzuak	19.926	20.285	1,8
Aurretik ere lanik gabea	3.446	3.408	-1,1
Derrigorrezko ikasketak eginda	18.849	18.721	-0,7
Batxilergoa	3.495	3.516	0,6
Lanbide Heziketako ikasketak	4.308	4.518	4,9
Unibertsitate ikasketak	4.189	4.232	1,0
< 6 hilabete	10.680	9.383	-12,1
6 hilabetetik urtebetera	5.090	4.460	-12,4
Urtebetetik 2 urtera	6.302	6.132	-2,7
2 urte baino gehiago	8.769	11.012	25,6

Iturria: SEPE. Abenduko datuak.

Erregistratutako biztanle langabetuak. Hiriburuak

	2012	2013	% 2013/12
Bilbo	30.841	30.987	0,5
Vitoria-Gasteiz	20.793	20.991	1,0
Donostia-San Sebastián	11.283	11.193	-0.8

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Merkataritza

Merkataritza 4

- Merkataritza jarduerak eta enpresak
- Merkataritza jardueraren dinamikotasuna
- Soldatapeko enplegua
- Familien kontsumoa
- Sektorearen salmentak

2013 Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

BilbaoObservatorio

Merkataritza jarduerak eta enpresak

Bilbon 8.753 lizentzia aktibo biltzen dituzte Merkataritza sektoreko jarduerek, eta era horretakoa da udalerriko lau lizentzietatik bat ia (% 24). Hala bihurtzen da sektorea hiri osoko enpresa ehunaren garrantzi handienekoa.

Azpisektoreei begira, merkataritza jarduera guztien % 78,2 da lotua txikizkako/xehekako merkataritzari (6.848 lizentzia guztira), eta beste % 21,8 berriz, handizkako merkataritzari.

2013an merkataritza jardueren kopuru osoak % 1,4ko hazkuntza ezagutu zuen, eta denera 121 jardun lizentzia gehiago. Zabaltze hau berdin sortu zen txikizkako merkataritzan (% 1,4 eta 96 lizentzia gehiago), zein handizkako merkataritzan (% 1,3, eta 25 lizentzia gehiago).

Elikadura, edari eta tabakoarekin zerikusia duten saltokiak dira jarduera lizentzia gehien biltzen dutenak

Txikizkako merkataritzan nabarmentzekoak dira beren kopuruarengatik, batez ere, elikadura, edari eta tabakoarekin zerikusia dutenak (2.092 saltoki), oihal eta oinetakoetakoak (1.324), eta etxeko hornikuntza eta eraikuntzarekin zerikusia dutenak (979). Elikadurarekin-eta zerikusia duten saltokiek ugaritzen jarraitu dute aurreko aldian legez, eta 42 lizentzia gehiago bildu dituzte. Aldiz oihal eta oinetakoetakoak eta etxe tresneriakoak gutxitu egin dira 2013an, 35 eta 4 lizentzia gutxiagoz hurrenez hurren.

Beste bariazio esanguratsu batzuk aipatzeko, ohartzekoa da edergintza, drogeria eta farmaziako jarduerek erakusten duten hazkundea (% 4,7, eta 22 lizentzia gehiago), saltokiz kanpoko merkataritza sektoreak edota liburu denda eta kioskoetakoak ezagutu dutena, 8 eta 7 lizentzia berriz hurrenez hurren. Alderantziz, medikuntza eta ortopedia tresneria komertzializatzen duten saltokiek batetik, eta bestetik, saltoki handiek eta bazarrek, eta etxe tresneriakoek, galdu egin dituzte 9, 6 eta 4 negozio hurrenez hurren.

Soldatapeko beharginak dituzten merkataritza enpresak % 2,8 gutxiago dira

Handizkako merkataritzari dagokionean, industria arteko merkataritza da lizentzia kopururik handiena biltzen duen sektorea (439), eta ondoretik datozkio nekazaritza lehengaietakoa (328), eta merkataritza bitartekariena (314). Hain zuzen, azken bi hauek dira hazkunde handiena erakutsi dutenak: 21 lizentzia berri nekazaritza lehengaietako merkataritzaren

Merkataritza jarduerak

	2012	2013	Aktiboen saldoa	% 2013/12
Txikizkako merkataritza	**8.632**	**8.753**	**121**	**1,4**
Elikadura, edariak, tabakoa	**6.752**	**6.848**	**96**	**1,4**
Oihal eta oinetakoak	2.049	2.092	43	2,1
Farmazia, edergintza eta drogeria prod.	1.359	1.324	-35	-2,6
Etxe tresneria eta eraikuntza	468	490	22	4,7
Saltoki handiak, bazarrak	983	979	-4	-0,4
Altzariak, bulegoen hornikuntza	214	208	-6	-2,8
Liburuak, egunkariak	183	182	-1	-0,5
Bitxiteria	366	373	7	1,9
Jostailuak, kirol gaiak	184	183	-1	-0,5
Medikuntza tresneria, ortopedia	129	126	-3	-2,3
Loradenda eta antzeko	135	126	-9	-6,7
Saltokiz kanpoko salmenta	84	86	2	2,4
Bestelakoak	226	234	8	3,5
Handizkako merkataritza	372	445	73	19,6
Nekazaritza lehengaiak	**1.880**	**1.905**	**25**	**1,3**
Oihalak, jantzigintza, etab.	307	328	21	6,8
Farmazia eta etxerako produktuak	116	117	1	0,9
Epe luzeko kontsumo ondasunak	102	109	7	6,9
Industria arteko merkataritza	297	288	-9	-3,0
Bestelako handizkako merkataritza	450	439	-11	-2,4
Ekoizkinen berreskuratzea	246	243	-3	-1,2
Merkataritza bitartekariak	63	67	4	6,3
Intermediarios de comercio	299	314	15	5,0

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

kasuan, eta 15 lizentzia gehiago merkataritza bitartekarienean ere. Aldiz, industria arteko merkataritza sektoreak 11 lizentzia galdu ditu 2013an.

Edozelan, jarduera lizentzien kasuan ez bezala, % 2,8 jaitsi da Gizarte Segurantzan erregistraturiko enpresa kopurua, denera 2.915 enpresa izanik (85 enpresa gutxiago). Eta merkataritza enpresen ehunaren ahultze hau berdin gertatu da txikizkako merkataritzaren jardueran, zein handizkakoan. 2013ko amaieran, soldatapeko beharginak zituzten txikizkako enpresen kopurua 1.951koa izan zen, 30 gutxiago aurreko urtean baino (% -1,5). Handizkako merkataritza enpresen kopurua berriz, 739koa izan zen, % 6,5eko galera eta 51 enpresa gutxiagoz.

Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketaren azpisektoreko enpresei dagokienean, 225 izan ziren guztira, 4 gutxiago aurreko urtean baino (% -1,7).

Bestalde, 2013. urtea amaitzean, Bilboko hirian merkataritza sektorean autonomo gisa enplegatzen ziren pertsonen kopurua, 6.246koa zen. Urtean zehar hala ere, kopuru honek 77 enplegatu galdu zituen (% -1,2). Hala, txikizkako azpisektoreak, zein handizkakoak erakusten dute joera negatiboa. Txikizkako banaketan, enplegatu autonomoen kopuruak 57 enplegatu gutxiago izan zituen (% -1,3), eta handizkako merkataritzak 5 enplegatu galdu zituen bertan jarduten zutenen artean (% -0,3). Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa jarduerak berriz, % -3,2ko jaitsiera ezagutu zuen (15 enplegatu autonomo gutxiago).

Soldatapeko behargindun enpresak

	2012	2013	% 2013/12
Soldatapeko behargindun enpresak	**3.000**	**2.915**	**-2,8**
Txikizkako merkataritza	1.981	1.951	-1,5
Handizkako merkataritza	790	739	-6,5
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	229	225	-1,7

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Autonomoen Erregimen Berezian erregistraturiko enplegatuak. Merkataritza

	2012	2013	% 2013/12
Autonomoen E.Berezian erregistraturikoak	**6.323**	**6.246**	**-1,2**
Txikizkako merkataritza	4.244	4.187	-1,3
Handizkako merkataritza	1.610	1.605	-0,3
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	469	454	-3,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Merkataritza jardueraren dinamikotasuna

2013. urtean zehar, guztira 1.063 izen emate daude erregistratuak txikizkako merkataritzan, eta datuak % 12,6ko irabazia erakusten du 2012. urtekoaren aldean. Handizkako merkataritzaren jardueretan berriz, erregistratuen kopurua 214koa izan zen, aurreko urtean baino % 7,5 gehiago.

119 lizentzia gehiago 2013an txikizkako merkataritzan; eta 15 gehiago, handizkakoan

Azpisektoreka ohartu liteke elikadura, edari eta tabako saltzaileen sektoreak biltzen duela aktiboan erregistraturiko saltokien herenetik gora (387), eta hauen hazkundea % 11,2ko izan dela. Ondotik datozkio nabarmenen, oihal eta oinetako saltokiak (170), etxe tresneria eta eraikuntzako sektorea (117 erregistratu), eta saltokiz kanpoko merkataritza (91 erregistroz).

Portzentajeetan, 2013. urtean barrena nabarmentzekoa da loradenda eta antzeko saltokien lizentzien gorakadak, hala zelan saltokiz kanpo gauzatutako merkataritzarena, eta liburu, egunkari eta abarren salmenta puntuena. Alderantziz, beheraka egin zuen txikizkako merkataritzaren beste zenbait jardueretako saldoak. Esateko: ortopedia eta medikuntza tresneria saltokiek, edota bazarrak eta saltoki handiek.

Merkataritza jardueretan erregistratuak eta saldo garbia

	2012	2013	% 2013/12
Txikizkako merkataritza jardueretako erregistroak	944	**1.063**	**12,6**
Elikadura, edariak, tabakoa	348	387	11,2
Oihal eta oinetakoak	175	170	-2,9
Farmazia, edergintza eta drogeria prod.	64	59	-7,8
Etxe tresneria eta eraikuntza	102	117	14,7
Saltoki handiak, bazarrak	50	40	-20,0
Altzariak, bulegoen hornikuntza	11	14	27,3
Liburuak, egunkariak…	29	44	51,7
Bitxiteria	24	29	20,8
Jostailuak, kirol gaiak	13	14	7,7
Medikuntza tresneria, ortopedia	12	5	-58,3
Loradenda eta antzeko	9	20	122,2
Saltokiz kanpoko salmenta	50	91	82,0
Gainerakoa	57	73	28,1
Handizkako merkataritza jardueretako erregistroak (kop.)	**199**	**214**	**7,5**
Handizkako merkataritza	151	171	13,2
Nekazaritzako lehengaiak	35	45	28,6
Oihalak, jantzigintza, etab.	17	15	-11,8
Farmazia produktuak eta etxerakoak	9	18	100,0
Epe luzeko kontsumo ondasunak	30	20	-33,3
Industria arteko merkataritza	25	33	32,0
Bestelako handizkako merkataritza	35	40	14,3
Ekoizkinen berreskuratzea	13	11	-15,4
Merkataritza bitartekariak	35	32	-8,6

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomia jardueren gaineko zerga.

Soldatapeko enplegua

Merkataritza sektorea da Bilbon pertsona gehien enplegatzen duena. 2013ko amaieran Gizarte Segurantzan izena emaniko pertsonen kopurua merkataritza enpresetan, 20.861ekoa izan zen udalerriaren esparruan. Eta kopuru hau da hiri osoko enpleguaren % 13, azken urteetan ere izan ohi den neurri berean.

Azken urteetan merkataritzak jasan duen kontrako egoera ekonomikoa islatu da ere beharginen esparrura, eta guztira soldatapeko 615 behargin gutxiago izan dira (% -3,0), nahiz galera hau aurreko urtean izandakoa baino txikiagoa izan den.

Txikizkako merkataritza sektoreak biltzen du enpleguaren % 67,6 (14.105 pertsona); handizkakoak berriz, % 25,6 (5.347 pertsona); eta gainerako % 6,8a, ibilgailu motordunen salmenta eta konponketak (1.409 pertsona). 2013. urtean zehar, merkataritzaren azpisektore guztiek galdu zuten enplegua. Txikizkako azpisektoreak 267 pertsona galdu zituen; handizkakoak 257; eta motordun ibilgailuen salmenta eta konponketakoak 91.

Ehunekoetan, atzerapenik handiena ibilgailu motordunen salmenta eta konponketaren azpisektorean gertatu da (% -6,1), eta ondoren handizkako merkataritza sektorean (% -4,6); azkenik txikizkako merkataritzan ere (% -1,9).

Enpleguen murriztea ez da berdin gertatu kotizazio erregimen bietan. Bietan, Orokorrean zein Autonomoenean jaitsi bada ere, galera hainbat handiagoa izan da Orokorrean, Autonomoenean baino (% -3,6 eta % -1,2 hurrenez hurren), eta datu horiek esan gura dute 539 eta 77 enplegu gutxiago batean eta bestean.

Enplegu galeraren % 87,6 gertatu da soldatapeko enpleguan. Eta emaitzak garbi erakutsiko luke enplegu autonomoaren egokitzeko gaitasun handiagoa egoera ekonomiko aldrebesaren aurrean.

Pertsona enplegatuak

	2012	2013	% 2013/12
Pertsona enplegatuak	**21.476**	**20.861**	**-2,9**
Txikizkako merkataritza	14.372	14.105	-1,9
Handizkako merkataritza	5.604	5.347	-4,6
ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.500	1.409	-6,1
Soldatapeko beharginak	15.153	14.614	-3,6
Behargin autonomoak	6.323	6.246	-1,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Familietako kontsumoa

2013an familien kontsumoa hainbat nabarmenago erori zen (% -3,2) aurreko ekitaldietan baino. Eskaeraren geldotzea zuzenean islatzen da merkataritza sektorera, eta txikizkako merkataritzaren salmentak Bizkaian % 1,4 egin zuen behera, nahiz eta bere okerrean, jaitsiera hau ez den izan aurreko 2012. urtean izanikoa bezain nabarmena (% -3,6).

Bizkaiko familietako kontsumoaren zati garrantzizko batek ditu jomuga merkataritza saltokiak (% 26k gutxieneko). Kontsumo gastuaren gainerakoa banatzen da: % 14 elikagai eta edari ez alkoholdunetan; % 5,4 arropa eta oinetakoetan; % 4,6 etxeko tresnerietan; eta % 1,8 alkoholdun edari eta tabakoetan.

Etxebizitzak eraginiko gastua da garrantzikoena guztien artetik. Berau bakarrik da guztiaren %35; eta 1,2 puntu altuagoa da gainera, aurreko urtean baino. Ostalaritzara zuzentzen da gastuaren % 9,6; garraiora % 8,4; eta aisialdi eta kulturarako gordetzen da % 5,3.

Kontsumo adierazleak

	% 2012/2011	% 2013/2012
Familietako kontsumoa	-1,5	-3,2
Txikizkako merkataritzaren salmenta indizea	-3,6	-1,4
Kontsumo prezioak	2,4	1,6

Bizkaiko datuak.
Iturria: Eustat. Familia-kontsumoko gastuaren bilakaera

Familietko kontsumo gastuaren egitura

	2012	2013
Orokorra	**100,0**	**100,0**
Elikagaiak eta edari ez alkoholdunak	13,0	14,0
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,9	1,8
Jantzi eta oinetakoak	5,0	5,4
Etxebizitza	34,5	35,7
Etxeko tresneria	4,9	4,6
Medikuntza	2,7	2,9
Garraioa	9,8	8,4
Komunikazioak	2,8	2,8
Aisialdia eta kultura	5,8	5,3
Irakaskuntza	1,4	1,5
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	10,2	9,6
Bestelako ondasun eta zerbitzuak	7,9	8,0

Bizkaiko datuak. KPIren kopuruak %etan
Iturria: Eustat. Familia-kontsumoko gastuaren bilakaera

Sektorearen salmentak

Merkataritzaren sektoreko salmentak neurtzen dituen adierazleak, batera biltzen ditu txikizkako eta handizkako merkatari-tzarenak, zelan ibilgailu motordunen salmenta eta konponketarenak; eta Bizkai osoko merkataritza hartzen du osotasunean.

Txikizkako salmenten murrizte orokorra, aurreko urtean baino neurri txikiagokoa izan arren

2013. urtean merkataritza sektorearen salmenta indizea % 2,8 jaitsi zen, nahiz eta emaitza hau modu baikorragoan ere baloratu litekeen, kontuan harturik, jaitsiera txikiagoa dela aurreko urtekoa baino (% -3,3). Bilakaera okerragoa izan zuen handizkako merkataritzaren jarduerak (% -4,7), txikizkakoak baino (% -1,3).

Txikizkako merkataritzaren jardueraren azterketan ohartu liteke salmenten antzeko beheraldia gertatzen dela elikaduraz besteko produktuetan (% -1,6), eta elikadurazkoetan (% -1,4). Saltoki handietako salmentak berriz, ez du ia aldaketarik jasan 2013an: elikaduraz besteko produktuetan ia puntu osoa galdu duen arren (% -0,9), elikadura produktuen salmentak % 1,8 hazi ditu.

Bizkaiko merkataritza sektorean enplegaturiko herritarren indize erlatiboa, joera negatiboan mantentzen da, eta % -2,4koa du urte arteko bariazioa.

Ibilgailuen matrikulazioa Bizkaian %7,9 hazi zen 2012. urtekoaren aldean, eta emaitza nahikoa baikorra gertatzen da, kontuan harturik aurreko urte arteko bariazioa % -14,3ko negatiboa izan zela.

Hazkunde hau ibilgailu partikularren matrikulazioen bilakaera positiboak eragin du, halakoak izanik ibilgailu guztien % 74, % 20,8ko hazkuntza erakutsi dutelako. Enpresetako eta bestelako ibilgailuen matrikulazioak ostera, behera egin du % 17an ere.

Merkataritza sektorearen salmentak

	2012	2013	% 2013/2012
Salmenta indizea	**95,1**	**92,4**	**-2,8**
Txikizkako merkataritza	**95,5**	**94,3**	**-1,3**
Elikadura	98,0	96,6	-1,4
Gainerako guztiak	92,6	91,1	-1,6
Saltoki handiak	**95,6**	**95,5**	**-0,1**
Elikadura	100,9	102,7	1,8
Gainerako guztiak	93,2	92,4	-0,9
Handizkako merkataritza	**97,1**	**92,5**	**-4,7**

Fuente: Eustat.

Ibilgailuen matrikulazioa

	2012	2013	% 2013/2012
Partikularrak	8.448	10.206	20,8
Enpresa eta bestelakoak	4.381	3.635	-17,0
GUZTIRA	**12.829**	**13.841**	**7,9**

Fuente:Faconauto.

Turismoa

2013 Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

Turismoa 5

- Turismo jarduera
  - Turismo jarduera Bilbon
  - Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gauak.
  - Itsas bidai aldietako turismoa
- Biltzar eta bileretako turismoa



BilbaoObservatorio

Turismo jarduera

Turismo jarduera Bilbon

Eustat - Euskal Estatistika Erakundeak lantzen duen ETH - Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkestaren arabera, Bilbok 2013. urtean 72 hotel egoitza zituen: 23 hotel, 3 edo izar gehiagotakoak, eta beste 49 hotel eta ostatu, izar bat edo bikoak.

2013an hazi egin zen Bilboren hotel egoitzen eskaintza

Gure hiriak egunero eskaintzen ditu 3.941 gela, eta hauetan, 7.527 lo leku. Horietatik % 80 dira kategoria handieneko hoteletakoak (hiru eta gehiago izar). Batez beste, Bilboko hotel egoitzek 105 lo leku eskaini ohi dute bakoitzak, baina edozelan, batez besteko hau 258 lo leku izatera ere iristen da 3, 4 eta 5 izarretako hoteletan; aldiz 32 izango dituzte, batez beste, izar bat edo biko ostatuek.

Bilbok zertxobait hazi du bere hotel eskaintza 2012ko urtekoaren aldean, eta egoitza bat gehiago izan du kategoria apalagoko hotel eta ostatuen multzoan. Egunean eskaini ohi dituen plazak berriz, 124 hazi ditu tarte honetan (% 1,7ko hazkundea). Eta hala egin du hiru edo izar gehiagoko hoteletan, zelan bat edo bikoen artean ere. Logela kopuru osoa kontuan hartuta, 18 gehiago izan ditu 2013an, nahiz kategoria garaieneko hoteletan jaitsi egin den eskaintza.

Ostatu ematearekin loturiko jarduera ekonomikoei dagokienean -turismoarekin zuzenen uztartutakoei begira-, 2013ko urte amaieran eutsi egin zaio ostatatze lizentzia aktiboen kopuruari (99), aurreko urtean bezalaxe, egoera ekonomikoa gaitza jasan arren. Hauetatik, 36 izan dira hotel eta motelei zegozkien lizentzia aktiboak; 42, kategoria apalagoko ostatuak; eta beste 12, hainbat ostatu zerbitzu eskaintzen dituztenak.

Hotel egoitzen eskaintza

	2012	2013	% 2013/12
Establezimenduak denera	**71**	**72**	**1,4**
3, 4 eta 5 izarretako hotelak	23	23	0,0
Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatuak	48	49	2,1
Eguneko lo leku eskaintza, denera	**7.403**	**7.527**	**1,7**
3, 4 eta 5 izarretako hotelak	5.869	5.945	1,3
Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatuak	1.533	1.581	3,1
Eguneko logelak denera	**3.923**	**3.941**	**0,5**
3, 4 eta 5 izarretako hotelak	3.075	3.065	-0,3
Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatuak	848	876	3,3

Iturria: Eustat.

Ostatatze jarduerak (lizentziak)

	2012	2013	% bar. 2013/12
Ostatatze lizentziak denera	**99**	**99**	**0,0**
Hotelak eta motelak	34	36	5,9
Ostatuak	45	42	-6,7
Ostatu zerbitzuak	14	12	-14,3
Bestelakoak	6	9	50,0

Datuak laugarren hiruhilekoari dagozkio.
Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia (Ekonomia jardueren gaineko zerga).

Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gau kopuruak

Bidaiari sarrera

2013. urteko balantzeak datu negatiboak eskaintzen ditu Bilboko hotel egoitzen jarduera ekonomikoari dagokionean eta aurreko urteko datuen aldean. Izan ere, denera 729.715 bidaiari sarrera izan ditugu eta 1.371.169 gau igaro. Eta kopuru hauek, hurrenez hurren, % 1,3 eta % 4,7ko jauskerak erakusten dituzte urte artean.

Edozelan ere, 2013ko bidaiari kopurua askoz handiagoa da 2001. urtean genituenak baino. 12 urteko tarte eskasean, Bizkaiko hiriburuak bikoiztu egin du, urruti handirik gabe, orduko bidaiari kopurua, eta samur erakutsi du hazkunde gaitasun handia izan duela urteotan jomuga turistiko legez, eta are izan lezakeela oraindik ere.

Hotel egoitzetako jardueran jaitsierak ditugu bidaiari sarreretan, zein hauek igarotako gau kopuruan

Bidaiari sarreren bilakaera (*)



(*) Zuzendu egin dira 2011, 2012 eta 2013 urteei dagozkien datuak Eustatek bere Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkesta garatzeko ezarri dituen aldaketa metodologikoen ondorio, eta hauek izan duten eraginarengatik informazio bilketan, zein azken emaitzetan.
Iturria: Eustat.

Jatorria

2013. urtean barrena Bilboko hotel egoitzetan ostatu harturiko turista kopuru osotik, % 59,3 dira Espainiako estatutik datozen bisitariak, eta aurten aurreko urtean baino % 5,1 gutxiago izan dira, denera 432.749 bidaiari izan diren arren.

Bisitari kopuru handiena Espainiatik datorkigu

Hauen artean, nabarmentzeko dira Madrileko erkidegotik datozenak. Berauek dira ugarienak, eta Espainiako estatutiko sarrera guztien laurdena ere (% 26,1). Eta hainbat gehiago dira, EAEtik bertatik datozkigun bisitariak baino (% 18,2), Kataluniatik (% 14,1), Andaluziatik (% 9,4), Valentziako erkidegotik (% 4,8), edota Gaztela eta Leongotik (% 4,5).

Estatuz kanpoko bidaiariek aldiz, estatu barrukoek ez bezala, bilakaera positiboa erakutsi dute, eta aurreko urtean baino % 4,9 gehiago izan dira. Denera 296.966 bisitari (13.910 gehiago 2012an baino). Hauen artean berriz, eta jatorrizko lurraldeei dagokienean, Frantzia da askozaz nagusi (guztien % 20,8), Alemanitik datozkigunen aldean (% 10,1), Erresuma Batutik (% 10,0) edota Italiatik (% 8,3)

Bidaiari sarrerak, jatorriaren arabera

	2012	2013	% 2013/12
Bidaiari sarrerak	**739.172**	**729.715**	**-1,3**
Estatukoak	456.116	432.749	-5,1
Estatuz kanpokoak	283.056	296.966	4,9

Iturria: Eustat.

Bidaiarien ekoizle nagusiak (2013)

Espainiako estatua		Estatuz kanpokoak	
Madril	26,1	Frantzia	20,8
EAE	18,2	Alemania	10,1
Katalunia	14,1	Erresuma Batua	10,0
Andaluzia	9,4	Italia	8,3
Valentziako erkidegoa	4,8	Iberoamerika	7,8
Gaztela eta Leon	4,5	AEB-Kanada	7,4

Iturria: Eustat.

Igarotako gauak

2013. urtean barrena Bilboko hotel egoitzetan igarotako gau kopurua 1.371.169koa izan da, nahiz zifra altu honek % 4,7ko galera erakusten duen aurreko urteko kopuruaren aldean (67.201 gau gutxiago kopuru absolutuetan). Guztien artetik, 801.220 gau dira estatu barruko bidaiariek dagozkienak, eta 569.949, estatuz kanpokoenak. Hain zuzen, azken kopuru hau azpimarratu behar dugu, % 1,6ko igoera erakusten duelako, aldiz estatuko turisten kopuruak erakutsi duen % 8,7ko galeraren aldean.

Bidaiarien eta hauek igarotako gauen alderaketak, 1,88 eguneko egonaldia erakusten du bidaiari bakoitzak, batez beste, igaro zituen gauen kopuruan, eta kopuru hori % 3,6 gutxiago da aurreko urtekoan baino, noiz 1,95ekoa izan zen batez besteko egonaldia. Lo lekuen okupazio tasa ere jausi egin zen, eta % 49,9an geratu 2013koan.

Amaitzeko, eta hotel egoitzen kategoriei gagozkielarik, esan behar da 3, 4 eta 5 izarretako hotelek bildu zituztela 2013ko urtean barrena igarotako gau kopuru osoaren % 79,5. Edozelan, kontuan hartzekoa da, igarotako gauen jauskera ere, batik bat, kategoria honetako hoteletan antzematen dela bereziki (3 eta izar gehiagokoetan), batez besteko % 5,6ko jaitsieraz; aldiz, 1 eta 2 izarreko ostatuek ez dute % 0,7ko jaitsiera baino erakusten.

3 eta izar gehiagoko hotelek biltzen dituzte igarotako gauen 79,5%

Bestalde, eta 2013an galera izan arren, bai igarotako gau kopuruan, zein bidaiarien sarreretan, oraindik ere Bilbok bereganatzen ditu bisitariek igarotako gauen erdia EAEko hiru hiriburuen artean. Gasteizek ere ez ditu aldeko emaitzak izan 2013an, eta hurrenez hurren, urte arteko % 14,4 eta % 16,5eko galerak izan ditu, bidaiarien sarreretan, zein osotara igarotako gau kopuruan. Donostiak aldiz datu hobeak erakutsi ditzake eta hazkundea erqakusten du, bisitarien sarrera kopuruan (% 2,2), zein igarotako gau kopuruan ere (% 3,4).

Bidaiariek igarotako gau kopuruen bilakaera (*)



(*) Zuzendu egin dira 2011, 2012 eta 2013 urteei dagozkien datuak Eustatek bere Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkesta garatzeko ezarri dituen aldaketa metodologikoen ondorio, eta hauek izan duten eraginarengatik informazio bilketan, zein azken emaitzetan.
Iturria: Eustat.

Batez besteko egonaldia eta lo lekuen okupazio tasa

	2012	2013	Var % 2013/12
Batez besteko egonaldia	1,95	1,88	-3,6%
Okupazio tasa (%)	% 53,2	% 49,9	-3,3pp

Iturria: Eustat.

Bidaiariek igarotako gauak, jatorrien arabera

	2012	2013	% 2013/12
Bidaiariek igarotako gauak	**1.438.370**	**1.371.169**	**-4,7**
Espainiako estatukoak	877.293	801.220	-8,7
Estatuz kanpokoak	561.077	569.949	1,6
3, 4 eta 5 izarretako hotelak	1.155.428	1.090.298	-5,6
Izar 1 eta 2ko ostatuak	282.942	280.871	-0,7

Iturria: Eustat.

Bidaiari sarrerak eta igarotako gauak hiru hiriburuetako hotel egoitzetan

	2012	2013	% 2013/12
Bidaiari sarrerak EAEko hiriburuetan	**1.500.620**	**1.461.696**	**-2,6**
Gasteiz	279.119	239.058	-14,4
Donostia	482.329	492.923	2,2
Bilbo	**739.172**	**729.715**	**-1,3**
Igarotako gauak EAEko hiriburuetan	**2.950.495**	**2.823.864**	**-4,3**
Gasteiz	557.679	465.486	-16,5
Donostia	954.446	987.209	3,4
Bilbo	**1.438.370**	**1.371.169**	**-4,7**

Iturria: Eustat.

Itsas bidai aldietako turismoa

Gurutzaldiekin lotutako itsas bidai aldietako turismoak 44 gurutzaldi ekarri zizkigun 2013. urtean, eta denera, 56.004 'gurutzaldi'-lari. Datu hauek edozelan, % 12,2ko jaitsiera adierazten dute gurutzaldi kopuruan, eta % 15,1ekoa bidaiarienean 2012ko datuen aldean.

Behera, itsas bidai aldien inguruko jarduera

Gurutzaldien jarduera

	2012	2013	% 2013/12
Gurutzaldiak	50	44	-12,0
Gurutzaldietako bidaiariak	65.953	56.004	-15,1

Iturria: Bilboko portua.

Batzar eta bileretako turismoa

Bilbao Convention Bureau-k eskainiriko datuen arabera, 2013an hala moduzko 1.014 bilkura gertatu dira Bilbon. 91 gutxiago 2012an gertatuak baino. Hauen artean, jardunaldiak izan dira 2013an burutu diren bilkuren % 74,1 (urte arteko % 15,9ko jaitsiera, eta 142 jardunaldi gutxiago). Era berean, kongresuak ere % 4,2 gutxiago izan dira, 2012an baino halako 4 biltzar gutxiago. Edozelan ere, galera hauek badute zorionez beren ifrentzua 'konbentzio' batzarrek erakutsi duten hazkunde nabarian (55 ekitaldi gehiago 2012an baino, % 47,0 gehiago).

Negozioei loturiko turismoak % 8,2ko atzeraldia erakutsi du 2012aren aldean

Bilbon, kongresu, konbentzio eta jardunaldiak erakartzen dituzten sektoreak batez ere dira: ekonomia eta merkataritza jarduerak (% 31,3), osasungintza eta medikuntza arloak (guztien % 15 2013an), eta baita ere teknologia edota industriaren ingurukoak (% 16,4). Gainerakoak, heren bat gutxi gora-behera, beste hiru arlotan banatzen dira nagusiki: gizarte eta kultura arloak (% 14,1), herri administrazioekin lotuak (% 3,2) eta unibertsitateetakoak (% 8,5).

Hirian antolaturiko bilkura hauek guztiek, denera 145.122 ordezkari edo parte hartzaile bildu dituzte, hainbat gutxiago hala eta guztiz ere 2012an baino. Zehazki, 34.792 parte hartzaileren galera izan du hiriak urte beteko epean (% -19,3).

Aipatu liteke edozelan, bilkura hauen batez besteko iraupena 1,84 egunekoa izan dela, eta batez besteko hau aurreko urtekoa baino zertxobait altuxeagoa dela.

Bilkuren urte garaiei begira, ohartu behar da oso ezaugarri berezia erakusten duela turismo mota honek. Martxo, apiril, maiatz, ekain, urri eta azaroko hilabeteek biltzen dituzte 2013 osoan zehar Bilbok erakarritako bilkuren % 60 (denera 700 ekitaldi). Aldiz, uztailean eta abuztuan gertaturikoak ez dira izan guztien % 4,4 baino.

Edozelan ere, tarte hau ondo orekatzen da zorionez ohiko turismoak Bilbon erakutsi ohi duen portaerarekin. Hain zuzen, bilkuretako jarduera jaisten den hilabete horiexetan hartzen ditu ohiko bisitari multzorik handienak, ondoko irudian erakusten den legez datuak eta urte sasoiak alderatuz.

Kongresu eta bilerak

	2012	2013	% 2013/12
Bilkurak	**1.105**	**1.014**	**-8,2**
Kongresuak	95	91	-4,2
Konbentzioak	117	172	47,0
Jardunaldiak	893	751	-15,9
Parte hartzaileak	**179.914**	**145.122**	**-19,3**
Batez besteko iraupena (egunak)	**1,71**	**1,84**	**7,6**

Iturria: Bilbao Convention Bureau.

Bilkura eta hauetako parte hartzaileen bilakaera



Iturria: Bilbao Convention Bureau.

Bilkurak eta ohiko turismoa, urte sasoiez alderatuak



Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Informazioaren eta Berrikuntzaren

2013 Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

Informazioaren eta Berrikuntzaren Gizartea

6 Bilbo, ezagutzan trinko bihurtzerantz doan hiri

Informazioaren gizartea Bilbon

Informazioaren gizartea eta enpresak

Informazioaren gizartea eta familiak

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinkoak

Unibertsitatea ikerketa iturri

Bilbao Observatorio

Bilbo, ezagutzan trinko bihurtzerantz doan hiri

Azken hamarkadotan ekonomia gero eta nabarmenago bideratu da zerbitzuetara, eta aldiz urritzen joan da manufaktura sektoreen pisua denboran aurrera gentozen legez.

Garapen ekonomikoa indartze aldera, hiriak ere saiatu dira, bultzatzen, ustez etorkizunen bat eduki zezaketen sektore estrategikoak, eta hala sustatu dituzte industria alor jakin zenbait, eta batik bat, teknologian, berrikuntzan eta sorkuntzan oinarritzen ziren esparruak. Bilboren kasuan, ondoko sektoreok bereziki: ekoteknologiak eta hirigintzarako irtenbideak; artea, teknologia eta diseinua; eta osasungintza, turismoa eta bizitza kalitatea.

Ekonomia adimendunon beste eragile giltzarrietako bat da gizaki adimendunak berak erakarri eta atxiki ahal izatea. Hiriak, denak, gero eta kontzienteago dira zenbaterainoko garrantzia duen hiritar ongi prestatuak, sortzaileak eta ekintzaileak edukitzea bertan, hiria lehiakorrago bihurtzeko. Eta arlo honetara iritsita, propio azpimarratu behar da Unibertsitatearen garrantzia, berrikuntza ekosistemaren osagai nagusi gisa.

Ikerketa, garapen eta berrikuntzari dagokienean, IUS 2014, Europako Berrikuntzako Adierazleen Panelak, sailkatzen ditu Europar Batasuneko herrialde guztiak, hauen ekonomiek duten gaitasunen arabera, bai, berrikuntzarako jarduerak garatzeko, eta baita, hauek benaz erabiltzeko ere. Eta Euskal AE, EBko 15. postuaren inguruan kokatzen du, Espainiako estatuaren batez besteko baino gaitasun berritzaile indartsuagoz, baina baita, EB-27en batez bestekoaren azpitik hala ere.

Europako Berrikuntzako Adierazleen Panela, IUS 2014. Euskal AE eta EB-27



Iturria: Eustat (2014ko apirilean argitaratua).

Informazioaren gizartea Bilbon

Informazioaren gizartea eta enpresak

Interneten barneratzeak gizartean aurrera jarraitzen du, eta daborduko, Bilboko enpresen % 81,5era iristen da. Datuak 4,8 punturen irabazia erakusten du 2012ko kopuruen aldean. Edozelan, enpresa handienen kasuan (hamar edota enplegatu gehiago dituztenak), badira % 96,9 ere Sarerako sarbidea dutenak.

Bilbon hamar enpresatik zortzik dauka Interneterako sarbidea

Interneterako konexio modu nagusia, alde handiz, banda zabala da denen-tzako ere. Jakitera, 2013an Hiribilduan, Sarerako sarbidea duten enpresen % 80,9 konektatzen da sarean ADSLren bidez (hamar edo enplegatu gehiago dituzten enpresen kasuan, % 80,8). Edonola, aurreko urteen aldean, daborduko nabari da halako konexio moduen urritze gero eta azkarragoa, baina dirudienez, beti teknologia are oraindik berriagoen mesedean, zelan izan litezkeen, zuzeneko kable edo zuntz optiko bidezko konexioak (% 32,1) edota konexio mugikorrak (% 65,4).

Gainera, gero eta zabalduagoa da beste hainbat ekipamendu teknologiko aurreratuen ezarpen maila ere, zelan izan litezkeen, sare informatiko finkoak, wireless-ak –kablerik gabeak-, direla funtsen transferentzia elektronikorako sistema informatikoak, edo Intranet eta Extranet sareak… Hala, 2013an, hiriko enpresen % 65ek aipatzen du jada ezarria duela nolabaiteko sare informatikoren bat (hamar edo enplegatu gehiago dituzten enpresek berriz, % 94,6k ere bai). Kasuen erdietan gainera, haririk gabeko sare wireless-a darabilte.

Enpresen % 23,8k dauka jada bere Intranet sare propioa (% 67k, hamar edo enplegatu gehiagoko enpresen kasuan), eta % 16k du sare extranet-a hedatua, enpresaren beraren esparru fisikotik kanpora ere; eta proportzio hau, % 46,5era ere iristen da, jada hamar edo enplegatu gehiagoko enpresak direnean.

Merkataritza elektronikoaren erabilera -hau da, enpresek online-ko kanalen bidez egiten duten salerosketa-, mugatuagoa da edozelan gure hiriko enpresetan: Interneteko sarbidea duten enpresen % 20,9k baino ez 2013an. Zehatzago gainera, enpresen % 19k egin zituen erosketak Internet bidez, baina aldiz, % 4,7k baino ez zituen salmentak online eragin. Hamar edo enplegatu gehiago dituzten enpresen artean, portzentajeak handixeagoak dira: % 24,5 erosketa elektronikoa erabili duten enpresak; eta % 8,1 salmentak online eragin dituztenak.

Interneteko sarbidea duten enpresen % 20,9k darabil salerosketa aukera elektronikoa, batik bat erosketak bideratzekoan

Sarearen eta baliabide elektronikoen erabilera gero eta zabalagoaz bat, handitu da azken urteotan Bilboko enpresen presentzia ere Sarean. Interneten ikusgarri izateak eskaintzen dituen abantaila ugarien jakitun, Bilbon ere gero eta gehiago dira enpresak, online-ko aurkezpen propioa garatzea erabaki dutenak. Zehatzago, 2013an, hamar edo enplegatu gehiagoko enpresen % 83,9k dauka bere webgune propioa sarean (% 81,6k zuen 2012an). Oro har, enpresaren informazio orokorra eskaintzen dute gune gehienek (% 83,9k), baina baita bere produktu eta zerbitzuen zerrenda zehatzak ere beste askok (% 56,2k).

Interneteko sarbidea duten 10 edota behargin gehiagoko enpresen % 83,9k dauka webgune propioa

Hornikuntza teknologikoa Bilboko enpresetan (%)

	2012	2013
Interneteko sarbidea duten enpresak	**76,7**	**81,5**
10 lanpostu edo gehiagokoak	97,5	96,9
Web gunea duten enpresak	**47,0**	**49,1**
10 lanpostu edo gehiagokoak	81,6	83,9
Salerosketa elektronikoa egiten duten enpresak	**17,5**	**20,9**
10 lanpostu edo gehiagokoak	23,1	28,3
Erosketak egiten dituzten enpresak %	**16,7**	**19,0**
Salmentak egiten dituzten enpresak %	**3,0**	**4,7**

Iturria: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -Enpresak-, Eustat.

Informazioaren gizartea eta familiak

Azken urteotan Bilbo, Bizkaia Euskadi osoa legez, oso nabarmen aurreratu da, bai Informazioaren Gizarteak eskaintzen dituen abantaila eta aukeren garapenean, eta baita honetatik sortutako probetxuan ere.

Hala, Bilbon ere gero eta gehiago dira familiak, modu askotako hornikuntza teknologiko ugaria darabiltenak. Ez bakarrik gainera, teknologia eduki eta erabiltzen dutenak, baizik eta, inguruko beste gizarte aurreratuenetan bezalaxe, familiak, etengabeko jardunean dabiltzanak, beren ekipamenduak behin eta berriz aldatzen eta berraldatzen, aurrerakuntza teknologikoek aukera eskaini neurrian.

2013an, Bizkaiari dagozkion datuetan, % 1 gutxiago bide dira ordenagailu pertsonala –PCa- daukaten herritarrak. Ostera, % 7,2 hazten da ordenagailu eramangarria daukaten herritarren kopurua, 561,4 milakoetaraino. Eta jazoera honi gehitzen badiogu, PDA, Tablet edota Pocket PC baten jabe direnen kopuruak urtebetean erakutsi duen haziera itzelak 15 urte edo gehiagoko herritarren artean (% 371,0), ulertu genezake, seguruenera, ekipamendu informatikoen arteko ezinbesteko ordezkatzea dihardugula ikusten.

Era berean hazi da Interneteko konexioa duen -15 urte edo gehiagoko- herritarren kopurua, eta 673,6 milako izatetik 2012an igaro da 721,0 milako izatera 2013an (% 7ko haziera). Posta elektronikoa etxean bertan duten herritarrenen kopurua berriz, 659,5 milako izatetik, 703,6 milakotara igaro da (% 6,7 haziera).

Interneten erabilerari bagagozkio, kontuan hartu beharreko lehen datua dugu, Bilbon, -15 urte edo gehiagoko- herritarren artean, % 63,4 dela Internet erabiltzaile 2013. urte amaieran. Portzentaje honek 9,1 puntuko hazkundea erakusten du aurreko urteko kopuruen aldean.

Bilbon, 15 urte edo gehiagoko herritarren % 63,4 da Internet erabiltzaile

Halaz, nabarmengarria da Bilboko hiritarrok egiten dugun Interneten ohiko erabilera. Aipatu behar da ostera, oraindik orain ere eten digital dezentea antzeman litekeela sexuen artean teknologia hauen erabilera maiztasunean. 2013an, Bilbon bizi diren gizonezkoen % 69,9k erabili du Internet; eta hori, 11,6 puntu gehiago da emakumezkoen kasuan baino, hauen artean % 58,0k erabili baitzuen. Urtebete lehenago, genero eten hori zer edo zer txikiagoa izan zen Interneten erabileran, gizonezkoen % 59,2tik emakumezkoen erabileraren % 50,1era doazen 9,1 puntu.

Gehien erabiltzen diren zerbitzuei dagokienean, Bizkai osoko dartuak kontuan, bereziki aipatu behar dira posta elektronikoa eta hedabideetako webguneei eginiko bisitak. Era berean, gero eta gehiago dira erabiltzaileak, sarean hainbat ogasun eta zerbitzuren erosketa egiten dituztenak (hazkuntza % 50en ingurukoa ere bada); eta gero eta gehiago ageri dira ere erabilera modu berriak, zelan, sare sozialetakoak, edota bat-bateko mezularitza zerbitzuetakoak.

Internet darabilten herritarrak (15 urte edo gehigoko herritarren %a)

	2012	2013
Guztira	**54,3**	**63,4**
Emakumezkoak	50,1	58,0
Gizonezkoak	59,2	69,6
Eten digitala (p.p.)	9,1	11,6

Iturria: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -Familiak-, Eustat

Hornikuntza teknologiko nagusiak Bizkaiko familien artean (familiak milakoetan)

	2012	2013	Var %
PCa	451,2	446,8	-1,0
Eramangarria	523,5	561,4	7,2
PDA / Tableta / Pocket PCa	42,8	201,6	371,0
Internet	673,6	721,0	7,0
Posta elektronikoa etxean	659,5	703,6	6,7

Iturria: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -Familiak-, Eustat.

Ikerkuntza, garapena eta berrikuntza

Bizkaiak, eta Bilbok, aurrera jarraitzen dute ikerketa, garapen eta berrikuntza (I+G+b) jardueren arloetan, eta hobekuntza nabaria da halako jardunbideei eskaintzen zaizkien gaitasun eta ahaleginean, bai hiriko enpresen aldean, zelan hiritar soilen aldean ere.

Eustatek azkena argitaratu duen informazioari bagagozkio, Bizkaian 9.400 enpresa dira 'berritzaile'; aldi berean, egia bada ere kopuru hau % 6,9 jausi dela aurreko urtekoaren aldean. Hamar behargin edota gehiago dituzten enpresei bagagozkie berriz, kopurua areago ere jausten da, % 11,1eraino, nahiz badiren hauen artean 1.600 enpresa 'berritzaile' ere.

Berrikuntzan eginiko gastua % 3,6 jausi da Bilbon 269,1 milioi eurotaraino

Artezago Bilbori dagokionez, hamar behargin edo gehiago dituzten enpresen heren batek baino gehiagok (% 36,1ek) garatu zituen berrikuntza jardunak 2010 eta 2012. urteen artean. Eta portzentaje hau etengabe hazi da 2010-2011ko biurtekoaren aldean, aurreko beste bietan aldiz atzera egin ondoren.

Berrikuntza motei begiratuz gero, Bilbon % 29 dira berrikuntza teknologikoak gauzatu dituzten enpresak; eta berrikuntza ez-teknologikoak burutu dituztenak, %22,6.

Ezin da zalantzan jarri, Bilboko enpresek 2012an I+G+b jardunei eskainitako ahalegin ekonomikoa, nabarmena izan zela, jakinda, denera, 269,1 milioi euro bideratu zirela berrikuntza jardunetara, nahiz eta kopuru hau 2011n baino %3,6 gutxiago izan. Aipatu zenbatekoa, Bizkai osoko gastu ahaleginaren % 27 da.

Bestalde, I+G jardunei dagokienean, hiriko 169 enpresak aitortzen du era honetako jarduerak garatu izana 2012. urtean barrena; aurreko ekitaldian baino % 1,2k gehiago. Halako jardueren garapenerako, enpresek denera 3.808 behargin erabili zituzten, eta horietako % 64 ziren ikertzaile.

Bilbon 169 enpresak garatu dituzte I+G jarduerak 2012an, eta 110 milioi euroko gastua eragin

I+G jardueren garapenak eragindako gastua, 110,1 milioi eurotik gora doa, nahiz eta honek % 4,3ko jaitsiera ere erakusten duen 2011ko datuen aldean. Jarduera sektoreei begiratuz gero, 51,4 milioi dira enpresek gastatutakoak, 42,1 milioi unibertsitateek eta 16,6 milioi Administrazio Publikoak.

Edozelan dela ere, hiriko enpresa eta unibertsitateetako ikerketa eta garapen jardun ugaria eta guzti, eta bertan eginiko diru eta pertsona ahalegin guztiengatik ere, negatiboa da 2013. urteko ekimen sortzailearen emaitzen balantzea, 2012. urtean izan genituen adierazleen aldean.

2013an, zehatz, 15 patente eskaera erregistratu dira, 2012. urteko kopuru berbera. Berdin, 397 merkataritza marka berri eskatu dira 2013ko urtean (2012an baino %10,2 gutxiago), eta baita 7 baliagarritasun modelo, 13 diseinu industrial eta 35 merkataritza izendapen berri ere.

Berrikuntza

	2011	2012	% 2012/11
Enpresa berritzaileak (milakoetan)	**10,1**	**9,4**	**-6,9**
10 behargin edo gehiagokoak	1,8	1,6	-11,1
Berrikuntza jardueretako gastua (milioitan)	**1.326,0**	**1.224,1**	**-7,7**
10 behargin edo gehiagokoek	1.053,3	1.008,0	-4,3

Iturria: Berrikuntza Inkesta – EUSTAT (Bizkaia).

I+G

	2011	2012	% 2012/11
I+G gastua (milaka €tan)	**116.306**	**110.108**	**-5,3**
I+G jarduerak dauzkaten enpresak (kop.)	**167**	**169**	**1,2**
I+Gari eskainitako beharginak (kop.)	**3.729**	**3.808**	**2,1**
I+Gari eskainitako ikerlariak (kop.)	2.358	2.451	3,9

Iturria: I+G inkesta, Eustat.

Patenteak eta markak. Bilbon erregistraturiko eskaerak

	2012	2013	% 2013/12
Patenteak	15	15	0,0
Markak	442	397	-10,2
Baliagarritasun modeloak	11	7	-36,4
Diseinu industrialak	15	13	-13,3
Izendapen komertzialak	20	35	75,0

Iturria: OEPM.

Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinkoak

Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinko deitu ohi zaie, berrikuntzarekin eta ezagutzaren gizartearekin, modurik zuzenenean lotzen diren jarduera esparruak biltzen dituztenei. Hala, osatuko dute sektore hau: informazioak eta komunikazioek (telekomunikazioek, zerbitzu informatikoek, ikus-entzunezko zerbitzuek, eta informazioaren eta edizioaren ingurukoek); finantza eta aseguru zerbitzuek; eta jarduera profesional zientifiko eta teknikoek (zerbitzu juridikoek, kontularitza zerbitzuek, aholkularitzek, arkitekturak eta ingeniaritzek, I+G zerbitzuek, publizitateak, marketinak, eta abar).

2013. urtearen amaieran sektore honek 26.372 pertsona enplegatzen ditu Bilboko hirian, bertako enplegu guztiaren % 16,1 osatzen dute, eta 2.323 enpresetan banatuta egiten dute behar (enpresen % 11,3). Edozelan dela, enplegu kopuru honek % 4,3ko jausialdia ekarri dio ezagutza trinkoko enplegu mailari, eta 0,4 p.p.-en galera enpleguaren pisu osoari begira.

Edonola, zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoen azpisektoreak jarraitzen ditu sortzen sektore osoko enpleguen hamarretik lau (% 42,3), eta hauen ia erdia (% 49,2) agertzen da zerbitzu juridiko eta kontularitza eta aholkularitza sektoreei lotua (denera 5.492 pertsona afiliatu dituztelarik).

Informazio eta komunikazioen azpisektorean berriz, zerbitzu informatikoek biltzen dute jarduera esparru osoko enplegu kopuru handiena (3.335 enplegatu). Eta berriz, finantza eta aseguru zerbitzuen azpisektorean, enpleguaren ia % 64 dagokie finantza jarduerei (5.398 enplegu).

Azken urtean nolanahi nabarmen urritu da enplegua hiru azpisektoreotan ere. Kaltetuena finantza eta aseguru zerbitzuen azpisektorea ageri da zuzenen (% -6,4ko galera), baina baita informazio eta telekomunikazioena ere (% -5,7ko galera). Kalterik gutxien zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoek erakutsi dute (% -1,7ko galera ere).

Ohartzekoa gertatzen da enpleguaren murrizketa telekomunikazioen zerbitzuetan (% -13,4ko galera) eta finantzakoetan (% -9,5eko galera). Baita ere, bestetik, ikus-entzunezko zerbitzuetako galerak, informazio eta edizio jardueretakoak, eta publizitate eta marketinekoak (% -5,6 eta -3,2ko galerak hurrenez hurren).

Soldatapeko kontratudunak izanik, ezagutza trinkoko zerbitzu profesional eta enpresetakoen sektorean diharduten enpresek, denera 2.323 lanpostu eskaintzen dituzte, eta honek % 0,9ko hazkundea adierazten du 2012ko urtearen aldean. Igoerarik esanguratsuena informazio eta telekomunikazioen azpisektorean gertatzen da (% 2,1). Jarduera esparruei baldin bagagozkie berriz, gehien hazten diren enpresak dira arkitektura, ingeniaritza eta I+G zerbitzuetan dihardutenak (% 9,2), eta aldiz telekomunikazioetakoak atzera gehien egiten dutenak (% -12,2ko galera).

Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinkoko zerbitzuak: pertsona afiliatuak

	2012	2013	% 2013/12
Pertsona afiliatuak (kop.)	**27.546**	**26.372**	**-4,3**
Informazioa eta komunikazioak	**7.158**	**6.749**	**-5,7**
Telekomunikazioak	1.242	1.075	-13,4
Zerbitzu informatikoak	3.438	3.335	-3,0
Ikus-entzunezko zerb., informazioa eta edizioa	2.478	2.339	-5,6
Finantza eta de aseguru zerbitzuak	**9.046**	**8.471**	**-6,4**
Finantza zerbitzuak	5.964	5.398	-9,5
Aseguru zerbitzuak eta osagarriak	3.082	3.073	-0,3
Zerbitzu profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	**11.342**	**11.152**	**-1,7**
Zerbitzu juridikoak, kontularitza eta aholkularitza	5.490	5.492	0,0
Arkitektura, ingeniaritza eta I+G zerbitzuak	3.578	3.405	-4,8
Publizitatea eta marketina	1.329	1.285	-3,3
Bestelakoak	945	970	2,6

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Ezagutza trinkoko zerbitzu profesional eta enpresetakoak: Soldatapeko kontratatuak dituzten enpresak

	2012	2013	% 2013/12
Soldatapeko kontratatuak dituzten enpresak (kop.)	**2.302**	**2.323**	**0,9**
Informazioa y komunikazioak	**381**	**389**	**2,1**
Telekomunikazioak	49	43	-12,2
Zerbitzu informatikoak	176	184	4,5
Ikus-entzunezko zerbitzuak, informazio eta edizioa	156	162	3,8
Finantza eta aseguru zerbitzuak	**359**	**362**	**0,8**
Finantza zerbitzuak	80	83	3,8
Aseguruak eta osagarriak	279	279	0,0
Zerbitzu profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	**1.562**	**1.572**	**0,6**
Zerbitzu juridikoak, kontularitza eta aholkularitza	971	1.012	4,2
Arkitektura, ingeniaritza eta I+G zerbitzuak	239	261	9,2
Publizitatea eta marketina	203	199	-2,0
Bestelakoak	102	100	-2,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Unibertsitatea ikerketa iturri

Unibertsitatea ezagutza gune irekia da, eta egunetik egunera birmoldatzen doan jakinduria baten egoitza. Unibertsitatearen jardunak etengabeko berrikuntza eragiten du, izan dagoena hobetzeko, edo izan haustura gogorra eragiteko dagoenaz, beti ezagutzari esparru berriak irekiz, aurkikuntza, proba edota aplikazio berriak sortzen diren heinean.

Bilbo hirian daukagun unibertsitateak hiru eredu erakusten ditu batera: bat, publikoa, Euskal Herriko Unibertsitateari dagokiona; bestea, Deustuko pribatua, jada ondo aitorturiko ibilbide luzekoa; eta hirugarrenik, Mondragon Unibertsitate, pribatua hau ere, gazteagoa, praktikoagoa, eta gure hirian hainbat kokatu berria oraindik. Eredu hauetako bakoitzak nolanahi, jardun ageria erakusten du elkarren arteko lankidetza eta kooperaziorako. Bai, hiruren arterako, eta bai, hiruretako bakoitzak bere aldetik ere, estatuan eta nazioartean ikerketari lotuak ehotako sareetan. Horrek ere areagotzen du Bilbo hiriaren erakusgarritasuna, unibertsitate hauetako profesionalen ohiko jarduneko foro eta kongresutako parte hartzeetan.

Ezagutzaren sortzaile gisa, eta ezagutza honen ezinbesteko transferentzian ondoren, enpresetara eta gizarte osora, unibertsitateon baliabideen erabilera, osagai giltzarria gertatzen da hiriaren garapen ekonomikoan.

Unibertsitateok garatutako ikerketa eta teknologia-berrikuntzako jardueren emaitzak, urtero irabazten diren patenteen bidez neurtu litezke, eta berau adierazle baliagarria gertatzen da unibertsitateon egoera eta garapena aztertzeko garaian.

EHUk eskainitako azken datuek, 2012. urteari dagozkionek, erakusten dute, 77 izan direla patente erregistro eskaerak. Eta honek, jausialdi esanguratsua erakusten du aurreko urteko patenteen aldean.

EHUk aurkeztutako patente erregistroen garapena 2000-2012



Fuente: Eustat (publicado abril 2014).

EHU - Euskal Herriko Unibertsitateak hainbat unibertsitate fakultate dauzka Bilbon sakabanatuak, dela Sarrikon, Elkanon, La Casillan edota San Mamesen. Eta 2013. urtean, zehazki, 11.377 ikasle izan dira Bilboko egoitza hauetan ikasten jardun dutenak. Kopuruei begira berriz, ohartzekoak dira, batetik, Ingeniaritza (Industrial eta Komunikazioetako) Goi Eskola Teknikoak biltzen duen ikasle kopuru nabarmena (3.021), eta bestetik, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatekoa ere (2.965 ikasle). Matrikula kopuruari dagokionean, ondoren dihoazkie Industri Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola (2.041 ikasle), Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola (1.049), iritsi berria den Meatze Eskola (745 ikasle) eta Medikuntza Fakultatea (579). Hauez gain aipatu behar dira gradu-ondoko ikasketetan diharduten beste 617 ikasle.

Deustuko Unibertsitateak 7.500 ikasle baino gehiago ditu Bilbon

Deustuko Unibertsitateari dagokionean, merezi du gogoratzea Bilboko campusa hiri erdian bertan duela kokatua, Guggenheim Museoaren aurrez aurre. Campusaren atal dira: Literatura Unibertsitatearen eraikina, edo Eraikin zentrala (bertan eskaintzen dira Zuzenbide eta Letretako ikasketak); baita Komertzialaren eraikina, Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatearekin, ESIDE eraikina, ingeniaritzetako ikasketak biltzen dituena, eta Mendeurreneko eraikina. Jadaneko ehun urtetik gora dituzten eraikin historiko hauen parean altxatu du Deustuko Unibertsitateak CRAI (IIBZ) liburutegia (Ikerketa eta ikerkuntzarako Baliabideen Zentroa), eta hau, Aita Arrupe izena daraman pasabidearen bidez lotzen zaio itsasadarraren gainetik campusari.

Bilboko campusak 9.700 ikasle baino gehiago biltzen ditu 2013. urtean, eta azpimarratzekoak dira Psikologia eta Hezkuntza fakultateko 1.938 ikasleak edota Enpresa Zientzia eta Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza fakultateko 1.882ak. Ondoren datozkie Gizarte eta Giza Zientzietako fakultatea (1.571 ikasle), Zuzenbide fakultatea (1.124 ikasle), Ingeniaritza fakultatea (899), teologia fakultatea (119 ikasle) eta Aisia, Kultura eta Elkartasun Ikasketetakoak (50 ikasle).

EHU – Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko Campusa)

	2013
Guztira EHU Bilboko campusean	**11.377**
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean	2.965
Ingeniaritza (Ind. eta Telekom.) Goi Eskola Teknikoa	3.021
Industri Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	2.041
Meatze Eskola	745
Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	1.409
Medikuntza Fakultatea	579
Gradu-ondoko ikasketak	617

Iturria: EHU ZENBAKITAN 2012.

Deustuko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko campusa)

	2013
Deustuko Unibertsitatea	**9.783**
Zuzenbide fakultatea	1.124
Gizarte eta Giza Zientzien fakultatea	1.571
Psikologia eta Hezkuntza fakultatea	1.938
Enpresa Zientzia eta EAZren fakultatea	1.882
Ingeniaritza fakultatea	899
Beste fakultateak	169
Gradu-ondoko ikasketak	2.400

Iturria: Deustuko Unibertsitatea.

Enpresa haztegiak

Unibertsitateak berez sustatu gura du kultura ekintzailea, eta hala enpresa berritzaileen sorrera lagundu, eta balio erantsi handiko oinarri teknologikoa izango dutenak.

Zehatz EHUren kasuan aipagarria da ZITEK programa. Honen asmoa da enpresa ehun egoki baten sorrera sustatzea, bai I+G+b ikerketa emaitzetatik etorri lekizkigukeen ideietatik abiatuta, baina baita, Bizkaiko campusarekin nola edo halako harremanen bat duen, edo eduki duen, beste edozein ekintzailerengandik etorri dakizkigun ideietan oinarrituta ere.

Deustuko Unibertsitateari dagokionean berriz, azpimarratzekoa da Deusto Entrepreneurship Centre-ren jarduera. Honen asmoa ere da, batetik, indar ekintzailea bultzatzea; eta bestetik, Deustuko Unibertsitatean sortu edota ikasitako ezagutza berezi hori merkatura eta hala gizarte osora eraman ahal izatea. Badu Bilbon enpresa haztegi propioa ere, DeustoKabi izenekoa, ekintzailetza jarduerak garatzeko gune pentsatua, eta Deustuko Unibertsitatearen barruko eta kanpoko arlo desberdinetan lan egiten duten pertsonak elkarrekin konektatzeko eta dinamizatzeko bitarteko.

Azkenik azpimarratzekoa da ere Mondragon Unibertsitatearen gune berriaren abiaraztea; Bilbokoa, gainera, berrikuntzan eta ekintzailetzan berezitua: MU-BBF (Bilbao Berrikuntza Faktoria). Ikastetxe honek, graduko titulazioak eta masterrak eskainiko ditu, eta baita, etengabeko prestakuntza programak, praktikak, gradu amaierako proiektuak, eta aldi berean, ikerkuntza eta transferentzia ekimenak ere. Gainera, unibertsitate ikasleei legez, zabaldu gura die bere jarduna langabezian daudekeen pertsonei ere, hala zelan enpresei eta beste hainbat motatako erakundeei ere.

Ikerketa zentroak

Ikerketari loturiko unibertsitate jardunari bagagozkio berriz, aipatzekoa da unibertsitateen ingurutik sortutako bikaintasunezko ikerketa zentroen jarduera, BERC izena hartu duten zentroak.

Bilbok baditu hauetako bi gune hirian: BC3 Basque Center for Climate Change, eta BCAM Basque Center for Applied Mathematics izenekoak. Lehenak klima aldaketaren zergatien eta ondorioen ikerketan dihardu, eta hauei aurre egin ahal izateko era egokienen bila. Bigarrena berriz, diziplina-arteko gunea da, mundu mailan ezaguna matematika aplikatuaren arloetan; eta beste eremu batzuen artean, bereziki ikertzen ditu matematika konputazionala, biologia matematikoa eta simulazio molekularra.

Unibertsitatea eta hirigintza berria

Azkenik, unibertsitateak eginkizun giltzarria betetzen du ere azken urteetan Bilbo hiriko fisonomiak jasan dituen aldaketetan ere. Itsasadarraren alde bietan begiztatu genitzake Deustuko Unibertsitatea eta Bizkaia Areto berria. EHUk badu bere fakultateak berrantolatzeko egitasmo berria, eta aurrerantzean hiru gune erraz berezigarri sortzeko: batetik, gune juridiko-ekonomikoa Sarrikon –Zorrozaurre berrirantz zabaltzen joango dena-; bestetik, gune teknologikoa, erakusketa azoka zaharraren lurrak hartuko dituena; eta hirugarrenik, osasungintza-medikuntza gunea, Basurtuko ospitalearen inguruan.

Kultura eta Kirola

2013 Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

Kultura eta Kirola 7

- Udalaren kultura jarduera
- Antzerkia, dantza eta musika jarduerak
- Jarduerak museoetan
- Liburutegiak
- Kirola

BilbaoObservatorio

"Kultura batuketa da, artearen, maitasun eta pentsamenduaren molde guztien batura, mendeetan zehar gizakiari aukera eskaini diotenak izateko gero eta libreago."

André Malraux

Kultura da garapen jasangarriaren laugarren zutabea.

HLGB (Hiri eta Leku Gobernu Batuak).

Kulturaren Behatokiak 2013an Bilbo ipini du estatu osoko hirien artean hirugarren lekuan hiriaren kultura eskaintzaren kalitate eta berritasun ezaugarriengatik, soilik Madril eta Bartzelonako hirien ondotik. Fundazio Garaikideak -Behatokiaren eskutik- kontsulta zehatza eragiten du estatu osoko kultura paisaiaren ikuspegi zehatza bereganatu nahian, kultura arloko profesional aitortuek osaturiko aditu taldea medio.

Urteroko kontsulta honen bidez lantzen ditu Kulturaren Behatokiak hainbat adierazle iraunkor, aukera ematen dutenak, erkidego autonomo eta hauetako hiri garrantzitsuenetako kultura jardueraren balorazioa eta segimendua egiteko, hala zelan urtean zehar esanguratsuen bihurtu diren kultura erakunde eta jazoeren inguruan.

2013. urteko kultura erakunde eta jazoera garrantzitsuenak ebaluatu ahal izateko, itaun ireki bat bideratu zitzaion adituen taldeko profesionaletako bakoitzari, eta hauen erantzunetan 168 kultura erakunde, enpresa eta programa izan ziren aipatuak. Eta hauen guztien rankingean -adituen artean izaniko aipamen kopuruaren arabera-, Guggenheim Museoa ageri da zerrendako 13. lekuan.

Hala berriro bihurtu da ikusgarri hiriko eragile guztien ahalegin etengabearen fruitua Bilboko hiriaren kultur dimentsioa bultzatu eta propio indartzeko garaian, eta oso bereziki, administrazioko kultura erakundeena.

(1) Fundación Contempoánea -Fundazio Garaikideak- buruturiko Behatokia, kulturaren munduarekin zerikusia duten profesional sona ezagunekoen arteko aditu talde baten iritziak batu ondoren, hala zelan administrazio publikoetako kultura arlo eta erakundeetako arduradunengandikoak ere.

Udalaren kultura jarduera

2005. urtean Bilbok berariaz sinatu zuen Kulturaren Agenda 21eko ituna, eta bertan bere gain konpromiso sendoa hartu aurrerantzean kultura dimentsio giltzarria izan zedin hiriko politika urbanoetan, eta hala egin zituen bere hainbat printzipio, konpromiso eta gomendio ere hiriaren garapena bertatik bertarako ikuspegietan indartzeko, eta ahalegin hauek giza taldeen eskubide kolektibotzat jotzeko.

Bertan bereziki azpimarratzen da aniztasuna, dibertsitatea eta kulturaren ikusmolde irekia bultzatu eta defendatzearen garrantzia, hala zelan sormenaren balioa ere, eta hiritar guztien parte hartze kulturala.

2013. urtean barrena, udalaren kultura jardueraren jokabidea sei lerro nagusitan gauzatu da bereziki: Aisia eta kultura ekitaldien programazioa, hiriko Liburutegi Sarea eta Udal Artxiboa sendotzea, kultura programazioa sustatzea, sormen eta formazio artistikoa suspertzea, auzoetako programazioa -Kultura Barrutik-, eta lankidetza hiriko beste talde artistikoekin.

Ondoren erantsiriko taulan ikusi litekeen moduan, aipatu lerroon zabaltze lanean, denera 38 proiektu garatu dira, eta hauen bidez 1.315 ekitaldi eraman ahal izan dira denera aurrera, guztien artean 944.578 pertsona bildu ahal izan dituztenak.

Udalaren kultura jardueraren adierazleak (2013)

	Proiektuak	Ekitaldi kop.	Bertaratuak
Aisia eta kultura ekitaldiak	55. Zinebi	235	44.302
	Bilboko XII. Kalealdia		
	Txotxongiloen Nazioarteko XXXII. Jaialdia		
	XV. BAD		
	FANT 19		
	XIV. BilbaoPoesia		
Liburutegi Sarea eta Udal Artxiboa sendotu	Udal Liburutegien Sarea	293	741.343
	Udal Artxiboa		
Kultura programazioari bultzada	Bidebarrieta Kulturgunea	303	87.694
	Liburu azokak bultzatu		
	XIV. Arte eta Kultura Topaketak lagundu		
	Argitalpenak		
	Bilbao Izan		
	XXV. Bilbainada Lehiaketa		
	Kultura arloko diru laguntzak		
	Hitzarmenak		
Sormen eta formazio artistikoa sustatu	Bilbao Eszena	167	13.331
	5. Artistak egoitzan		
	Bilboko Zirkuitua		
	Bilboko Haur Antzerkia		
	Kultura lantegiak		
	Literatura lehiaketak		
	Bilbao Film Commission		
Kultura Barrutik Auzoetako programazioa	Programazioa 8 Barrutitan	317	57.908
	Expodistrito		
	Bilbao Distrito Jazz		
	Gabonetako Abesbatza Lehiaketa		
	Dantza Plazetan		
	Udaberriko XXIX. Bertso Saioak		
Lankidetza beste sektore artistikoekin	Ikusmen arteak		
	Arte Eszenikoak		
GUZTIRA		**1.315**	**944.578**

Iturria: Bilboko Udala.

Antzerkia, dantza eta musika jarduerak

Urtez urte Bilbok oso aukera interesgarria eskaintzen du arte eszenikoko ikuskizunetan. Antzerkiak, musikak eta dantzak -nagusiki- badauzkate hirian 11 gune eszeniko bere emanaldietarako eta beste 6 kontzertu areto ere, zeintzuen artean aipatzekoak diren, bereziki, Arriaga Antzokia eta Euskalduna Jauregia, hauen programazio ugaria dela eta.

Arriaga Antzokiak eta Euskalduna Jauregiak 450.833 ikusle bildu dituzte 2013an

Bilboko antzerki eta dantza garaikidearen XV. Bad Jaialdia (Bilbao Antzerki Dantza), Bilbao BBK Live, Txotxongiloen Nazioarteko XXXII. Jaialdia, edota Arriaga eta Campos Elíseos antzokietako -Eliseoko Zelaiak-, eta Euskalduna jauregiko antzerki eta musika egitarau emankorrak ez dira hala ere hiriak eskaini eta garatzen duen kultura jarduera osoaren lagin erakusgarria baino. Eta ez dute lortu ekimen bizi hau geraraztea, ez ekonomiaren egoera nahasiak, ezta kultura industriaren eta honen jardunen gainean ezarririko gehiegizko zerga gehikuntzaren eragin nabarmenak ere.

2013an **Arriaga Antzokiak** 67 ikuskizun eskaini ditu, guztira 226 emanaldi, denera 148.547 ikusle bilduz. Antzokiak 182 egunetan ireki ditu ateak urtean zehar, batez beste 659 pertsona batuz emanaldiko.

Eskainitako 67 ikuskizunon artean, 19 izan dira antzerki muntaketa, 8 dantzaldi, 22 musika kontzertu, 5 opera, zarzuela 1, musikal 2 eta beste 10 aurrekoen artean sailkatu gabekoak.

2013an **Euskalduna Jauregiak** jarraitu du estatu osoko Batzar Jauregien arteko liderra izaten bertan eskainiriko ekitaldi kopuruari dagokionean, eta guztira 744 jazoera eta emanaldi izan ditu.

Beraiek bakarrik ere, Musika eta Ikuskizun jarduerek 302.286 entzule/ikusle bildu dituzte eskainiriko 328 emanaldietan.

Antzerkia izan da emanaldi gehien erakutsi duen jarduera, 113 denera. Azpimarratzeko dira ere Orkestra eta Abesbatzek eskainiriko 69 emanaldiak, Opera denboraldiko 29 emankizunak, Ballet eta Dantzako 12 ikustaldiak, beste 20 Kontzertu askotarikoekin batera.

ARTERIA Campos Elíseos Antzokiak -Eliseoko Zelaiak-, Bilbao Eszenak, AlhóndigaBilbaok, Bilborock-La Merced -Mesedetakoak-, hACERIA –hALTZAIRUTEGIA-aretoak, Fundizioak, Pabiloi 6k, Kafe Antzokiak, Azkena aretoak eta Santana 27k osatzen dute hiriko gune eszeniko eta kontzertu areto nagusienen zerrenda.

Jarduerak museoetan

Bilboko hiriak eskaintzen duen museo jarduera garrantzitsua bertako 12 museoetan garatzen da, eta baita ere, hirian arte galeriek duten presentzia nabarmenean. Ostera, guztien buru eta oso leku nabarmenean azpimarratu behar dira, alde batetik, Guggenheim Museoa, batik bat honen nazioarteko zalantza bako proiekzioa dela eta; bestetik, Arte Ederretako Museoa, berea duen arte bilduma entzutetsuarengatik.

Guggenheim eta Arte Ederretako Museoek 1.123.409 bisitari erakarri dituzte

Guggenheim Bilbao Museoak 2013an 931.015 bisitari biltzea lortu zuen, eta hauetako % 65 izan ziren Espainiako estatuz kanpokoak. Eta bereziki nabarmentzekoak, Frantzia, Bretainia Handia, AEB eta Alemaniatik hurbildutakoak.

Beste % 35a Espainiako estatu barrutik dator, eta hauen artean nabarmen dira euskal herritarrak, hiru bisitarik bat ere bai.

2013an, azpimarratzekoa izan da “L´Art en guerre. Frantzia 1938-1947” aldi bateko erakustaldia, guztira 580.203 bisitari bildu dituena.

Bilboko Arte Ederretako Museoak 192.394ko bisitari kopurua bereganatu zuen 2013. urtean. Bertaratuen % 69 zetorren EAEko beste bazter batzuetatik, eta % 17 Espainiako estatuz kanpotikoak izan ziren.

Museoaren 2013ko egitarauan bereziki nabarmendu dira Nestor Basterretxearen erakusketa eta Dario de Regoyos-ena, edota “Gauguinen Aztarnen Atzetik” erakusketa.

Izen ezaguneko beste hainbat gunek ere osatzen dute Bilboren museo eskaintza. Hala: Eleizmuseoa -Elizbarrutiko Arte Sakratuko Museoa -Museo Diocesano de Arte Sacro-, edota Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa, aipagarrienen artean.

Museoak

	2012	2013
Museo kopurua	**12**	**12**
Guggenheim	1.014.104	931.015
Arte Ederrak	295.968	192.394

Iturria: Guggenheim Bilbao Museoa, Arte Ederretako Museoa.

Liburutegiak

Bilbok daukan liburutegi, hemeroteka eta dokumentazio eta ikerketa zentroen eskaintza garrantzitsua, esparru publikoan gauzatua da Bizkaiko Foru Liburutegian eta Udal Liburutegiek eskaintzen duten sare zabalean.

Liburutegi sarearen erabilera % 6,6 hazi da 2013an

Bidebarrietako Liburutegi Nagusiaren jarduna, beste 14 udal liburutegietakoaz osatzen da, Begoña, Deustu, Uribarri, Txurdinaga-Otxarkoaga, Ibaiondo, Errekalde eta Basurtu-Zorrozako barrutietan banatuak, hala zelan, Bilbao Musika liburutegi espezializatuaz -soilik funts musikalek osatua dena-.

2013an liburutegi sarearen erabilera % 6,6 hazi zen (45.705 bisitari gehiago), eta hala hazi zen ere liburutegi erabiltzaile txarteldunen kopurua % 3,7n. 2013an erabiltzaileko, batez beste, 6,8 bisita kopurua gertatzen da, eta honek hobetu egiten du 2012koa. Bildumen tamaina hazi egin da; aldiz, zertxobait jaitsi bertako funtsen maileguak.

Bereziki nabarmena da Bidebarrietako Liburutegi Nagusiaren jarduna beste guztien gainetik, berak bakarrik biltzen du-eta liburutegiek 2013an izaniko bisita kopuru osoaren % 38, eta berak batzen dituelako ere hauen funts guztien % 30. Hala, ez da harritzeko bertan gertatzea urtean zehar izaniko maileguen herena baino gehixeago.

Kudeaketa publikoaren barruan ere aipatzekoak dira Bizkaiko Foru Liburutegiak dauzkan ia 300.000 aleak. Gainera, baliabide sare zabal hau osatzen dute hiriko museo azpiegiturei loturiko gune bibliofiloek ere (Arte Ederretako Museoa, Guggenheim, Euskal Museoa…), edota beste zelanbaitekoek (Alhondigako Medioteka, Azkue Biblioteka Euskaltzaindian).

Liburutegien adierazleak

	2012	2013	%2013/12
Bertaratuak	692.045	737.750	6,6
Maileguak	377.257	376.036	-0,3
Bildumaren tamaina	415.858	428.784	3,1
Erabiltzaile txarteldunak	104.863	108.767	3,7

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

Liburutegien adierazleak (2013)

	Bisitak	Erabiltzaileak	Maileguak	Funtsak
GUZTIRA	**735.750**	**108.587**	**376.036**	**428.507**
Bidebarrieta	278.767	38.047	126.519	130.544
Deustu	111.771	14.791	51.067	29.951
San Inazio	48.956	7.438	25.928	22.164
Zurbaranbarri	9.393	2.628	8.920	8.107
Castaños	22.745	1.925	14.032	6.231
Otxarkoaga	21.642	3.414	12.261	15.594
Begoña	80.069	14.460	47.897	34.431
San Adrian	8.764	2.153	7.365	7.094
San Frantzisko	25.494	4.223	11.999	16.597
Zabala	3.393	950	4.328	4.429
Ibaialde	27.038	1.495	8.953	7.581
Irala	13.784	2.426	11.041	10.323
Errekalde	33.636	9.067	15.521	15.255
Zorroza	37.188	4.550	18.930	15.086
Buia	58	26		1.449
Bilbao Musika	13.052	994	4.118	8.756
Garellanoko gordailua			7.157	94.915

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

Kirola

2012an "Europako Kirol Hiri" aukeratua izan zenak, 2013. urtean zehar ere zinez baieztatu du bokazio hau, eta baita bere konpromisoa ere, kirola lehen pertsonan bizi duen hiri eredua bultzatzeko asmoetan, eta hau bere biztanleen egunerokotasunean barneratzen duena.

91.353 bilbotar daude abonaturik udal kiroldegi sarean

Ez dira bakarrik maila profesionaleko kirol ekitaldiak sustatu. Baita kirol praktika zabaltzen saiatu ere biztanle guztien artean, berrikuntza etengabean diharduen ekipamendu eta instalazio eskaintza osatuaren bitartez.

Udalaren Kirol Pabiloiak, Alhondigako jarduera fisikoetarako guneak, eta batez ere, 10 udal kiroldegiek, aukerako bihurtzen dute edozein herritarrentzat kirol jardueren praktika hiri osoan aurrera.

2013. urtean, 97.353 izan dira kiroldegi hauek erabili dituzten pertsona abonudunak.

Gainera, Bilboko hiriak kirol ekitaldi kopuru garrantzitsua ere bildu du, eta hauen artean bereziki dira azpimarratzekoak, duten garrantzi objektiboarengatik: Nazioarteko XIII. "Bilboko Hiria" Atletismo Bilkura, Bilbao Extreme-ren 3. gertaldia, Herri Krosa, edota Bilbao Night Marathon ekitaldia, beste askoren artean.

Etxebizitza

2013

Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

Etxebizitza 8

Etxebizitza

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Higiezinen eskaintza

Etxebizitza berria eta erabilitakoa

Etxebizitzen transakzioak

Etxebizitzen alokairua

Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

BilbaoObservatorio

Etxebizitza

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Biztanleen eta etxebizitzen errolda

Biztanleen eta Etxebizitzen azken erroldaren arabera, Bilboko etxebizitza-parkean 160.283 zegoen 2011n; horietatik 159.973 familia-etxebizitzak ziren, eta 310 besterik ez, establezimendu kolektiboak. Familia-etxebizitzen artean, % 9,4 hutsik zeuden eta % 1,8 bigarren etxebizitzak ziren.

Bilboko ia 24.000 etxebizitzak ehun urte baino gehiago dituzte (% 14,8)

Gainera, hiribilduko eraikinen % 52,3k 50 urte baino gehiago dituzte, eta horien artean, % 28,3k, mendea baino gehiago.

Hiriburu batzuk eta besteak alderatuta, etxebizitza huts gutxien dituena Bilbo da, hain zuzen ere (% 9,4); gero, Gasteiz (% 9,7), eta azkenik, Donostia (% 13,2). EAEn, denetara, etxebizitza hutsak guztien % 11,4 dira.

Establezimendu kolektiboak Bilboko etxebizitza guztien % 0,2 dira, eta horietako % 35 baino gehiago hutsik zegoen 2011n. Hiribilduko 310 establezimendu kolektiboen artean, gehienak adinekoen egoitzak, zahar-etxeak edo komentuak dira, eta horiez gain, baita hotelak, ostatuak eta antzeko establezimenduak ere.

Etxebizitzak, mota eta eremuaren arabera. 2011

	Etxebizitzak, guztira	Familia-etxebizitzak					Establezimendu kolektiboak	
		Guztira	Lehen etxeb.	Lehen etxeb. ez direnak			Okupatuta	Okupatu gabe
				Guztira	Bigarren etxeb.	Hutsak		
EAE	**1.020.131**	**1.018.794**	**860.522**	**158.272**	**42.115**	**116.157**	**893**	**444**
Araba / Álava	156.516	156.273	130.170	26.103	8.064	18.039	171	72
Gipuzkoa	333.260	332.835	276.407	56.428	13.920	42.508	269	156
Bizkaia	560.355	529.686	453.945	75.741	20.131	55.610	453	216
Bilbo	**160.283**	**159.973**	**142.043**	**17.930**	**2.847**	**15.083**	**195**	**115**
Donostia-San Sebastián	89.445	89.287	74.397	14.890	3.085	11.805	114	44
Vitoria-Gasteiz	111.907	111.748	98.632	13.116	2.268	10.848	127	32

Iturria: Eustat. Biztanleen errolda eta Etxebizitza 2011.

Etxebizitzak

2013an, Bilboko 4.064,94 hektareako azaleran 11.632 eraikin zeuden, eta horien artean, 158.238 etxebizitza eta 34.096 lokal, Udal Erroldak emandako datuen arabera.

Udalerriko etxebizitzen % 9,9 hutsik daude

Guztirako etxebizitza kopurua % 0,2 igo da 2012. urtearekin alderatuta (333 gehiago, zenbaki absolututan). Etxebizitzen % 90,1ean norbait bizi da (batez beste, 2,45 pertsona etxe bakoitzeko), eta gainerako % 9,9a hutsik daudenak dira.

Bilboko zortzi barrutien artean aldea dago, bakoitzean dagoen etxebizitza kopuruari dagokionez: Ibaiondon dago etxebizitza kopuru handiena (guztirakoaren % 17,7), eta ondoren, Abandon (% 15,4), Deustun (% 14,0) eta Errekalden (% 13,7). Denetara, 20.000 etxebizitza baino gehiago dago lau barrutiotan. Etxebizitza hutsen tasa handienak dituzten barrutiak Abando, Uribarri, Basurtu-Zorrotza eta Ibaiondo dira. Abandoko datua da denetan aipagarriena (% 15,6). Otxarkoaga-Txurdinagan, aldiz, etxebizitza guztien % 6,0 baino ez dago hutsik.

Aurreko urteetan bezala, etxebizitza dentsitate handienak Abandon eta Begoñan erregistratu dira, 114,3 eta 106,7 etxebizitza hektareako 2013an, hurrenez hurren. Batez besteko balio horiek Hiribilduaren batez besteko dentsitatearen (38,9 etxeb./Ha) halako hiru dira, ia-ia.

Bilboko etxebizitza-parkea, barrutiaren arabera (kop.)

	2012		2013			
	Etxebizitzak	Hutsen %	Etxebizitzak	Hutsen %	Bizt./ etxeb.	Dentsitatea (etxeb./Ha)
Etxebizitzak, guztira (kop.)	**157.905**	**9,9**	**158.238**	**9,9**	**2,45**	**38,9**
Deustu	22.055	9,0	22.160	9,3	2,48	44,8
Uribarri	17.358	9,7	17.453	10,2	2,36	41,7
Otxarkoaga-Txurdinaga	11.002	5,3	11.025	6,0	2,63	28,3
Begoña	18.883	6,6	18.892	6,7	2,37	106,7
Ibaiondo	27.938	9,8	27.994	9,6	2,45	29,0
Abando	24.456	15,7	24.503	15,6	2,49	114,6
Errekalde	21.608	9,6	21.607	9,2	2,44	31,0
Basurtu-Zorrotza	14.605	9,8	14.604	9,7	2,45	20,6

Iturria: Udal errolda.

Bilboko etxebizitza kopuruaren bilakaera 2012tik 2013ra, barrutien arabera (%)



Iturria: Udal errolda.

Lokalak

Bilboko Udal Erroldaren datuen arabera, 2013. urtean 34.096 lokal zegoen (aurreko urtean baino 371 gutxiago). Okupazio-mailari begira, % 62,2 jardueraren bat garatzeko erabiltzen dira.

Lokal aktiboen datuak oso bestelakoak dira barruti batzuetan eta besteetan; Abandon, adibidez, okupazio-maila handiena dago, % 76,4koa (batez bestekoaren gainetik dagoen barruti bakarra da, gainera), eta Uribarrin, berriz, txikiena: % 43,2 besterik ez. Tartean dauden barrutien datuak hauexek dira: Deustu (% 60,7), Ibaiondo (% 59,1), Basurtu-Zorrotza (% 56,1), Otxarkoaga-Txurdinaga (% 54,3) eta Begoña eta Errekalde (% 52,9).

Higiezinen eskaintza

Etxebizitza berria eta erabilitakoa

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistikaren arabera, Bilbon eskura dauden etxebizitza berri libreen batez besteko prezioa 4.068 €/m2-koa izan da 2013an. Horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuta % 8,2 jaitsi dela.

Bilbon hala etxebizitza berrien nola erabilitakoen prezioak jaitsi dira

Barrutien arabera , etxebizitza berri librearen batez besteko prezioa Uribarrin (3.221,18 €/m²), Boluetan (3.760,28 €/m²), Alde Zaharrean (3.514,83 €/m²) eta Errekalden (4.094,49 €/m²) hiribilduaren batez bestekotik beherago dago. Deustu-San Inazio (4.175,74 €/m²) batez bestekoaren gainetik dago, gutxigatik bada ere, eta Abandon, etxebizitza berriek batez beste 523.700 euroko prezioa izan dutenez, barrutiko batez bestekoak (5.741,32 €/m²) aise gainditzen ditu beste barruti guztietako datuak.

Bigarren eskuko etxebizitzen alorrean, prezioa % 12,4 jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta: 4.148 €/m²-tik 2012an 3.634 €/m²-ra 2013an. Hortaz, erabilitako etxebizitzen batez besteko prezioa 340.400 eurokoa izan da.

Barrutien araberako datuei begira, Abando da, Deustu-San Inaziorekin batera, Hiribilduaren batez bestekoaren gainetik dagoen bakarra, erabilitako etxebizitzen batez besteko prezioei dagokienez: 4.488,6 €/m². Batez besteko preziorik txikiena, aldiz, Otxarkoagan erregistratu da: 2.592,6 €/m².

Etxebizitzen batez besteko prezioa

	2012	2013	% 2013/12
Etxebizitza berria (€/m²)	4.431	4.068	-8,2
Erabilitako etxebizitza (€/m²)	4.148	3.634	-12,4

Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Salgai jarritako etxebizitza berri librearen eta erabilitakoaren batez besteko prezioak (€/m²), eremuaren arabera (2012ko 4. hiruhilekoa)

	Etxebizitza berri libreak			Erabilitako etxebizitzak		
	KOP.	m²-KO Prezioa (€)	Etxebizitzako prezioa (mila €-tan)	KOP.	m²-KO Prezioa (€)	Etxebizitzako prezioa (mila €-tan)
Bilbo	**415**	**4.067,69**	**326,1**	**3.960**	**3.633,6**	**340,4**
Deustu-San Inazio	73	4.175,74	305,1	238	3.811,0	343,4
Uribarri	48	3.221,18	272,2	238	3.326,8	294,9
Otxarkoaga	-	-	-	134	2.592,6	220,5
Bolueta	45	3.760,28	309,8	374	3.004,8	236,5
Alde Zaharra	78	3.514,83	256,8	734	3.000,1	271,7
Abando	72	5.741,32	583,7	1.414	4.488,6	458,1
Errekalde	93	4.094,49	291,2	573	3.134,6	260,0
Basurto	-	-	-	255	3.086,2	281,1

(-) Baliorik gabe; lagin nahikorik ez.
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Higiezinen Eskaintzari buruzko inkesta, 2013.

(1) Ez dugu Basurtuko eta Otxarkoagako barrutietako daturik.

Etxebizitzen transakzioak

Etxebizitzaren merkatuaren geldialdia orokortzen hasia da, krisi ekonomikoak, finantza-sistemaren hondamendiak eta finantzaketa eskuratzeko zailtasunek eraginda, eta ondorioz, etxebizitzen salerosketa eta transakzioak gero eta ezohikoagoak dira.

Etxebizitzen transakzioak % 13,1 jaitsi dira Bilbon 2013. urtean

Sustapen Ministerioaren Higiezinen Transakzioei buruzko Estatistikan ageri denez -estatistika horrek notarioaren aurrean eskritura publiko gisa aurkeztu diren etxebizitzen salerosketei buruzko informazioa ematen du-, Bilbon 2013an saldu edo erosi diren etxebizitzen kopurua % 13,1 jaitsi da. Guztira 1.646 eragiketa burutu dira urte horretan; oso gutxi, beraz, 2007an 3.840 transakzio egin zirela kontuan hartuta.

2013ko transakzio guztien % 95,7 etxebizitza libreen merkatuan egin dira. Urtetik urtera, eragiketa kopurua % 10,9 jaitsi da arlo horretan. Etxebizitza babestuen artean, jaitsiera are nabarmenagoa izan da, -% 44,5ekoa. Guztira 71 eragiketa besterik ez dira burutu 2013an; 2012an, aldiz, 128.

Eraiki berritako etxebizitzen transakzioek ere behera egin dute 2012rekin alderatuta (-% 39,3). Kontuan izan behar da, gainera, jaitsiera hori bigarren eskuko etxebizitzen transakzioen jaitsieraren (-% 6,5) sei halako izan dela.

Etxebizitzen transakzioak

	2012	2013	% 2013/12
Etxebizitzak, guztira	**1.895**	**1.646**	**-13,1**
Libreak	1.767	1.575	-10,9
Babestutakoak	128	71	-44,5
Eraiki berriak	384	233	-39,3
Bigarren eskukoak	1.511	1.413	-6,5

Iturria: Higiezinen salerosketei buruzko estatistika, Sustapen Ministerioa.

Etxebizitzen alokairua

Bilbon etxebizitza bat alokatzeak 894 euroko kostua du batez beste

Bilbon etxebizitza bat alokatzea merkeagoa izan da 2013an aurreko urtean baino, % 4,4 gutxiago, 894,0 euroko errenta eskatu baitute maizterrek, batez beste.

Lurralde historikoen arteko alderaketa eginez gero, Bizkaiak du errentarik altuena (838,8 €/hil.); hein batean, Gipuzkoako datuak behera egin duelako (-% 6,6, 821,6 €/hil.). Bigarren beherakada handiena Araban gertatu da (-% 5,9), bertako errenta 743,9 €/hil. izan baita 2013an. Aztertutako eremu guztietan jaitsi dira errentak, eta Alde Zaharrean, gainera, Bilboko beherakadaren batez bestekoa gainditu da: hileko 879,0 €-tik hileko 823,1 €-ra (-% 6,4). Kontrako muturrean, Abandon egonkor mantendu da alokairuen errenten datua (-% 0,1). Deustu–San Inazion, Bolueta eta Errekalden ere alokairu errentak jaitsi egin dira, baina kasu guztietan EAEko batez bestekoa baino gutxiago.

Etxebizitza babestuaren kasuan, alokairua 351 eurotan dago

2013. urtean, Bilbon etxebizitza berri babestu bat alokatu dutenek 351,1 euro ordaindu dituzte batez beste; hau da, aurreko urtean baino % 15,1 gutxiago.

Lurralde historikoen datuen konparazioak erakusten duenez, errenta altuena Bizkaian erregistratu da (354,5 €/hil.). Beste lurraldeenaz gain, EAEko batez bestekoa ere gainditu du Bizkaiko datuak, EAEkoa hileko 321,3 eurotan geratu da-eta.

Alokairuan jarritako etxebizitza libreak eta errentak (€/hileko), eremuaren arabera (2013ko 4. hiruhilekoa)

Eremuak	Etxebizitzak	Errenta* (€/hileko)
EAE	**2.024**	**825,4**
Bizkaia	1.379	838,8
Araba	251	743,9
Gipuzkoa	340	821,6
Bilbo metropolitarra	1.228	862,3
Bilbo	**652**	**894,0**
Deustu-San Inazio	90	860,7
Bolueta	58	760,2
Alde Zaharra	74	823,1
Abando	214	1.044,6
Errekalde	84	886,9

* Etxebizitza kolektiboen errenten datuak biltzen dira bakarrik.
(Lagina nahikoa izan ez denez, ez dago daturik Otxarkoaga eta Basurtuko barrutietarako).
Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza. Higiezinen eskaintzari buruzko inkesta, 2013.

Alokatuta dauden babestutako etxebizitza berrien eta hileko errentaren datuak, eremu desberdinetan (2013ko 4. hiruhilekoa)

Eremuak	Etxebizitza kop.			Hileko errenta (hileko €-tan)		
	Guztira babestutakoak	Babes ofizialekoak	Etxebizitza sozialak	Guztira babestutakoak	Babes ofizialekoak	Etxebizitza sozialak
CAPV	**262**	**202**	**60**	**321,3**	**350,5**	**174,8**
Bizkaia	160	120	40	354,5	391,4	135,3
Araba	36	36	0	-	-	-
Gipuzkoa	66	46	20	239,5	268,9	-
Total capitales	**128**	**112**	**16**	**345,2**	**361,9**	**-**
Bilbao	**66**	**50**	**16**	**351,1**	**396,8**	**-**
Vitoria-Gasteiz	36	36	0	-	-	-
Donostia-San Sebastián	26	26	0	-	-	-

(-) Baliorik gabe; lagin nahikorik ez.
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiken Saila. Higiezinen eskaintzari buruzko inkesta, 2013.

Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailak emandako informazioaren arabera, Bilbon salgai jarritako lokal komertzial libreen batez besteko prezioa EAEn baino % 22,6 garestiagoa izan da 2013an: 2.478,80 eurokoa m²-ko. Alokairua 1.638,5 eurokoa izan da hil bakoitzeko, EAEn baino % 33,7% garestiagoa.

Urte berean, Bilbon salgai egon diren garaje libreek 36.439,10 euroko prezioa izan dute batez beste (aurreko urtean baino % 11,3 gutxiago); kasu horretan ere, EAEn izan duten prezioa (28.496,00 euro) eta hiru lurraldeetakoak aise gainditu ditu Bilbokoak. Bilbon Bizkaiko garaje guztien % 36 daude, eta EAE guztiko % 21.

Trastelekuei dagokienez, guztira 427 eskaini dira Bilbon 2013. urtean (Bizkaiko guztien % 25), eta horien salmenta-prezioa merkatu librean 1.228,10 eurokoa izan da m²-ko. Lokalen eta garajeen antzera, trastelekuak ere garestiagoak izan dira Bilbon hiru lurraldeetan eta EAEn baino.

EAEko lokal komertzialak, eremuaren arabera. Salmenta eta alokairu prezioak. 2013

	Libreak				Babestutakoak			
	Salmenta		Alokairua		Salmenta (*)		Alokairua	
	Kop.	m²-ko prezioa (€)	Kop.	Errenta/hileko	Kop.	m²-ko prezioa (€)	Kop.	Errenta/hileko
EAE	**3.233**	**2.020,6**	**2.483**	**1.224,9**	**-**	**-**	**-**	**-**
Bizkaia	1.335	2.088,8	1.263	1.246,7	-	-	-	-
Araba	1.155	1.732,8	766	1.122,1	-	-	-	-
Gipuzkoa	744	2.410,9	454	1.354,5	-	-	-	-
Bilbo	**293**	**2.478,8**	**474**	**1.638,5**	**-**	**-**	**-**	**-**

(-) Baliorik gabe; lagin nahikorik ez. (*) Salgai jarritako babestutako lokal komertzialen prezioa, 2013ko lehen hiruhilekoa.
Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.Eusko Jaurlaritza.Higiezinen Eskaintzari buruzko inkesta.

EAEko garajeak, eremuaren arabera. Salmenta eta alokairu prezioak. 2013

	Libreak				Babestutakoak			
	Salmenta		Alokairua		Salmenta		Alokairua	
	Kop.	Prezioa	Kop.	Errenta/hileko	Kop.	Prezioa	Kop.	Errenta/hileko
EAE	**6.327**	**28.496,00**	**537**	**84,10**	**3.545**	**15.837,20**	**246**	**41,40**
Bizkaia	3.583	29.157,90	235	79,30	1.783	16.512,30	140	58,30
Araba	662	25.965,10	171	68,80	1.183	14.735,60	41	25,00
Gipuzkoa	2.082	25.264,30	131	113,20	580	16.062,80	66	44,60
Bilbo	**1.300**	**36.439,10**	**74**	**100,70**	**-**	**-**	**-**	**-**

(-) Baliorik gabe; lagin nahikorik ez.
Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza. Higiezinen Eskaintzari buruzko inkesta

EAEko trastelekuak, eremuaren arabera. Salmenta eta alokairu prezioak. 2013

	Libreak				Babestutakoak			
	Salmenta		Alokairua		Salmenta		Alokairua	
	Kop.	Prezioa	Kop.	Errenta/hileko	Kop.	Prezioa	Kop.	Errenta/hileko
EAE	**2.494**	**961,30**	**-**	**-**	**3.354**	**595,50**	**210**	**26,00**
Bizkaia	1.717	1.015,90	-	-	1.711	608,30	144	27,00
Araba	180	659,70	-	-	1.183	585,10	-	-
Gipuzkoa	597	908,30	-	-	460	570,50	66	23,30
Bilbo	**427**	**1.228,10**	**-**	**-**	**-**	**-**	**-**	**-**

(-) Baliorik gabe; lagin nahikorik ez.
Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza. Higiezinen Eskaintzari buruzko inkesta.

Garaio eta Ingurumena

2013 Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

Garaio eta Ingurumena 9

- Garraioa eta Ingurumena
  - Hiri eta metropoli barruko garraioa
  - Aire garraioa
  - Itsas garraioa
- Ingurumena
  - Jasangarritasunaren aldeko apustua
  - Hondakinen sorrera eta kudeaketa

BilbaoObservatorio

Garraioa eta mugikortasuna

Hiri eta metropoli barruko garraioa

Bidaiari kopuru txikiagoa Bilboko garraiobide publikoan

2013. urtean zehar Bilboko garraio publikoak 116.074,18 mila bidaiari mugitu ditu guztira, Bizkaiko Garraio Partzuergoak azkena argitaraturiko txostenaren arabera. Kopuru horretan biltzen dira Metro Bilbao, EuskoTran eta Bilbobus-eko bidaiari guztiak, eta denera % 0,4ko beherakada erakusten du 2012. urtearen aldean.

Metro Bilbao-k biltzen du hiri eta metropoli barruko bidaiari kopuru osoaren % 75, eta denera 87,1 milioi bidaia eskaini ditu 2013an. Hala ere, urte artekoari begira, bidaiari kopurua % 0,6 jaitsi da, krisiaren ondorioek eragin zuzena dutelako metropoli barruko bidaiarien mugimendu kopuruan.

Eskueran daukagun informazioaren arabera, urtarrila izan da urte osoan, bidaiari kopuru handiena mugitu duen hilabetea, eta lehenengo bider Moyuakoa izan da bidaiariek gehien erabili duten geltokia, denera 6.189.000 bidaiari. Indautxukoa izan da bigarren, eta honetan ere 6 miloi bidaiariz gora mugitu dira.

Bilbo hiriko **Bilbobus** barne garraio zerbitzu publikoak, zertxobait hazi du bere bidaiari kopuru osoa 2012ko datuen aldean (6.862 bidaiari gehiago), nahiz kopuru hau, hain txikia izanik, batere ez den islatzen urte arteko ehuneko bariazioan (% 0,0). Berriro ere, ekonomiaren krisiak argitu beharko luke gertaeraren zergatia, bidaien % 43an lana izan ohi da-eta bidaion arrazoi.

Autobus zerbitzuak 28 linea konbentzional ematen ditu, 7 Auzolinea eta 8 Gautxori. Autobus flota osoa 147 ibilgailukoa da eta zerbitzuak 484 geltoki eskaintzen ditu Bilbo osoan barrena. Hala, Bilboko biztanleen % 95ek dauka autobus geltoki bat behintzat bizilekutik 250 metro baino hurrago.

Urtarrila izan da bidaiari kopuru handiena bildu duen hilabetea (2.435.517), eguaztenak izan ohi dira bidaiari mugimendu handieneko egunak, eta batez besteko bidaiari kopurua 86.978koa izan da lan egunetaran. 56 eta 77 lineek jarraitu dute izaten bidaiari kopururik handiena mugitu dutenak (2.000.111 eta 1.960.880 bidaiari hurrenez hurren).

EuskoTran, tranbia zerbitzuak balantze baikorra erakutsi du 2013an, guztira 3.119.949 bidai kopurua eskainita. Honek urte arteko % 1,2ko bidai hazkuntza esan gura du, eta batez beste, 8.547,8ko bidaiari kopurua eguneko.

Hiri eta metropoli barruko garraioa

	2012	2013	% 2013/12
Bidaiariak denera (milakoak)	**116.513,10**	**116.074,18**	**-0,4**
Metro Bilbao	87.615,09	87.133,03	-0,6
EuskoTran	3.083,68	3.119,95	1,2
Bilbobus	25.814,33	25.821,20	0,0

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

Aire Garraioa

Bilboko aireportuak 3.800.789 bidaiari mugitu ditu 2013. urtean zehar, eta honek aire garraioaren urte arteko % 8,9ko jausia esan gura du (denera 370.276 bidaiari gutxiago).

% 8,9 jaitsi da bidaiari kopurua Bilboko aireportuan

Urte osoko trafiko globalaren balantzeak bi ezaugarri desberdin batu ditu, batetik, Espainiako estatu barruko trafikoaren jauskera (denera % 15,6ko jausi gotorra), eta bestetik aldiz, nazioarteko hegaldietako bidaiarien % 3,6ko hazkundea.

Edozelan, Espainiako estatu barruko trafikoak biltzen badu ere hegaldi komertzialetako bidaiarien bi heren (2,3 milioi 2013an), honen pisu erlatiboa apurka baina erreskadan dabil jausten azken urteetan. 2009an denera % 74ko kopurua zenetik, 2013an izan den % 61era.

Edozelan urtean zehar gauzatutako 42.836 hegaldiek, operazioen % 14,7ko jausialdia erakusten dute (denera 7.345 gutxiago). Hegaldi komertzialek -berez hegaldi guztien % 91,2 ere badirenek-, % 13,3ko jausialdia erakutsi dute, kasuan biak zentzu berean batuta Espainiako estatu barruko trafikoaren jauskera (% -18,8 eta 5.271 operazio gutxiago 2012an baino) eta nazioartekoarena (% -4,1 eta 695 hegaldi gutxiago).

2013an bidaiari kopuru handiena mugitu duten aire konpainiak, Vueling, Lufthansa eta Air Europa izan dira, hurrenez hurren bakoitzak bidaiarien % 35, % 13 eta % 11 garraiatuta. Hiru konpainion artean bildu dute aireportuan mugitu den bidaiarien kopuruaren erdia baino gehiago. Bestalde, esan behar, Madrileko Barajasko aireportuak eta Bartzelonako Pratekoak bildu dutela estatuko bidaiari trafiko osoaren % 38, eta berauek direla abiada zein helburuko bidaiari kopuru handiena biltzen duten bi aireportuak.

Aire garraioa

	2012	2013	% 2013/12
Bidaiariak (guztira)	**4.171.065**	**3.800.789**	**-8,9**
Hegaldi komertzialak	4.166.446	3.791.287	-9,0
Espainiako estatu barrukoak	2.731.744	2.304.220	-15,7
Nazioartekoak	1.434.702	1.487.067	3,6
Hegaldiak (denera)	**50.028**	**42.683**	**-14,7**
Hegaldi komertzialak	44.879	38.913	-13,3
Espainiako estatu barrukoak	27.993	22.722	-18,8
Nazioartekoak	16.886	16.191	-4,1
Merkantziak (t)	**2.263**	**2.541**	**12,3**

Iturria: Aena.

Itsas garraioa

Bilboko portuak 30 milioi tonaz gorako trafiko kopuruz itxi du 2013ko jarduna, eta honek trafikoaren urte arteko % 1,9ko hazkuntza esan gura du. Datuok benetan dira baikorrak, Portuaren jarduera galeren ondorenean aurreko urte sail batean. Eta Portu Agintearen ustean, ekonomia hobekuntza orokorraren seinale izan liteke.

2013an 30 milioi tonaz gorakoa izan da guztira Portuko trafikoa

Merkantzia trafikoa da ia osorik Portuko trafikoa (29,6 milioi tona 2013an, eta honek urte arteko % 2,2ko hazkundea esan gura du). Aldiz, hornidurazko trafikoa eta trafiko lokala 470.550 tonetara jausi da garai berean (% -1,4 2012ko urtearen aldean).

Ontziratu gabeko isurkarien trafikoa da batera (petrolio gordina, fuel-oiloa eta gasa nagusiki), Portuko merkantzia trafiko guztiaren erdia baino gehiago, eta 2013an 15,8 milioi tona ere hartu ditu. Datu honek urte arteko % 4,7ko igoera erakutsi du, batik bat fuel-olioaren trafikoaren hazkuntza datu positiboen eragin. Ontziratu gabeko solidoak ere, bere aldetik, % 8,8ko hazkundea erakutsi dute, guztira 4,4 milioi tonako bolumena iritsita, eta hazkuntza nabarmenak erakutsiz txatar, mineral eta petrolio koke kopurutan.

Edozelan, bestelako merkantzien trafikoa % 2,2 jaitsi da, eta 9,4 milioi tonara baino ez da iritsi. Antzeko datua islatzen da ere bestelako merkantzia konbentzionalen trafikoaren jauskeran (% -4,7), eta baita edukiontzietan kudeaturiko trafikoan ere (% -0,9).

Edukiontzien trafikoa ez da hala ere larregi jausi 2012ko urtearen aldean (% -0,5), eta guztira 606.827 TEU unitate kudeatu dira.

Itsas garraioa

	2012	2013	% 2013/12
Portu trafikoa (t)	**29.505.874**	**30.072.879**	**1,9**
Merkantzia trafikoa	**28.952.727**	**29.602.329**	**2,2**
Ontziratu gabeko isurkariak	15.060.947	15.761.451	4,7
Ontziratu gabeko solidoak	4.261.691	4.421.584	3,8
Bestelako merkantzia	9.630.089	9.419.294	-2,2
Edukiontziak	6.392.125	6.334.653	-0,9
Konbentzionala	3.237.964	3.084.641	-4,7
Hornidura trafikoa eta lokala	**553.147**	**470.550**	**-14,9**
Edukiontziak(TEUak)	**610.133**	**606.827**	**-0,5**

Fuente: Puertos del Estado.

Ingurumena

Jasangarritasunaren apustua

Bilboko Udalak apustu argia egin du udalerrian jasangarritasuna bultzatzearen alde, eta hala geratu da jasoa 2011-2015 Gobernu Planean. Txosten honetan hainbat ardatz estrategiko erakusten dira ildo horretan, beti ere, Bilbo hiri 'adiskidetsu', eroso eta irisgarria bihurtuko duen hiri ingurua lortzeko jomugaz, eta ingurumenarekin jasangarriak diren garapen moduetatik abiatuta.

Azken urte hauetan jarri dira abian Klima-aldaketarako bulegoa, eta Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana. Aldi berean ekin zaio ingurumenaren kutsaduraren zainketa zorrotzari, eta beharrean dihardugu energia berriztagarrien sorkuntzaren alde udalaren instalazioetan, zein etxebizitzetan, eta aldi berean, energia eraginkortasuna sustatu eta uraren zentzuzko erabileraren alde ere.

Amaitzeko, merezi du azpimarratzea Bilbo hiriak eskaintzen duen berdeguneen zabala. Denera, batetik 200 hektarea, 21 parketan banatuak, eta bestetik beste 1.041 hektarea baso, 6 barrutitan barreiatuta (Artxanda, Abril mendia, Arnotegi, Pagasarri eta Arraitz-en), eta hauetan 18 olgeta gunek ere badute lekua.

Generación y gestión de residuos

Etxeetan sorturiko hondakin kopurua % 3,2 murriztu da

Bizkaiko Foru Aldundiaren Hondakinen Behatokiaren datuen arabera, Bilbon etxeetan sorturiko hondakinen kopurua 116.337 tonakoa izan da 2013. urtean, eta datu horrek % 8,2ko jauskera erakusten du 2012ko urtean izaniko bolumenaren aldean. Beraz, 2013. urtean, etxeetan zaborra sortze tasa 333,0 kilora murriztu da biztanleko.

Dena nahasian bildutako hondakin kopurua ere jaitsi egin da 2012ko urtekoaren aldean (3.414 tona gutxiago; % -3,5) eta etxeetan sorturiko hondakin bolumen osoaren % 81,8 izan da. Bestalde, gaikako bilketa ere jaitsi egin da, bilduriko 22.456 tona kopururaino, % 2,1eko jauskera urte artean (481 tona gutxiago). Jaitsiera honen kausa zuzena izan liteke familien kontsumo neurtuagoa, igarotzen gabiltzan egoera ekonomikoaren eragin.

Hondakin sorrera

	2012	2013	% 2013/12
Etxeetan sorturiko hondakinak (t)	**120.232**	**116.337**	**-3,2**
Bilketa nahasia	97.776	94.362	-3,5
Gaikako bilketa	22.456	21.975	-2,1
Etxeetako hondakinak (kg./bizt./urte.)	**341,9**	**333,0**	**-2,6**

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.